

•eus  
**Jakin210**

herria kultura hizkuntza iraila-urria  
2015

**Egunkaria**  
25 urte

JOAN MARI TORREALDAI  
LOREA AGIRRE  
IRENE ARRARATS

PATXI JUARISTI  
AITOR ZUBEROGOITIA

**EGUNEN GURPILEAN**

NAGORE AMONDARAIN · HENRIKE GALARTZA  
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

**Jakin**<sup>•eus</sup>**210**  
herria kultura hizkuntza iraila-urria  
2015



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

#### LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

#### OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

#### ZUZENDARIA

Lorea Agirre

#### ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

#### KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

#### IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)

[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

## SUMMARY

### 5

## ZENBAKI HONETAN

### 7

## GAI NAGUSIA Egunkaria 25 urte

### 11 Irautea irabaztea denean

Egunkariaren sorrera eta garapena Joan Mari Torrealdairen arabera

#### Lorea Agirre

Joan Mari Torrealdaik Egunkaria sortu aurreko garaiak, haren sorrera eta garapenaren lekukotza zuzena ematen du, eta horrekin erakundetze autonomikotik aurrera euskal kulturgingintzaren eta erakunde publikoen arteko harreman korapilatsuen kontaketa egiten du.

### 51 Egunkariak nola irakurri gaituen

#### Lorea Agirre

Egunkariak euskal hiztuna, euskal kultura eta Euskal Herriaren lurraldetasuna ordura arte ez bezala irakurri zituen. Hizkuntza ezaugarri zentral zuen 'nazio imajinatua' egunero-egunero nola eraiki zuen aztertzen da, aldi berean hiztun komunitatearen ispilu eta elikagai izanda.

### 65 Hutsetik 3.789ra

#### Irene Arrarats

Egunkariak euskararen estandarizazio eta normalizazioari eta kazetaritza idazkerari eginiko ekarpena aztertzen da: urte haietan nolakoa zen irakurle potentzialen soslaia, alderdi soziolinguistikotik begiratuta; zertan zen euskal prosa; eta zein izan ziren egunkarian erabili eta estilo liburuetan jasoriko irizpideak.



**79** Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta  
Patxi Juaristi

1960ko hamarkadatik aurrera sortuz joan zen gizarte zibil euskaltzalearen berezitasunak eta bilakaera aztertzen dira, Egunkariaren sorreraren testuinguruan jarri eta hobeto ulertzeko helburuarekin.

**93** Atzerako ispiluan ageri dena  
Aitor Zuberogitia

Egunkariaren ibilbidearen berri ematen da. Horretarako, kazeta hori sortu aurretik euskarazko prentsak Markina-Xemeinen zein Lea-Artibain zeukan itzalari eta sorreraz geroztik izaniko bilakaerari erreparatzen zaio. Errealitate partikular horretatik abiatuta, Egunkariaren eraginaren inguruko ondorio orokor batzuk zirriborrotzen dira.

## EGUNEN GURPILEAN

**111** Kultura  
Nagore Amondarain

**117** Ekonomia  
Henrike Galarza

**123** Soziolinguistika  
Txerra Rodriguez

**129** Telepolis  
Gorka Julio

## KONTRAZALA Unai Iturriaga

## *EUSKALDUNON EGUNKARIA, 25 YEARS*

When enduring means winning. The creation and development of *Euskaldunon Egunkaria* according to Joan Mari Torrealdai

In an interview with the journalist Lorea Agirre, Joan Mari Torrealdai offers an eye-witness account of the setting-up and development of the daily *Euskaldunon Egunkaria*, in which the complex relations between the world of the Basque culture and public institutions during the autonomous institutionalisation process are reflected. [Lorea Agirre](#)

What *Euskaldunon Egunkaria's* view of us has been

The daily *Euskaldunon Egunkaria* provided a view of the Basque speaker, Basque culture and the territoriality of the Basque Country that had hitherto never been done. The journalist Lorea Agirre analyses the way in which an 'imagined nation' was built on a day-to-day basis and whose key feature was the language. [Lorea Agirre](#)

From zero to 3.789

Irene Arrarats, the person then in charge of the Basque language at the daily *Euskaldunon Egunkaria* and currently at *Berria*, analyses the contribution made by *Egunkaria* to the standardisation and normalisation of the Basque language and to journalistic writing in general. The author analyses the socio-linguistic profile of the potential reader at that time, what type of prose was in vogue and the criteria that were applied by the newspaper and gathered in the Style Guides. [Irene Arrarats](#)

### *Euskaldunon Egunkaria*: the success of Basqueophile civil society

Patxi Juaristi, lecturer in Sociology and member of the Jakin Editorial Board, analyses the distinguishing features and evolution of Basqueophile civil society which emerged in the 1960s, with a view to placing it and understanding it better within the context of the emergence of the daily *Euskaldunon Egunkaria*. **Patxi Juaristi**

### Looking through the rear-view mirror

The lecturer in Communication Sciences Aitor Zuberogitia relates the trajectory of the daily *Euskaldunon Egunkaria*. To this end, the author analyses the presence of the Basque language press in Markina-Xemein and Lea-Artibai and its evolution following the emergence of this new daily, and draws some general conclusions about the influence of *Egunkaria* based on that particular reality. **Aitor Zuberogitia**

### NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. **Various authors**

**E**gunkariak ez ditu 25 urte bete. Baina orain dela 25 urte sortu zen. Mende laurdenaren erdia bizi izan zen, 13 urte betetzen ez zioten utzi-eta. Egunkariaren itxiera biolento eta traumatikoaz sorreraz baino askoz gehiago idatzi izan da, normala denez. Orain zorra kitatzera gatoz eta zenbaki honetan aztertu nahi izan duguna horixe da: Egunkaria nola sortu zen, zertarako, eta zer ekarpen egin zion hiztun komunitateari, euskararen normalizazioari, herrigintzaren ekimenari eta ordura arteko hedabideen mapari.

Izan ere, Egunkariaren sorrerak merezi du tentuz ezagutzea eta aztertzea. Krisi ekonomikoko giroan, egoera politikoki polarizatu betean, erakunde publikoen laguntzarik gabe, eta are orduko Eusko Jaurlaritzaren boikot aktiboaren pean, eta biziraupenezko azpiegitura humano eta tekniko justu batekin jaio zen. Baina ez horrekin bakarrik. Kulturgintzaren bihotzean jaio zen, kulturako jendeen beharretatik sortu, eta haren babesean eta herri ekimenaren sostenguz garatu. Txanponaren bi aldeak, beste behin, Egunkariaren historian. Irauteak salbatu zuen, irauteak eta irauun bitartean euskarazko lehen egunkariaren aldeko sostengua landu eta finantziazio bideak lotzeak. Horrela gogoratzen du Joan Mari Torrealdaik. Sorrera haren testigu eta protagonista nagusi izan zen Torrealdai, eta elkarrizketa luze eta mamitsu batean, pausoz pauso kontatzen du orduko historia, egun, leku eta izen. Eta, horrekin batera, erakundetze autonomikotik gaur arte euskalgintzan eta kulturgintzan gertatu diren aldaketak eta talkak ulertzeko giltzarriak ematen ditu.

Horren ondotik datozen lau artikulua Egunkariaren ekarpena alorrez alor aztertzeke saioa dira.

Egunkariak euskalduntasunaren, lurraldetasunaren eta euskal kulturaren gaineko diskurtso berri bat ekarri zuen. Diskurtso berria eta praktika berria, eta horrekin batera hiztun komunitatea erdigunean jartzea ere. Euskalduna zer den, Euskal Herria zer den eta euskal kultura zer den zedarritu eta hiru kontzeptu horien gainean *nazio imajinatu* propioa eraikitzeke ahalegina egin zuen. Hori da bigarren artikulua azaltzea xede duena.

Zer esanik ez, Egunkariak ekarpen nabarmenetako bat euskararen estandarizazioari eta normalizazioari egin zion, eta baita euska-



razko kazetaritza idazkerari ere. Egunero-egunero hitz, izendapen, definizio eta kontzeptu berriak jarri zituen zirkulazioan, ordura arte inoiz ikusi gabeko kantitatean eta kalitatean. Irene Arraratsek, egun *Berria*-ko euskara arduradun denak, ondu du artikulua.

Patxi Juaristi soziologoak errepasso luzea egiten dio gizarte zibila-ren ekimenari 60ko hamarkadan hasi eta Egunkariaren sorrera arte. Euskarazko egunkari baten aldeko lehen bilera egin eta hamahiru hilabetera kalean zegoen Egunkaria. Halako balentriaren arrazoiak hiru direla iritzi dio: aurreko hamarkadetan «euskararen aldeko partekatutako identitatea eraiki» izana, Egunkariaren egitasmoa baterakoa eta zabala eta Egunkaria Sortzen taldea anitza eta prestigio-duna izatea, eta, azkenik, herritarrek egin zuten lan eskerga.

Egunkariaren gaineko artikuluekin bukatzeko, Aitor Zuberogoitia kazetariak Egunkariak hedabideen eremura zer ekarri zuen aztertu du, eta, euskarazko kazetaritzaren autozentratze-ahaleginean, kazetaritza-erregistroen eta hizkeraren garapenean eta hizkuntza komunitatea artikulatzearen aldeko lanean aitzindari izana aitortzen dio Egunkariari.

*Egunen gurpilean* sailean, aipagarri da Nagore Amondarainek, Donostiako Tabakalera zentroaren irekieraren eta Kortxoenea gazetxearen eraiketaren argitan, hainbat kultur zentroren gaineko errepassoa egiten duela. Henrike Galarza, Ekonomia atalean, langabezia estatistiken eta Volkswagen enpresaren gezurrez mintzo zaigu, besteak beste. Soziolinguistika alorrean, Patxi Saezek euskararen etorkizuneko estrategiez egin proposamena eta proposamen horri 50 bat lagunek egin iradokizunak hartu ditu ahotan Txerra Rodriguezek. Eta, azkenik, Gorka Juliok, Telepolis atalean, ezagutza, gailu, tresna eta programa libreen aldeko aldarria egiten du «ahalduntze teknologikoa» erdietsi ahal izateko.

## EGUNKARIA 25 URTE

- 11** Irautea irabaztea denean  
Egunkariaren sorrera eta garapena  
Joan Mari Torrealdairen arabera  
Lorea Agirre
- 51** Egunkariak nola irakurri gaituen  
Lorea Agirre
- 65** Hutsetik 3.789ra  
Irene Arrarats
- 79** Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen  
arrakasta  
Patxi Juaristi
- 93** Atzerako ispiluan ageri dena  
Aitor Zuberogoitia

# Irautea irabaztea denean

Egunkariaren sorrera eta garapena

Joan Mari Torrealdairen arabera

Lorea Agirre

*Kazetaria*

Joan Mari Torrealdaik oso gogoan du *Euskaldunon Egunkaria*-ren sorrera 25 urte pasa izanagatik. Detaile handiz gogoratzen ditu ordukoak. Izan ere, azken hamabi urteetan, behin eta berriz berreraiki behar izan du 'delituaren eszena' deliturik ez zela izan frogatzeko. Egunkariak omen zuen 'jatorrizko pekatuaren' kontrako borroka luze bat izan da. Eta euskarazko lehen egunkariaren ilusiozko eta asmo berri eta eraikitzaileko jaiotza izan zena ezin da kontatu, ezin du kontatu, Egunkaria sortu eta hamahiru urtera indarrez itxi, zuzendaritza atxilotu, torturatu, kartzeleratu, epaiketara joan, errugabe irten, eta, 11 urteko kalbarioa izan zena gertatu izan ez balitz bezala.

Torrealdaik, Egunkariaren sorreraren errebasoarekin, erakundetze autonomikoaren garaitik gaur egunera arte euskal kulturgintzak bizi izan dituenen historia harilkatzen du. Zer eta zergatik gertatu zen gertatu zen dena. Zenbat zailtasun, zenbat akusazio interesatu, zenbat oztopo eta boikot jasan zuen Egunkariak bere sorreran, eta baita, bestaldera, zenbateko sostengua jaso zuen milaka herritar eta irakurleren aldetik. Sortu eta pronostiko guztien kontra iraun izanak salbatu zuen Egunkaria. Iraun, eta iraun bitartean lan eskergea egiteagatik.

## ZENTSURA GARAIETATIK GATOZ

### **Euskarazko egunkari baten beharra noiz hasten da agertzen?**

Gaia lehen aldiz harrotu EITBren sorrerarekin harrotzen da, 1982an. Hori baino lehen ez zen aldarririk, sozializaturik behintzat ez. Neronek, 1976an, aldizkariak-eta aipatzen nituen, baina ez egunkaria. ‘24 orduz euskaraz’ egun bateko ekitaldiaren baitan Herri Irratian zuzenean irakurri nuen testuan egunkariarentzat goizegi zela nioen, *Erria* izeneko balizko egunkariaz ari nintzela. Ez dut uste horizontean egunkari normalizatu bat zegoenik, nik gogoratzen dudala behintzat.

### **Orduko aldarrikapena astekarien aldekoa zen.**

Bai, hala da. 1976. urtea data esanguratsu gisa hartu behar da, ze prentsa askatasuna Hegoaldera orduan iritsi zen. Gogoan izan Franco garaian ez zegoela prentsa askatasunik, eta orduan egunkari bat pentsaezina zen zeuden mugengatik. Ez zen bakarrik zentsura zegoela edozer publikatzeko, baizik eta enpresaren bat, argitaletxe bat, eratzeko gobernuaren baimena behar zela; beraz, perspektiba euskaltzale-abertzale batetik pentsaezina zen tankera horretako enpresa bat sortzea ere. Informazioa debekatua zegoen. Horrek denak egunkari baten proiektua urruti uzten zuen.

### **Eta Franco hiltzean zer aldatzen da?**

70eko hamarkadako bigarren zatiko fase hori interesantea da oso informazioarentzat joko zelai berri bat irekitzen delako, posible bihurtzen delako informazioa lantzen hastea. Guk, hori ikusita –ni *Anaitasuna*-n nengoen orduan–, *Zeruko*



*Argia*-koekin eta *Goiz Argi*-koekin, 1976an, Euskal Prentsa-ren Urtea aldarrikatu genuen, eta *news magazine* formatura ekarri genituen gure aldizkariak. Ordurako, Espainian formatu aldaketa hori egina zuten, hori zen formatu estandarra, eta guretzako normalizazioaren eta modernitatearen zeinu izan zen horra pasatzea.

### **Garaitu horretan sortzen dira, hain zuzen, aldizkari elebidunak ere.**

Hor bertan sortzen dira, bai, guretzat lehiakide ziren eta arriskutsu bezala ikusi genituen aldizkari elebidunak: *Punto y Hora*, *Garaia* eta *Berriak*. Kultura, pentsamendua, politika eta dena tartean sartuta. Erdaraz egoteaz aparte, beste bizitasun bat zuten, guk ez genuena, eta hor arrisku handia ikusi genuen. Gero ikusi genuen porrot egin zutela, eta egunkariaren garaia etorri zen. 1977an, *Deia* eta *Egin* sortzen dira, horiek ere ustez bi hizkuntzetan izatekoak. Bitarte horretan euskarazko egunkaria urruti samar geratzen zen, ez dakit errebindikazioa ba ote zen ere.

### **Ze lezio atera zenuten gerorako euskarazko egunkariaren aurreko garai horretatik?**

Ba ateratzen dugun lezio nagusia da bi hizkuntzetako argitalpenek porrot egiten dutela euskararen normalizazioari dagokionez, euskara indarra galduz doala prentsa elebidunean gero eta gehiago. Eredu desberdin eta asko egon ziren. Bat izan zen gaztelerazko egunkari baten barruan euskarazko separata bat egitea, eta horretan sartu ziren separatarekin *El Correo*, *Correo escolar*-ekin, eta *El Diario Vasco*, *Zabalik*-ekin. Eredu horren akatsa da euskara kulturarako soilik erabiltzen dela, ez informazio orokorrerako. Bigarren eredu *Egin*-ena da, eta horrek informazio orokorreko planteamendu bat egiten du euskarari dagokionean: %25 euskaraz egingo duela diote, eta euskarazko albisteak berdin agertuko direla ekonomian, politikan, kulturen edo edonon. Baina, *de facto*, kopuru horretara ez dira iristen, eta, gainera, pixkanaka-pixkanaka, testimonia la ez

dut esango, baina ia testimoniala bihurtzen da, eta, azkenean, euskara gehiago doa kulturara eta euskara gaietara. Hirugarren ereduia *Deia*-rena eta *La Voz de Euskadi*-ren *Orria*-rena da: euskarazko egunkari oso bat gaztelerazko egunkariaren barruan. *Orria*-k gutxi iraun zuen. *Deia*-n, Martin Ugalde izan zen buru, eta hark ekipo oso bat eratu zuen *Argia*-tik eta beste jendea eramanda. Planteamendu jatorra zen, egunkari oso bat zelako euskaraz, baina Martinek dimisioa eman zuen ze konturatu zen *Deia* kudeatzen zutenek, [Jose Maria] Gorordo eta beste, ez zutela horrela ulertzen, eta Martinek halako albiste bat eraman nahi bazuen lehen orrira inportantea iruditzen zitzaiolako, ez zuten aintzakotzat hartzen, eta azkenean hori ere mugatzen dute euskararen mundura. Horrela, nahi bada, autonomia badu, baina egunkari osoan separata isolatu bat bihurtzen da. Azkenean, ondorioa bera da guztietan: interesa eta garrantzia duen guztia erdaraz doa, eta euskara kultura eta euskararen inguruko gaietara mugatzen da. Beraz, planteamendu horiek denek huts egiten dute euskararen normalizazioaren perspektibatik.

**Horren guztiaren ondotik, *Egin* eta *Deia* egunkari formatuko astekariak kaleratzen hasten dira 1986an, *Hemen* eta *Eguna* hurrenez hurren, balizko egunkari baten aurrendari gisa-edo.**

Sortu ere Eusko Jaurlaritzaren interbentzio zuzenarekin sortu ziren. Egunkari izateko bokazioa ba omen zuten, baina astean behingo egunkari-astekariak ziren. Dabilen informazio fluxua ezin dute hartu, normala denez, eta hasieratik *Eguna*, jada, kulturalagoa izan zen; eta *Hemen*-ek albiste orokor gehiago agertzen bazituen ere, ze zentzu zuen azken berria erabiltzea aurreko guztiek huts egiten bazuten? Formula horrek ere huts egin zuen, formula faltsua zen. Ez dakit nori bururatu zitzaion etor zitekeen egunkari baten prestaketa formula gisara balioko zuela. Eta, gainera, ez da ahaztu behar hasieratik bertatik izan zuela akatsa, ze ez zuten *Argia*-ren proiektua kontuan hartu, eta gainera nahiko alebosiarekin prestatu zen dekretu

deialdia, 1986ko uztailearen 22an, opor atarian, atereaz. Baina, intentzioak intentzio, guri interesatzen zaigunaren aldetik, formula horrek ere ez du zentzurik. Horren irakurketa zein da? Horrek guztiak dakar gero, egunkariaren apustua edo aukera *Argia* taldetik planteatzen denean, gauza bat argi izatea: *Argia*-k motor lana egin bai, baina hortik euskalgintzara eta gizartera hedatzea, bide eraginkor bakarra hori dela sinetsita.

### Zergatik?

Alde batetik, euskarazko egunkaria seriotan hartzen delako lehen aldiz; alegia, euskarazko egunkaria ez da izango beste enpresa baten interesen menpe egongo den atala, autonomia izango da, eta ez da egongo ez alderdi politikoen azpian ezta erdarazko beste medioen azpian ere. Beste eredu guztietan, kasurik onenean ere, euskarazko egunkaria beti bigarren egunkaria izango da. Saio horien guztien azpian dagoen ideia hau da: hemen erdarazko egunkaria da inportantea, eta euskarazkoa bigarren egunkari bat da, osagarria, norberre interesetara gehiago hurbildu litekeena-edo, baina egunkari serio eta orokorra erdarazkoa da. Eta pentsamendu ofizioso hori esan ere egiten da urte haietan. Horregatik oso inportantea zen egunkaria enpresa autonomo gisa planteatzea, euskal kulturaren mundutik etortzea, eta interes politikoaetatik apartekoa izatea, ze kontu izan orduan interes politiko oso polarizatuak zeudela. *Egin* eta *Deia* sortu ere polarizazio horretan eta polarizazio horri erantzunez sortu ziren, alegia, politikaren funtzioan sortu ziren. Egunkaria ez, hor interes nagusia euskararena da, informazioa euskaratik eta euskaraz planteatzen da, eta horretarako enpresa autonomo bat sortuko da

Egunkarian, interes handiena euskararena da, informazioa euskaratik eta euskaraz planteatzen da, eta horretarako enpresa autonomo bat sortuko da, euskararen mundutik

eta hori euskararen mundutik sortuko da. Eta arrakastaren parte handi bat horri zor zaio.

### **1982an EITB sortzen denean hasten da, beraz, lehen-lehen aldarria.**

Irrati eta telebistaren alorraren ardura hartzen du Eusko Jaurlaritzak eta eremu hori egituratu eta bultzatzen du. EITB sortzen da prentsa idatzirik gabe, telebista eta irratiaren kontenplazten dituela bakarrik. Eta orduan galdera jartzen da mahai gainean: eta hizkuntzaren normalizazioarentzat hain garrantzitsu den euskarazko prentsa idatzia, zer? Jaurlaritzak euskal kulturaren eremua, bai liburugintzarena eta bai hedabide idatziena, bere kasa uzten du. Ez du egiten inongo planteamendurik. Ez da inoiz inongo planteamendu seriorik izan. Orduan, jakina, horren premia sentitzen genuenok edo aldizkarietan genbiltzanok, eta, azken batean, diru-laguntza sistemarekin limosna bidez bakarrik bizi behar genuenok hasi ginen hori salatzen, eta ikusi genuen planteamendu propio bat egin beharra zegoela, alegia, Eusko Jaurlaritzak planteamendu batera eraman behar zela. Kontua da ordu-rako [Ramon] Labaien bat, esate batera, Eusko Jaurlaritzatik joana zela, eta guri tokatu zitzaigun gogorrenarekin aritzea, Joseba Arregirekin.

## **AJURIA ENEKO ITUNAREN EZPATA. DEMOKRATAK ETA EZ-DEMOKRATAK**

**Aipatu duzun polarizazio politiko horrek azpian harra-patu zuen Egunkaria, proiektu baino ez zenetik bertatik.**

Beti ahaztu egiten zaigu Egunkaria ze kondizio zailetan sortu zen. Ez da bakarrik orain arte aipatu ditudan planteamenduengatik. Orduan ere gizartea politikoki polarizatuta zegoen, beti edo gehienetan egon den bezala. Baina ez zen hori bakarrik. 1988ko urtarrilaren 11n, Ajuria Eneko Ituna sinatu



zen, eta horrek goitik beherako ebaki bat egin zuen abertzalegoan. Abertzaleen arteko gune bateratzaileak utopiaren erresumara bidali zituen. Borroka politikoak lehenagotik zetozen, alderdien artekoak eta abar, baina hor demokratak eta ez-demokratak banaketa inposatu zen. Ordura arte banaketa abertzale, ez-abertzale, sozialista, eskuma, ezkerra eta abar ziren. Baina hor sortzen da lehenengo aldiz demokrata eta ez-demokrata zatiketa. Eta, beraz, demokratak izango dira Ajuria Eneko Ituna sinatzen dutenak eta beste guztiak, hor sartzan ez direnak, ez dira demokratak izango. Eta, noski, hori politikan aplikatzen da lehenik, baina berehala gizartera zuzen-zuzenean sarrarazi nahi da; beraz, zuk egiten duzun planteamendua parlamentutik egiten baduzu, demokraziaren gunetik egiten duzu, eta hortik kanpo egiten den planteamendu oro ez-demokraziatik egiten duzu, baldin eta itunaren espirituarekin, eta askotan letrarekin, bat ez bazatoz. Eta Egunkariari egiten zaizkion eragozpenak ere horiexek dira. Eta hemen gizarte zibila hain zen ahula, ikaragarri ahula, dena ezker abertzalearen lurralde bezala hartzen zela, eta horrenbestez ez zen demokratikoa.

### **Eta geroago etorriko den guztia, azken finean, horren segida da, ezta?**

Segida bai, ondorio ez beti. Harik eta Espainiako Audientzia Nazionalak ezker abertzaleko egiturak ETAREN menpeko deklaratzan dituen arte. Hortik aurrera, Jaurilaritzak egiten edo bedeinkatzen ez duen guztia ETA bihurtzen da erraz. Ez dago erdibiderik. Gure epaiketako akusazioetan argi geratzen da hori. Euskararen aldeko lana ETAREN barruan edo menpean egiten den borroka da, eta, gainera, ETA erabat inplikatu dago borroka horretan guztian jainko ahalguztidun gisa, zeren eta euskararen aldeko lan jatorra instituzioetan dago Konstituzioaren eta autonomia estatutuen sorreratik bertatik. Beraz, instituzioetatik kanpo euskararen alde lan egiten duena errazegi bihurtzen da susmagarri eta etiketaturik gune jakin batzuetan kokatzen bada. Aspalditik dator joera hori.

### **Zatiketa hori kultura eta euskararaino pasarazten da.**

Aitortu behar da Ajuria Eneko printzipio edo ideiariora ez zela guztiz kulturara pasa, eta ez da kasualitatea, ze pasa nahi izan zuten. Egon ziren saio batzuk hori kulturaraino eraman nahi izan zutenak, azken muturreraino. Nik dakidala, EAJren barruan hori neutralizatzeko lan eskerga egin zuten Mari Karmen Garmendia batek edo Mikel Atxaga batek. Alegia, bazegoela EAJren barruan talde bat haustura hori bururaino eramatea euskararentzat oso negatiboa zela ikusten zuena.

Horren aurretik EAJren haustura gertatu zen, 1986an. Baina haustura ez da bakarrik alderdiaren haustura. Lurralde Historikoen Legea ere tartean da, eta horrekin konpetentzien

Ajuria Eneko printzipio  
eta ideiariora ez zen  
guztiz kulturara  
pasa, eta ez da  
kasualitatea, ze egon  
ziren saio batzuk hori  
kulturaraino eraman  
nahi izan zutenak,  
azken muturreraino

birbanaketa bat egiten da Jaur-laritzaren eta aldundien artean, eta hedabideen konpetentzia aldundietatik Jaur-laritzara doa. Konpetentzia bai, baina diruak ez, eta hor euskararen munduan genbiltzanok kaltetuak atera ginen, genituen diru iturri apurrak pikutara joan zitzaizkigulako. Egunkariaren sorreraren analisi honetan oso pertinetea da bi gertaera horiek kontuan izatea, ze izugarri mugatu gintuzten eta asko zaildu ziguten gure lana.

### **Zatiketa hori kulturara eta euskarara ez iristeko lana egin zutenak aipatu dituzu, eta irits zedin tematu zirenak nortzuk ziren?**

Itunaren sinatzaileak alderdi politikoak dira: AP, CDS, sozialistak, EA, EAJ eta [Jose Antonio] Ardanza lehendakaria. Hori bloke bat zen. Eskerrak Ajuria Eneko bloke horretatik EA goiz hasi zen urrutiratzen, Egunkaria kasuan bereziki. [Ramon] Jauregi eta horiek hasierako jarrera berean zeuden, geroago, 1993 inguruan, [Mario] Onaindiaren PSE

euskaltzaleago baten saioa etorri arte. Baina, ordura arte, ez-pata hori, uretan bezain erraz, zuzenean hondoraino sartzen zen, eta hortxe harrapatu zuen Egunkaria sorrera-sorreratik.

### **Eta zatiketa horretan ezker abertzaleak ze paper jokatzen du euskararen munduan?**

Ezker abertzaleak euskararen normalizazioa betidanik izan du bere errebindikazioetako bat, eta herri ekimenean jardun izan du lanean eremu horretan. Beste edozein eragile legez, hala nahiko lukeen beste edozeinek bezala. Hori gauza bat da. Bestea da interesatuki pentsatzea edo esatea herri ekimen osoa, euskalgintza eta kulturagintza, ezker abertzalearena direla, haren menpe egon direla. Eta hari egozten zaizkion akatsak gainontzeko guztiei zabaltzen saiatzea. Ez. Euskal kulturagintza autonomia eta markatu gabea izan da bere horretan. Baina, esan bezala, ordura arteko gizartea banatzeko moduak goitik behera eta premeditatuki aldatu egin ziren. Eta gu ez geunden instituzioetan, eta, beraz, horrek automatikoki ez-demokraten taldeko izenda zaitzaten ekartzen zuen. Ez zegoen erdibiderik planteamendu ideologiko horren arabera.

## **ERAKUNDETZEAREN ALBO KALTEAK**

### **Herri ekimenak buruaskia izan behar duela eta indarrak hor jarri behar direla oso argi izan du beti Jakinek.**

Bai, horren kontzientzia beti egon da Jakinen. Eta horren albo kalteak jasan behar izan ditu. Instituzionalizazioa hasten denean, 1979tik aurrera, ni Jakinen nengoela, gure kultur ingurua asko mugitu zen, UZEIn eta beste leku batzuetan, eta instituzioek hartu zuten jarrera ez zela jarrera osatzailea ikusi genuen. Alegia, ez zen euskararen eta kulturaren eremuan lanean ari zen gizarte zibilarekin elkarlana egitekoa. Euskal kulturaren hustuketa bat gertatu zen. Horko jendea hartu eta Jaurlaritzara eramaten da hiru aldiz gehiago ordainduz.

Bestela esanda, jende batek erakundeen baitan lan egiteko bidea hartu zuen. Jende ona zen, eta, gainera, borondate onarekin joan zen funtzionariotzara; are gehiago, gero horiek izan dira instituzio publikoen barruan militantismo gehiena izan dutenak, hori ere egia da. Baina ahula zen euskararen eta kulturaren gizarte zibila are ahulduago geratu zen.

### **Jaurlaritzaren helburua zein zen?**

Erakundeak prestaturiko jendez hornitzea, noski. Bidezkoa da. Eta agian ezin zitekeen besterik egin. Baina moduak ez ziren jatorrak izan. Are gehiago: batzuetan jada euskararen aldeko gizarte zibil antolatuan zegoenaren parekoa sortu da instituzioetatik, elkarlanerako aukerarik eman gabe. AEK eta HABEren kasua klasiko bat da, eta horrela hamaika gehiago. Momentu batez bi mundu paralelo suertatzen dira, erakundeetako eta lehendik datorren euskalgintzako. Nire ustez, prozesu hori ez da egoki gauzatu, frankismotik zetorren euskalgintzari ez zaio aitortzarik egin, eta gainera hustu egiten dira ekipoak. Geuk geure esfortzuz sortuta genituen egitura gutxi horiek ahulago bihurtu ziren, eta hor minberatasun bat sortzen da. Ez gintuzten errespetatu. Nik neuk gogoan dut hori diskutitu izan genuela [Pedro Miguel] Etxenikerekin, esate baterako. Gure salakuntzei berak «gu gobernua gara» kontrajartzen zien. Ados, baina euskal kulturaren aldeko lana ordura arte beste nonbaiten egin da, beste batzuek egin dute edo egin dugu, eta, hori aintzat hartu gabe, ezin da planteamendu instituzional bat egin, ezta kultur eta hizkuntza politika abian jarri ere. Hala gertatu zen, ordea, eta min hori gure artean bazegoen. Horrek ez du zerikusirik ezker abertzalekoa izan edo ez izatearekin, gure lan propioarekin eta gure kultur lanarekiko planteamenduarekin zeukan zerikusia.

### **Politika horrek urtetan segitu du.**

Segitu eta indartu. Hortik esplikatutako behar da Guggenheimen sorreran eta Ameriketako kolonizazioaren urteurreneko ekitaldien kariatzat gastatu ziren dirutzak salatzea, besteoi kenduz



hor eman ziren dirutzak. Lehendik zetorren konfrontaketa hori dena hor lehertu egiten da eta Kultur Kezkaren forma hartzen du. Antolatu eta bildu egiten da jendea politika modu horri eta diru publikoaren erabilera horri aurre egiteko, baina erantzun hori oso ahulduta dagoen gune batetik dator, euskal kulturatik eta artearen mundutik.

Instituzionalizatze hori ondo egin ez zenez, beste haustura bat ere sortzen da: alde batean profesionalak daude, eta besteok militanteak gara. Diskurtso berri bat sortzen da euskal kulturaren kontra egiteko. Eta, gero, jakina, Guardia Zibilak erabiliko du militantearen figura dena auzipetzeko. Baina militantismoa beti izan da euskararen aldeko lanean. Gure planteamendua militantismo profesional bat sortzea izan zen, bien arteko sintesi bat egitea. Baina dikotomia horrek, profesionala eta militantea, funtzionarioa eta militantea, min handia eragin zuen.

### **Horren guztiaren ondorioz ulertzen da Egunkaria eta Eusko Jaurlaritzaren arteko talka?**

Gu desanparo batean bizi izan gara beti. Instituzioak aurrean izan ditugunean mesfidantzaz ikusi izan gaituzte beti, gu ez ginen haiekiko kolaboratzaileak. Eta Egunkariako esperientzian ere berdin. Ez zoaz etxekeekin hitz egitera, baizik eta aurrez aurreko mesfidantza batekin egiten duzu topo: «Badatoz hauek, eta kontuz zerekin datozen...». Denbora osoan horrekin bizitzea oso gogorra da. Eta hori izan da euskal kulturgintzaren patua: ez bazinen zu euren bandora pasatzen, alegia, ez bazinen politikoki erabat markatzen, alegia, indefinizio politikoan geratzen bazinen, haientzat

1994ko Jaurlaritzarekiko akordiora iritsi aurretik, Garmendiari idazten diot 1993ko ekainean, «ba omen dugun jatorrizko bekatu hori nola kendu behar dugu? Non bataiatu behar gara?» galdetuz

ezker abertzalekoa zinen, eta, beraz, parametro politiko horietan gu 'etsai' edo pertsona *non grata* ginen. Horregatik, momentu batean, Egunkaria sortu eta lehen urteetan, hau da, 1994ko Jaurlaritzarekiko akordiora iritsi aurretik, Mari Karmen Garmendiari idazten diot 1993ko ekainean, «ba omen dugun jatorrizko bekatu hori nola kendu behar dugu? Non bataiatu behar gara?» galdetuz. Ze alternatiba zentzuzkorik inork ez zigun ematen. Batzuen ustez alternatiba bakarra EAJra pasatzea izan da, instituzioetara pasatzea, baina ez gizarte zibiletik eta gure autonomiatik jokatzea. Bazirudien hori ezinezkoa zela. Zu hor jada kondenatua zeunden, eta, gehienez ere, esango zuten «halakoa pertsona ona da eta ez dabil horretan, baina *tonto útil* horietakoa da, erabili egiten dute eta ez daki atzetik ze joko dagoen». Bada horrela bizi izan dugu errealitate hori urtetan.

## IRAKURLE EUSKALTZALEAREN UNIBERTSOA

**Eusko Jaurlaritzak 1988an CIES ikerketa etxeari eskatu eta Argia astekariak 1989an filtratu zuen azterketak euskarazko egunkari bat posible zela ondorioztatu zuen lehen aldiz.**

Bai, baina ikerketa hori egitea ez da Eusko Jaurlaritzatik sortzen den ekimena, Euskadiko Ezkerrak eskatzen du Eusko Legebiltzarrean. Ikerketa horrek jada jartzen gaitu egunkariaren bidean. Ordurako jada nahikoa helduta dago egunkari baten beharra eta posibilitatea.

**Eusko Jaurlaritzak presioa sentitzen du horretarako, beraz...**

Bai, garai horretan artikulu, mahai-inguru eta hitzaldi pila bat dago, eta Euskadiko Ezkerrak hartzen du gizartean zegoen kezka hori eta ikerketa bat egiteko eskaria luzatzen du Legebiltzarrean. Egiten da, eta, antza, Eusko Jaurlaritzak ezkutatu egiten du. Beno, egia da *tempus*-ak nolakoak ziren ez dakigula, baina hala dirudi, ez duela ezagutzera eman nahi. Azkenean,

*Argia* astekariak argitaratzen du, Iñaki Uriaren eskutik. Eta horrek indartu egiten du egunkariaren aldarria, ze konkretatu egiten da ze irakurlego dagoen eta nolakoa den. Eta, beraz, jakiten dugu badagoela irakurle unibertso bat. Eta non dago irakurle hori? Ikerketak dio erdi aldetik ezkerrera dagoela.

**Ikerketak dio erakunde publikoek lagundutako proiektua behar duela izan, baina badagoela irakurle kopuru bat, eta irakurle horien gehiengoa politikoki zentro ezkerrean kokatzen dela, egunkari estandarra nahi duela eta informazio nazionala hobesten duela, alegia, Euskal Herrikoa. Horrek zer dakar?**

Irakurlearen gaiak arazo handi bat azaleratu zuen berriro ere, ez esplizituki baina latente beti egon dena, eta hauxe da: planteatzen denean egunkariaren titularitateak publikoa izan behar duela, Eusko Legebiltzarraren kontrolpekoa, irakurlego unibertso hori nola interpretatu behar dugu? Unibertso politiko bezala? Alegia, egunkariak botoek ematen duten unibertso horren arabera izan behar du? Ala euskarazko irakurleen unibertsoaren arabera? Edo berez badagoen irakurle potentzialaren ezaugarrien arabera? Bi unibertsoak diferentek dira, ez datoz parean. Ze ea PPko zenbat zen euskal irakurlea, edo PSEkoak... Alegia, ez dira berdin Legebiltzarreko alderdien boto kopuruaren arabera mapa eta euskal irakurle potentzialarena. Ez da berdin batetik abiatu edo bestetik abiatu. Hori hor egon da beti. Bistan da, diru publikoa tartean denean soluzionatzen oso zaila den afera da, baina oso kontuan hartu beharrekoa da bi irakurle unibertsoen arteko asimetria hori. Hori planteatu esplizituki uste dut inoiz egin ere egin zela, Amatiñok berak, baina ez zen asko landu. Dena den, CIESek hori dena planteatzeko bide ematen du; baina, batez ere, une hartan, interesatzen zaiguna da CIESek esaten duela euskarazko egunkari bat posible dela borondate politikoa baldin badago eta diru-laguntzak baldin badaude. Gainontzeko guztia badago, irakurlea badago eta salmenta aldetik posible da. Hor ja inkognita handi

bat argitua geratzen da, eta konkretuago hitz egiten hasteko baldintzak agertzen dira.

**Horraino iristeko, proaktibitate handia dago gizartean, hitzaldi, artikulua, eztabaida... Hori antolatua da? Nola elikatzen da eztabaida hori? Esate batera, *Egin*-ek eta *Deia*-k hartzen dute parte eztabaida horretan?**

Ez, *Argia* astekariak elikatzen du batez ere, baina ez da *Argia* bakarrik. Hitzaldi asko ematen zen garai hartan, asko, bat eman eta atzetik beste hainbat zetozen errenkadan. Bada-go osmosi moduko bat, eta zabalduz doa. Baina espresuki proaktibo izan dena urte horietan, 1985etik aurrera bereziki, *Argia*-ko ekipoa izan da. Joxemi [Zumalabe] buru agertu da beti, baina ez zen bera bakarrik, orduko gainontzeko *Argia*-koak ere bai. Ez dut gogoratzen beste medio horietan, *Egin*-en eta *Deia*-n, eztabaida egon zenik.

Hor interesgarria da azpimarratzea eztabaida kulturako jendeak egiten duela, ez politikako jendeak, eta ezaugarri hori funtsezkoa da oso: Egunkaria kulturako afera bat da, debatea politizatu geroago politizatzen da. Kulturgintzaren baitan planteatzen den debate bat da, eta gero beste hedadura bat hartzen duenean, orduan, ja politikariak-eta sartzen dira, eta beste joko bat hasten da. Baina ez da artifizialki sortua izan egunkariaren premia hori, kultur munduaren premia bat da. Eta hasiera horretan bat aipatzekotan, aipatu beharrekoa *Argia* da. Ez da *Argia*-k asmatutako kontu bat, baina bai asko lagundutakoa.

## EGUNKARIA SORTZENETIK EGUNKARIARA

**CIESen ikerketa ezagutu eta Jaurlaritzak pausorik emateko asmorik ez duela ikusita, Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) batzar ireki bat deitzen du 1989ko azaroan Donostian. Jakin noiz lotzen da proiektura?**

EKBn buru Paulo [Agirrebaltzategi] dago, Jakineko kidea, eta, beraz, Jakin hasieratik egon da presente. Jakinen beti sinetsi izan dugu egunkariaren bidean eta beharrean. EKBn bigarren Joxemi zegoen, *Argia*-ko kidea. EKB zer zen eta *Jakin* zer zen ere ikusi egin behar da. *Argia*-koak oso gazteak ziren eta borrokalari fama zuten, eta enfrentamendu zuzena zuten sarri Eusko Jaur-laritzarekin. Eta gu, bai gure lanagatik, bai gure adinagatik, eta, baita gure estiloagatik ere, askoz lasaiagoak ginen, eta, komatxo artean esanda, onarpen sozial gehiagokoak ere bai. Orduan, egunkariaren proiektura bil gaitezen *Argia* gugana dator, Jakinen izana eta izena, «gauzak egiteko eredia», Joseba Jakak esan ohi zuen bezala, hobe zelako borroka edo enfrentamendu hori baino.

Egunkaria kulturako afera bat da, kulturgintzaren baitan planteatzen den debate bat. Debatea politizatu geroago politizatzen da

### **Eta zu noiz sartzen zara?**

Nire kasua, urte horietan, berezia da: Jakin Arantzazuko lege babesa utzi eta kasik hutsetik birsortzen nabil, tesiarekin nago eta Euskal Herritik kanpo ari naiz ikertzen. Alegia, fisikoki ere ez nago hemen. *Argia*-ko jendeak eskatu egin zidan sartzeko. 1989 urtearen bukaeran zen, oker ez banago. Euskal Txokon egin zen bileran agertu nintzen ni lehen aldiz. Dagoeneko, Egunkariaren egitasmoaren inguruko bilera da, ez euskarazko egunkari baten ingurukoa, eztabaida guztiak gaindituta. Dagoeneko zehazten ari zen proiektu jakin baten baitan agertzen naiz ni. Eta hortxe sartzen naiz, baina nik ez dut sekula egunkaria lideratzeko asmorik ez gogorik izan. Laguntzeko prest agertu nintzen, baina gero bideak harrapatu nau, eta bideak eraman nau eraman nauen lekura. Baina nik ez dut Jakin sekula utzi. Joxek [Azurmendi] epaiketan garbi esan zuen Jakin Taldean hitzartua zegoela nire lanpostua Jakineko zuzendari zela, eta Jakinetik Egunkariaren proiektua

lagundu eta bultzatuko nuela baina ez barnean sartu Jakin utzita. Lehen orduko erabaki horrek garrantzi handia du Egunkariako zuzendari izateko eta kontseilari delegatua izateko egin zitzaizkidan eskaintzak direla-eta. Argi izan dut beti horrelakorik ez nuela onartuko. Jakinen erabakia, eta baita nirea konkretuki ere, beti izan da esku bat bota bai baina proiektuko langile edo kide izan gabe. Jakinetik bizi izan naiz, eta bestetik txakur txikirik ere ez dut jaso, egurra besterik ez. Beno, hori ere ez da egia osoa. Dirutan ezer ez, egurrean asko, baina pozean ere asko.

### **Martin Ugalde noiz bildu zen proiektura?**

Nire aurretik. *Argia*-ko 1989ko urtekarian Joxemi eta Martinen arteko solasaldia argitaratzen da. Eta hor hasten da bidea egiten. Martinekin hasieratik kontatu da. Euskal Txokoko bilera Martin ere bazegoen.

### **Aipatu duzun Euskal Txokoko bilera, Donostiako Udaleko euskararen bulegoan 1990eko urtarrilaren 21ean egin zena, erabakigarria izan zen. Zergatik?**

Niretzako, fase erabakigarria Euskal Txokoko batzarrarekin hasten da. Azken batean, bi bilera daude mugarri: Euskal Txokokoa eta Londres Hotelekkoa. Euskal Txokon, Joxemik-eta aurrez landua zekarten proposamena. Talde Bateragilea eratzen da zortzi kideekin, eta bi azpibatzerde: ekonomikoa eta periodistikoa. Lehenengo estruktura funtzionala hor sortzen da, eta gero ere halaxe mantenduko da. Lan talde horiek lan eskergea egin zuten, ez pertsona guztiek baina bai talde guztiek. Egunkaria Sortzeneko kideak 75 ginen, batzuk ez ziren sekula agertu ere egin, baina bere izena ez zuten hortik kendu, alegia, euren izena emateko prest zeuden, eta eskatzen zitzaientean zerbait egiteko ere bai. Egoteko modu asko daude, batzuk aktiboago eta beste batzuk ez hainbeste, baina denenak balio du. Bada, batzorde horietan ere gauza bera, eta inportanteak dira lan ildoak hor markatzen direlako. Hurrengo bilera Londres Hotelean egin zen, apirilaren 7an, eta

hor aurreproiektua onartzen da eta Egunkaria Sortzen kultur elkarte eta Egunkaria S.M.-ren sorrera bideratzen dira.

### **Eta administrazio kontseilu probisionalaren ere hortxe sortzen da.**

Hortxe ez, baina bilera horretan bideratutako prozesuak ekarriko du zortzi kidez osatutako behin-behineko administrazio kontseilua: Martin Ugalde, Joseba Jaka, Joxemi Zumalabe, Nerea Azurmendi, Josu Landa, Luis Goia, Txema Auzmendi eta ni. Gero, epaiketean, poliziari arazoa sortzen dio taldea probisional izateak, ze S.A. sortzeke zegoen, eta, beraz, ezin genuen administrazio kontseilu finko bat izan. Poliziak *tempus*-arekin jokatu nahi zuen gauza asko ustez demostratzeko, eta horietako bat zen gurea fikzio hutsa zela, ETaren pantaila zela frogatzea, baina ez dauka errealitatearekin zerikusirik batere.

### **Egunkaria Sortzen kultur taldea, Egunkaria S.M. eta Egunkaria S.A. egiturak zertarako sortzen dira? Zer erantzuten diote?**

Egunkaria Sortzen taldea altxor handi bat zen, hor zegoen sinesgarritasunaren parte handi bat. Oso ondo zaindu behar zen, eta horretarako forma juridiko bat eman behar zitzaion: Egunkaria Sortzen Kultur Elkarte eratu zen. 75 norbanako ziren sortzaileak. Baina kultur elkarte bat bankuko operazioetarako eta ez da egokia. Orduan, horri lotuta, Egunkaria S.M. sortzen da, eta horren funtzioa herrietako ekintzetatik eta partizipazio eta akzio salmentatik zetorren dirua jasotzea zen. Hori zergatik? Horren filosofia zein da? Egunkaria plurala da, Egunkaria kultur gintzako produktu bat da, denon artean sortu duguna, eta pluraltasun hori eraginkor egiteko eta Egunkaria beti zabala eta baterakoa izango dela bermatzeko dago Egunkaria Sortzen. Askotariko talde eta jendea zegoen. Beraz, hori zen Egunkariak produktu bezala eduki behar zuen zabaltasunaren bermea eta ispilua. Baina, bestalde, kide horiek ez ziren akzionista nagusiak, beraz, ze direkin egiten zen? Kanpainan zehar, akzio eta partizipazio

salmentan eta herrietako ekitaldietan bildutako diruari ze berme eskaini behar genion? Diru hori non geratuko zen? Zertarako erabiliko zen? Horregatik, S.M.-n biltzen da diru hori eta hortik kudeatuko da. Egunkaria S.A., aldiz, Egunkariaren beraren enpresa da. Egunkaria S.A. eta Egunkaria periodikoa bera sekula sozio kapitalista bakar baten jabego izan ez zedin –demagun Eusko Jaurlaritza edo beste erakunde edo enpresa bat etorri eta erosi nahi duela eta nagusi egin–, bada hori ez gertatzeko Egunkaria S.M.-k beti edukiko zuen S.A.-n akzioen hirutik bat, Egunkaria Sortzenena izango zena. Egunkariaren askatasunaren bermea zen hori.

### **Herrietan ikaragarria mugimendua sortu zen.**

Bai, izugarria. 1990. urtea oso bizia izan zen. Apiril eta maiatzean aurkezpenak egin ziren herrietan eta harrera ikaragarria izan zen, masiboa, 1.200 festa egin ziren, sekulako mugimendua izan zen, eta hori antolatu zen herrietan zeuden taldeen laguntza erabatekoarekin. Bestela ezinezko izango zen. Egunkari handi bat eramaten zen herrietara eta he-

rri bakoitzak mezuz, albistez eta publizitatez osatzen zuen. Hor herritarrek lan handia egin zuten. Oker ez banago, 50 milioi pezeta lortu zen hortik, pentsa! Dirua lortzea helburuetako bat zen, jakina, baina baita jendea inplikatzeko ere, eta hor ikaragarria izan zen lortu zena. Eta hori argi ikusi zen uztailaren 15ean, Donostiako Belodromoan egin zen jaietan eta bertara bildu zen jendetzan. Herrietan aurkezten zen aldi berean, kultur talde, sin-

1990. urtea oso  
bizia izan zen.  
Apiril eta maiatzean  
aurkezpenak egin ziren  
herrietan eta harrera  
ikaragarria izan zen,  
masiboa, 1.200 festa  
egin ziren, sekulako  
mugimendua izan zen

dikatu, eragile sozial, enpresari eta alderdi guztiei ere aurkeztu zitzairen. Ni horretan ibili nintzen. Hilabeteetako lan trinkoa izan zen.



### **Nola joan zen? Ze harrera izan zuen proiektuak?**

Euskal kulturako eragileekin erronda ondo joan zen. Beno, batzuk epel ere agertu ziren, bai, ze ez zen bakarrik aurkeztea, parte hartzea ere eskatzen zen, diruz laguntzea akzioak erosiz eta beste. Gehien-gehienak sartu ziren. Epelenetakoa Ikastolen Elkarteak izan zen, ikastolen buruzagitza. Ikastolaz ikastola, aldiz, sekulako arrakasta izan genuen.

### **Alderdi politikoek ze harrera egin zioten?**

Alderdi politikoekin, berriz, bada, badakizu, mesfidantza puntu horrekin egiten genuen topo beti. Hor beti egon den susmoa badakizu zein den, lastozkoak ginela, pantaila hutsa ginela... Ze erakundeekin egiten genituen bilera horietara *gizon zintzoak* joaten ginen. Joxemi, Martin, ni neu eta gero Joxemiren lekuan Iñaki. Eta jende gehiago ere bai, ze hasieran Egunkaria Sortzeneko kideen artean banatu zen diplomazia lan hori, baina potoloenetara esandakoak joaten ginen. Aurregia eman Martin, Joxemi eta hirurok ematen genuen nagusiki, eta itzalagoan Josebak eta Txemak. Erakunde, politika eta kulturatik aparte, banku eta kutxa edo enpresariengana joatea tokatu zitzaigun... Bisita asko, eta diru aldetik arrakastak gutxi. Momentu ekonomiko txarra zen hura ere... Horrela egin zen aurkezpen fase hori.

## **JAURLARITZAREN BOIKOTA**

### **Jaurlaritzarekin lehen harremana erronda diplomatiko horren baitan hasiko zen, ezta?**

Eusko Jaurlaritzara egin genuen lehen bisita 1990eko maiatzaren 11n izan zen, eta Joseba Arregirekin bildu ginen Donostiako delegazioan. Karlos Santamaria, Joxemi eta hirurok joan ginen. Bilera horren ondoren, Santamariak, *El Diario Vasco* egunkarian, maiatzaren 30ean hain zuzen, 'Un paso adelante para el euskera' artikulua argitaratu zuen. Eta

bertan zera zioen: «la idea recientemente anunciada de la publicación de un gran diario en euskara va tomando cuerpo y pronto puede convertirse, relativamente pronto, en una realidad [...] el proyecto en cuestión que es visto por buenos ojos por la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco...».

### **Hori zer zen, Santamariaren desioa, edo presioa egiteko modua, edo, benetan, lehen bileratik inpresio horrekin atera zineten?**

Arregik ezezkorik ez zuen esan, lehen bilera hartan. Hori egia da. Geroago esan zuen hori. Entzun zuen, eta, hortxe, poker aurpegiarekin egon zen. Karlos Santamariaren hori irakurri nuenean harritu egin nintzen pixka bat, baina tira. Bilera hartan ez dut uste ezer aurreratu zigunik, beti esaten dena esango zuen, «ikusiko dugu» eta horrelakoak. Jaur-larritza dagoeneko euren egunkari proiektuarekin zebilen. Eta, justu, hortxe, apiril bukaeran, sortzen da [Jose Ramon] Belokiren taldea euskarazko egunkari publiko instituzional baten aukera aztertzeko.

Arregirekin egon aurretik, apirilaren 25ean, Txemak, Jo-xemik eta hirurok Mari Karmen Garmendia Eusko Jaur-larritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiari aurkeztu genion. Ez zuen Joseba Arregiren aginte mailarik, eta ez zegoen gure egitasmoaren alde, ezta gutxiago ere, baina esan behar da Garmendiak aldeko jokia egin zuela lau urte geroago Egunkaria eta Eusko Jaur-larritza akordiora iristeko.

### **Garmendia Belokiren proiektuaren aldekoa ez al zen?**

Nik ez dut uste aldekoa zenik, baina kontrakoa ere ez zen izango. Atxaga Belokiren laguna zen, Garmendiarena ere bai... Ez dakit. Nik dakidala, ez zuen proiektu horren alde sekula berotasunik erakutsi. Garmendia, nik uste, beste tesi batean zegoen: egunkariarena goizegi zela, ez zegoela baldintzarik, eta horrelakoak ziren haren kezkek. Eta, horregatik, 1990eko maiatzean, Igeldon antolatu zituen 'Euskal Kazetarien Jardunaldiak'. Gu ere egon ginen. Gu ordurako

hilabeteen lanean geunden Egunkariaren proiektuarekin, eta harritzekoa bada ere Egunkaria ez zen aipatu ere egin han. Esan bezala, Mari Karmen Garmendiaren kezka beste batzuk ziren: goizegi zela, kazetaririk ez zegoela, hizkuntza ez zegoela prestatua, egunkariak irtetekotan berme guztiakin irten behar zuela, bestela hobe zela ezer ez egitea, porrot bat hilkorra litzatekeela euskararentzat eta beste. Tesi horretan zegoen. Baina ez dut uste Belokirenari ere bermerik ikusten zionik. Gureari ere ez, jakina.

### **Ze eztabaida gehiago zegoen?**

Titularitateak publikoa edo pribatua behar zuen, egunkariak estandarra edo berezia izan behar zuen... Euskara prest ote zegoen esaten zenean, egia da euskara ez zegoela kazetari-tzarako oraindik erabat egina. Kazetaririk ez dago, zenbat kazetari daude esaten zen, eta lau ateratzen ziren. Unibertsi-tatea ez zen hain hasi zaharra euskarazko kazetariak sortzen, baina gazte jendea bazetorren... Zaila zen jendea konben-tzitzen. Irakurlegoa ez dago prest, eta ez zen gezurra. Bai-na eginez egiten da. Bazegoen beste arrazoi bat ere: atentatu bat nola titulatu behar da? Itunaren arabera titulatu behar da edo nola? Horri guztiari soluzio bat topatu zitzaion, eta hori *Estilo liburua* izan zen. Aurrerapen ikaragarria izan zen. Egunkariak lerro edito-rial bat ez zuen, baina estilo liburu bat bai, eta horrek ahalbidetzen dizu zelai horretan duin jokatzeari. Beste aurrerapen handi bat izan zen publizitatea lortzea. Ordura arte euska-razko publizitatea kasik euskaltzaleen mesedeko tratua zen, baina Egunkariarekin interes publizitarioa sortzen da eta horrekin batera euskarazko hizkuntza publizitarioaren lan-keta. Eta aurrealdiko eztabaida horietatik guztietatik datoz

*Estilo liburua* aurrerapen ikaragarria izan zen. Egunkariak lerro editorial bat ez zuen, baina estilo liburu bat bai, eta horrek ahalbidetzen dizu zelai horretan duin jokatzeari

Egunkariaren 11 oinarriak. Lauk orduko problematikari zuzenean erantzuten diote: 1. Gure markoa nazionala da. 2. Jarrerari dagokionez, zabala eta baterakoia. 3. Independentea alderdi politikoekiko, erakunde publikoekiko eta beste informazio enpresekiko. Eta 4. Titularitate pribatukoa izatea. Horiek dira erabakigarriak. Zutabeak dira.

### **Belodromoko festaz zer gogoratzen du?**

Gauza handia izan zen, beroa, publiko aldetik ere bai. Herrietako jendearentzat arrakasta handia izan zen, eta euren lan boluntarioaren aitortza eta eskertza ere bai. Oso ondo atera zen. Guretzako estreinaldia izan zen. Eta han argi ikusi zen ez zegoela atzerabueltarik... Ez, jendetza hura guztia bilduta.

### **Zenbat dirurekin abiatu zen Egunkaria?**

Egunkaria abiatzen da 160 milioi pezetarekin. Hortik 50 herri ekintzetatik sortuak, eta akzio salmentatik gainontzekoak.

### **Diru asko al zen?**

Oso gutxi! Pentsa ezazu, Jaurlaritzaren proiektuak 900 milioiko aurrekontua zuen!

### **Egunkaria Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzarik gabe abiatu zen. Ze perspektiba zegoen 160 milioi pezeta horiekin? Noiz arte iraungo zuen? Nola edo nondik lortu diru gehiago? Ze perspektiba zenuten?**

Ez bat edo bi, asko ziren gure egunkariari bizialdi laburra ematen ziotenak. Eta gutxi iraungo zuenez, bilduma egiteko asmoz erosten zuten. Hau da, kolekzionistaren perspektibarekin. Denok genuen bizitza motza izango zuenaren beldurra. Geuk ere bai noizbehinka. Gogoan dut behin Martinek Joxemiri nola galdetu zion, zerbait gertatuko balitz bere familia kaltetuko ote zuen, etxebizitza aipatzen zion, eta Joxemik ezezko borobila eman zion, eta lasai egoteko. Eta Martinek, berriz ere, sinistu egin zion. Beldurra zen zorrak uztearena eta ea nork erantzun behar ote zuen. Gurea izan zen abiatu,

eta gero bidea lantzen segitu. Ezina ekinez egina, horixe izan zen. Eta benetan ekin eta ekin, eta lortuz joan zen pixkanaka. Guk, azkenean, iraun genuelako irabazi genuen.

### **Nola gainditu zen kolekzionistaren perspektiba hori?**

Esan dizut, 900 milioi pezetako aurrekontuarekin abiatzekoa zen Eusko Jaurlaritzaren proiektua, eta gu 160 milioirekin. Panorama horrek diru-laguntzarik ez eta publizitate instituzionalik ere ez suposatzen zuen, eta, horrenbestez, proiektu mugatu bat baino ez zen posible: langile kopuru oso minimoa, soldata txikiak, orrialdeak ere bai, kolorerik ez, astelehenetan egunkaririk ez, banaketa justua... Horrekin abiatzen gara. Gerrako produktua zen. Gure apustua irautea zen, eta iraun bitartean jendea irabaztea, erakundeak irabaztea. Irautea zen gurea, bai, iraunez irabaziko dugu, esaten genion geure buruari, ez irauteagatik bakarrik, baizik eta iraun bitartean lan egingo dugulako, eta hori izan zen arrakasta. Azkenean boikota hiru urte luzatu zen, eta hiru urte iraun egin behar da baldintza horietan e! Bitartean, salbazioa –eta hau ere landutako salbazio bat izan zen– Gipuzkoako Aldunditik etorri zen: 50 milioi pezetako diru-laguntza eman zuen 1992an, Biltzar Nagusietatik lortuta, eta orduko gobernuaren kontra. Kopuru hori hiru urtez jaso zen. Nafarroako Gobernutik ere, Estebe Petrizan Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren bitartez, urteko zazpi milioi pezeta lortu ziren. Bederatzi urtetan jaso genuen Nafarroako Gobernuaren laguntza. Hori salbazioa izan zen iraun ahal izateko.

### **Diru-laguntza bezain garrantzitsua zen publizitate instituzionala.**

Kanpaina bikoitza egiten genuen maila politiko eta instituzionalean: diru-laguntza eskatzen genuen, batetik, eta, bestetik, publizitate instituzionala. Orduan publizitate instituzional handia zegoen, egunkarien diru iturri nagusia horixe zen garai hartan. Guk planteamendu berritzaile bat egin genuen publizitate instituzionalari dagokionez: lurralde buruaren

planteamendua. Alegia, jendearengana iristeko araubideari jarraituz, erakundeek lurraldean gehien saltzen zen egunkarietan publizitate guztia sartzeko obligazioa zuten. Eta guk

Planteamendu  
berritzaile bat egin  
genuen publizitate  
instituzionalari  
dagokionez:  
gaztelerazko  
egunkari salduenaren  
tratamendu bera  
ematea Egunkariari

zera eskatzen genuen, gaztelerazko egunkari salduenaren tratamendu bera ematea Egunkariari, bera zelako euskarazko egunkari salduena, eta kontuan izan behar zela bi hizkuntza ofizial daudela, eta, beraz, jendearengana iristeko araubidea bi hizkuntzen planoan aplikatu behar zela. Ez zen sekula exekutatu baina, Gipuzkoan, Biltzar Nagusietan, erdi onartu zen gure tesia.

Planteamendu bera egin genion Jaurlaritzari, eta, azkenean, akordioa erdietsi zenean, 1994an, akordio horren *B aldean* jasoa geratu zen tesi hori. *B alde* hori, ordea, bigarren orrialde hori, 'Akordioaren argibideak' izenburua zuena, ez zuten sinatu nahi izan. Eta airean bezala geratu zen, jasoa baina sinatu gabe. Diru-laguntza baino gehiago, kasik hori behar genuen, publizitate instituzionala.

## HIRU URTE BIZIRAUN ETA GERO AKORDIOA

### **1994ko akordiora iristeko bidea nolakoa izan zen? Ze estrategia erabili zen?**

Negoiazioak hainbat bide paralelotan joan ziren: Joseba Arregiren lerroa zen bat. Arregik lehen bileretan ez digu aurrebiderik batere ematen. Egunkari publikoaren proiektua lantzeko Jose Ramon Belokiren taldea osatzen du, eta talde horrek hartzen dituen erabaki guztiak Legebiltzarraren oniritziarekin eta Ajuria Eneko Itunaren espiritutik hartuko

dituela erabakitzen da. Horrela esaten du Arregik berak Eusko Jaurlaritzaren egunkariaren proiektuaren aurkezpenean. EITB barruan kokatuko litzatekeen egunkari publiko bat da. Eta hortik ez da mugitzen. Hori egiten duenean, gu Egunkaria sortzen gabilta, eta guri izugarritzko kaltea egiten digu onak eta gaiztoak non dauden markatzen duelako. Horrekin, Arregik, Ajuria Eneko Ituna zuzen-zuzenean aplikatzen digu guri ere. Gaiztoen aldean jartzen gaitu, Jaurlaritzaren proiektua ez izate hutsagatik, eta horrek hala segituko du Egunkaria sortu eta gerora ere. *Egin* egunkariari guri baino ere bortitzago egin zioten boikota, [Juan Mari] Atutxarena omen zen txosten bat zela medio. Gure kontra ez dut uste txostenik egon zenik, baina guri ere ez zetorkigun ezer.

### **Eta bigarren bidea Mari Karmen Garmendiarena zen, ezta?**

Bai, Garmendiaren lerroa zen bigarrena. Garmendia laguna nuen garai hartan. Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia zen. Eta oso ezaguna zen bi ekipoen arteko desberdintasuna. Garmendia, bere tradizioa ere halakoa zelako, gehiago egoten zen gizarte taldeekin, eta beste sentsibilitate bat zuen herrigintzako proiektuekiko. Garmendiarekin sei aldiz egon nintzen Egunkaria zela-eta. Denbora pasa ahala, Garmendia eta bere ekipoa konturatu ziren guk irauan egiten genuela eta ezin zela erakundeen eskutik beste egunkari bat kaleratu. Ez dakit, baina esango nuke beste proiektuan ere ez zutela sinismen handirik, eta, gainera, Jaurlaritzaren egunkaria oso goiz geratu zen bertan behera: prentsurreko batean egin zuten publiko, eta eman behar zitzaion dirua ere desagertu egin zen aurrekontuetatik. Eta, orduan, proiektu bakarra geratu zen. Garmendia eta Ardanza oso ondo konpontzen ziren, eta, aldiz, Arregik eta Ardanzak enfrentamendu batzuk izanak zituzten, eta horietako bat Egunkariaren kontura, gainera. Hor txosten famatu bat egon zen Arregik idatzi zuena, eta han Ardanzari harekiko zituen desadostasun guztiak botatzen zizkion nonbait, eta tartean Egunkariarena ere agertzen omen zen. Guk ez dugu inoiz txosten hori lortu. Orduan,

komatxo artean esan dezagun, Garmendia bere aldetik maniobratzen hasi zen. Ardanaz gain, aliatua zuen Luis Mari Bandres, Euzkadi Buru Batzarreko (EBB) kidea. Arregik ez zuen EBBraiko biderik, eta nolabait esan, Arregiri atzetik egiten diote jokaldia. Halako batean, Hizkuntza Politikarako Idazkaritzatik pasa zidaten EBBra bidali zuten idatzi bat, eta han esaten zen Egunkariarekin akordio batera iritsi beharra zegoela. Nire apuntetan idatzia dut: «Arregik EBBren agindua du Egunkariarekin akordio batera iristekoa». Egunkariaren hirugarren belodromoko festan, 1993an, Garmendia bertan izan zen. Hurbiltze bat egin zuen eta aldi berean distantzia bat markatu zuen Arregirekiko, eta adierazi zigun bazegoela bide bat akordioa lantzeko. Baina Arregik ez zuen amore ematen. Handik hilabete gutxira, EBBk bilera batera konbokatu gintuen Egunkarikook eta Arregi bera. Hori izan zen jokaldia. EBBtik Luis Mari Bandres eta Gorka Agirre zeuden. Martin, Iñaki eta hirurok ordurako egonak ginen [Luis Maria] Retolazarekin bake eske. Joxemi ez, ordurako hila zen. Bilera horiek Bilbon egin ziren Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzan, baina EBBren ekimenez. Guk laster sumatu genuen EBBkoak gurekin gehiago zeudela Arregirekin baino.

Sinatu zen akordioaren testua kasik erabat gurea zen, gure idatzia zegoen oinarrian. Eta horrela lortu zen akordioa.

### **Hor bada Arregirekin bilera sonatu bat, Martin Ugalde bera haserrearazi zuena, eta zutitu eta hanka egin zueneko...**

Arregirekin izan genuen aurreko bileretako bat izan zen, 1992ko abuztukoa. Isilaldi handi bat sortu zen Martinek bilerratik alde egin zuenean. Martin, Joxemi eta hirurok ginen Arregirekin, eta horrek ez zuen amore ematen: ez publizitaterik, ez diru-laguntzarik. Eta Martinek «zergatik?» galdetzen zion. Eta, halako batean, Martinek honelatsu esan zion: «Nire barruan ez da mamu gehiago kabitzen. Gerra garaian komunista eta marxista ginen, eta, orain, terroristak gara. Ni banoa». Eta hanka egin zuen eta sekulako egoera xelebrea gelditu ginen. Arregirekin aurrez aurre Joxemi eta



biok, sekulako tentsioan. Gogoan dut nola Arregiren lehenengo hitzak izan ziren «badakizue Martin nolakoa den». Martinek pisu espezifikoa handia zuen. Horren adierazgarri da honako anekdota hau: negoziatioetan hasteko puntuan geundela, EBBrekin eta Josebarekin, Luis Mari Bandresek pertsonalki eskatu zidan Martin ez eramatea bilera horietara, ja adinekoa zela eta beste esanez. Eta guk pentsatu genuen: «Martin ez bada gurekin jan egingo gaituzte». Martin kenduta beraiei askoz errazagoa egiten zitzaizen beraien tesi nagusia esplizituki jendearen aurrean uztea, alegia, hori ezker abertzalearen proiektu bat zela. Geure irudiak ez baitzeuden markatuta, baina Martinena bai, eta ezin zuten bertsio hori saldu Martin bertan egonda.

### **Eta EBB zergatik aldatzen da akordioaren aldera?**

EAJn eta Eusko Jaurlaritzan gurekiko mesfidantzak eta iriztiak aldatzen ari dira, batetik. Eta, bestetik, PSEk presio handia egin zuen. Mario Onaindia, Jauregirekin batera, *lardaskatzen* hasi zen, Legebiltzarrean Egunkariarekin akordio bat eskatzen.

### **Zergatik?**

PSEren barnean jada euskaltzale espiritua hori lantzen hasi zirelako. Gu Onaindiarekin egon ginen eta oso ondo hartu gintuen, eta, baietz, akordioa erdietsi behar zela, eta publizitatea askatu, eta hori guztia. Eta hortik etorri zen PSEren akordio eskari hori. EAJk Legebiltzarrean bakarrik geratzeko arriskua ikusi zuen, eta mugitu egin zen. Guk publizitatearen aferan Arartekoarekin ere egonak ginen, Juan San Martinekin, eta hark ebazpen bat emana zuen Egunkariari publizitatea zor zitzaiola esanez.

Martin Ugalde kenduta askoz errazagoa zitzaizen beraien tesi nagusia jendearen aurrean uztea, alegia, hori ezker abertzalearen proiektu bat zela: geure irudiak ez baitzeuden markatuta, baina Martinena bai

Nolabait hasi, eta bidea eginez joan ginen. Egon batekin, egon bestearekin, hitz egin, konbentzitu, planteamendu razionalak egin, eta, orduan, une batean, hor zeuden aktore guztiek ikusi zuten soluzio baten beharra, eta zein zen soluzio hori? Akordio bat. Elkarrizketa izan zen giltzarria.

**Akordioa, azkenean, 1994ko ekainaren 30ean egiten da publiko.**

Bai, eta Donostiako Miramar Jauregian egiten den prentsaurreko baten bitartez eszenifikatzen da. Josebak eta Iñakik sinatzen dute, eta Martin eta biok mahaiaren bi aldeetan gaude. Sinatu, eta eskua eman elkarri. Bake sozialaren sinbolo bat da argazki hori. Eta hortik aurrera gauzak asko aldatzen dira. Hortik aurrera Jaurlaritzarekin negoziazioak errazak ez dira izango, baina dagoeneko normalak bai. Errekonozimendu batekin zoaz bertara. Ordura arte ez zegoen errekonozimendurik ere; *de facto*-ko errealitate bat zinen, baina ez zegoen aitortzarik.

**Handik gutxira, Joseba Arregik utzi eta Mari Karmen Garmendiak hartzen du Kultur sailburutza. Akordioak eta Kultura Saileko ekipo aldaketak asko errazten ditu gauzak, orduan.**

Bai, bai. Hor Josune Ariztondo, Joxe Mari Zeberio eta Xabier Aizpuruarekin beste hurbiltasun bat dago. Garmendiak berak nahikoa goiz distantzia hartzen du. Ez dut oso ondo gogoratzen, baina uste dut bilera bakarrean egon ginela Garmendiarekin akordioaren ondoren. Nik uste dut oraindik ere segitzen zuela egunkari osagarriaren planteamendua- rekin, egunkariak bildu behar zituela euskaldunoi interesa- tzen zaizkigun lanak, euskaltzaleon interesak, eta, nolabait, produktu kultural bat egin behar zela, politikatik aparte. Eta gu beti egunkari estandar baten aldekoak izan ginen, beti, eta, benetan, uste dut euskararen salbazioa hortik doala. Ez bakarrik egunkari baten salbazioa, euskara bera ere maila horretan normalizatu behar zela, bestela ezin zela. Ondotik

bere ekipoarekin egon ohi ginen, eta tirabirak beti daude, baina beste giro eta hurbiltasun bat zen.

### **Ze tirabira ziren nabarmenenak? Gogoan dituzu?**

Diru kopuruetan, esate batera. Guk 70 milioi pezetatik 120ra igotzea eskatzen genuen, Joseba Arregirekin egindako itunaren ondoren Gipuzkoako Foru Aldunditik galtzen genuena konpentsatzea, alegia. Eta eman ziguten. Eta ekipo berriari hitzarmen sendo baten planteamendua egin genion: azken finean, diru-laguntzak lorpenei lotzea, baina diru muga bat jarri gabe. Lorpenen arabera laguntza handituz joatea, alegia. Esate batera, hainbeste harpidetza lortuz gero hainbesteko laguntza, orrialde kopurua handitzea, kolorea sartzeta, edizio digitala abian jartzea, ingelesezko edizioa irekitzea... Hobekuntza bakoitza laguntza batekin osatuz. Eta hainbat urtetan funtzionatu genuen horrela. Aurrera egin, hobetu eta hazteko formula egokia zen. Jada ez zen diru-laguntza formula, hitzarmenarena baizik. Negoziaketa normalizatuak ziren.

Gu beti egunkari estandar baten aldekoak izan ginen, eta, benetan, uste dut euskararen salbazioa hortik doala. Ez bakarrik egunkari baten salbazioa, euskara bera ere maila horretan normalizatu behar zela

### **Beraz, azkenean, boikota gainditu zen, normalizatu zen harremana Eusko Jaurlaritzarekin.**

Bai, baina inoiz ez dugu lortu konplizitaterik. Beti egon da mesfidantza punturen bat, baita ziurrenik gure aldetik ere haiekiko, irentsiko gintuzten beldurrez, egiten zituzten planteamenduen atzean beste zerbait egon ote zitekeen beldurrez. Baina batez ere haien aldetik, esango nuke. Jaurlaritzan, eta baita Kultura Sailean ere zoritxarrez, politikariak daudenez eta perspektiba politikoak behar baino gehiago

agintzen duenez, beti esaten ziguten ez ginela zabalak, ikuspegi politiko jakin batetik begiratzen genuela, eta beste. Eta hortik bizi izan dugu beti Jaurlaritzarekiko harremana. Ez da egon konplizitate euskaltzalerik proiektu handi bat egiteko. Hori da daukadan sentimendua. Seguruenik normala da, ze beharbada hori da herri ekimen guztien sentimendua. Baina, pena da...

## JAURLARITZAREN EGUNKARI PROIEKTUA

**Jaurlaritzaren egunkari proiektuak urtebete ez zuen iraun. Eusko Jaurlaritzak egunkari bat egiteko benetako asmoa zuela uste duzu edo Egunkariaren aurka egiteko manio-bra bat izan zela?**

Bere garaian horrela esan ere esan izan zen, maniobra zela. Baina ez dakit, hitz potoloak dira. Besterik da galdetzea proiektu serioa zen ala ez zen. Eta hor esan behar da ez zela gauzatzeko proiektu burutu bat, proiektu bat egiteko azterketa lan bat zela. Horraino iritsi ziren, ez gehiagora.

**Jaurlaritzaren proiektua Egunkariarenaren oso bestelakoa zen.**

Proiektua nahiko txirenea zen: gehigarri sorta bat zen, abuztuan ez zen aterako, dena koloretan, doan, eta buzoneatua. Hori dena egiten zen irakurle gehiago izate aldera. Baina planteamendu hori jada jokoz kanpo zegoen. Geroago ikusi dugu euskararen izenean herrietako hainbat aldizkari doako izatearena, baina horrelakoek denboran mugatuak izan behar dute; bereziki, beste batek dirua eta dena jokatzen duenean, merkatuko arrisku guztiak hartzen dituenen, zu parean ezin zaitezke jarri doaneko eskaintza batekin. Ez da leiala, ez merkatuarekiko, ez bestearrekiko, eta euskararentzat ere ez da ona. EITBren barrukoa izango zen, baina horretarako legea aldatu egin behar zen. Nahiko bitxia zen dena.

**Aurrekontuen arteko aldea ikaragarria da. Ez du norma-  
la ematen.**

Gu aurrekontu horretara hamargarren urtean iritsi ginen. Horiék, hasieratik. Eta munduko egunkari onena izango zen, bai, baina hori egingarria zen? Ez dut uste. Beraien asmoa zein zen? Bost axola. Ez zen egingarria, eta, beraz, ez zen egin. Hasieratik genuen susmo hori, ez zela egingo ez zelako egingarria. Guri horrek sekulako kaltea egiten zigula bistakoa da. Terrenoa markatu egiten zuen, lehen esan dudak bezala, onak eta gaiztoak non zeuden garbi-garbi markatzen zuen. Gu publizitate eske joaten ginenean denda eta enpresetara, «hau zein da? Eusko Jaurlaritzarena?» galdetzen ziguten. «Ez, bestea». «Kanpora orduan». Eta horrek ondo adierazten du ze giro zegoen. Publizitaterik ezin lortu, lankidetzak ere zaila. Jaiotzez egunkari madarikatua ginen, markatuta geunden, eta hori dena Jaurlaritzaren egitasmo horrek eragin zuen. Gu salbazioko lurraldetik kanpo geunden, demokraziatik kanpo, ze Jaurlaritzarena Ajuria Eneko Itunaren espirituaren barne egin behar zen, eta Joseba Arregik zioenez gu bestea ginen. Hori sekulakoa da. Horrek euskal kulturgintzatik sortzen den proiektu horren normaltasun guztia moztu egin zuen. Hori izugarria da. Hori hala gertatzea hasieratik pentsatu ote zuten ez dakit, hala nahi izan zuten ez dakit, ez dut horretan sartu nahi, baina hori lortu zuten.

**Belokik aurkeztu zizuen Jaurlaritzaren egitasmoa?**

Jose Ramon Beloki laguna nuen eta laguna dut, Jakinekoa izandakoa da, eta nahi zuen Jakin bere proiektutik hurbil egotea. Enkargua jaso berritan eta lantaldea izendatu aurretik afaldu genuen mano-mano biok, apirilean. Jakinekoekin ere hementxe egon zen [elkarrizketa honetako bulego berean] bere proiektua aurkezten, Joxe [Azurmendi] eta biokin ere bai beste batean. Eta guk gure postura Egunkariaren aldekoa zela garbi adierazi izan diogu beti. Ez dugu inoiz engainatu, baina berak interes handia zuen guk Egunkariarekiko distantziak markatzeko eta eurenera hurbiltzeko.

### **Jakin gutzizatua zen, beraz.**

Nik esatea ez dago ondo, baina Jakin klabea izan da zentralitate eta seriotasuna ematen Egunkariaren proiektuari, Jakin ez zelako muturreko proiektu bat, onarpen soziokulturala du, eta, horregatik, interesa ikusten duzu beste aldetik ere. Nik salakuntza mingarriak ugari jasan izan ditut, nirekin konfiantza pixka bat bazuen Jaurlaritzako hainbatek aurpegira bota izan dit engainatuta egotea, ETArek morroi izatea... Atzetik sarri esango zuten, baina aurpegira ere bai. Hori soldataren barruan zihoala esatera nindoan... baina nik ez dut inoiz soldatarik izan Egunkarian, beraz... Esan nahi dut ez zela sorpresa horiek entzutea.

### **Izan ere, Jaurlaritzako kultura eta euskara alorretako arduradun asko lagun eta ezagun zenituen.**

Nire abantaila eta desabantaila handi bat horixe izan da. Eusko Jaurlaritzan zebiltzan batzuk lagunak edo gutxienez kide nituela, beste proiektu batzuetan elkarrekin ibilitakoak gine-la. Eta horrek batzuetan erraztu egiten dizu bidea, baina niri

Jakin klabea izan da zentralitatea eta seriotasuna ematen Egunkariaren proiektuari, Jakin ez zelako muturreko proiektu bat, onarpen soziokulturala du

psikologikoki oso gogorra gertatzen zitzaidan, gauzak joan ziren bezala joanda, beti enfrentamendu itxura batekin ibili beharra. Hori aldapa gora egin zait beti. Konplizitatera ez zara sekula iristen, eta beti da zu hor eta ni hemen, borrokan. Nik Amatiño oso ezaguna nuen, Txabarri berdin, Garmendia Jakinekin lana egina zen, Joseba Arregi ere oso ezaguna, bere anaia Rikardoren lagun intimoa izana nintzen eta

bere etxean askotan egona. Beloki laguna nuen. Hori batzuk aipatzearen. Eta, jakina, azkenean horiekin aurrez aurre zaude, eta hori ez da erraza. Zerikusirik ez baduzu aurretik, berdinago zaizu, kostu psikologiko txikiagoa du.

## ETA-REN GIDARITZAREN TESI INTERESATUA

### **Egunkariaren zuzendariaren aukeraketak ere zeresana hasiera-hasieratik eman zuen.**

Jaio ginen bezala jaio ginelako, jarri gintuzten lekuan jarri gintuztelako, azken finean euskal kulturako larre motzetik jaio ginelako eta hiribildutik aparte bidali gintuztelako, nori eskaini behar diozu zuzendaritza esanez hemen zure etorkizuneko proiektu bat duzu. Hori latza izan zen. Hasieran hurbileko jendearen inguruan ibili ginen. Ni egitasmora etorri aurretik zuzendari izatea eskaini zidaten, baina Jakinen argi genuen ezetz, ez nuela Jakin utziko. Irudi ona emango zuen norbait behar zen, azken finean egozten ziguten horren ordezkari izango ez zena. Zuzendari ona edo txarra izango zen ez zen kontua, bere irudia ona izango ote zen edo ez baizik. Produktua egitearen bermea ekipoan zegoen.

Zuzendariordeekin ere ez zen arazorik izan, lehenengoan atera zen hirukoa: Iñaki Uria, Luzien Etxezaharreta eta Nerea Azurmendi. Baina zuzendariarena beste kontu bat zen. Proposamen asko egin ziren. Zerrenda luzea zen: Martin Ugalde, Iñaki Zabaleta, Josu Landa, Luzien Etxezaharreta, Iñaki Uria, Nerea Azurmendi, Txema Auzmendi, Joxemi Zumalabe, Imanol Murua, Xipri Arbelbide, Joxerra Garzia... eta besteren bat ere nireaz gain. Horrela genbiltzan. Ezezkoa hasieran eman ez zuen bakarria Joxerra Garzia izan zen, eta eduki gintuen ez dakit zenbat denbora zain, eta, azkenean, alternatiba gutako norbaitek izan beharko zuela ikusita, Pello Zubiria jarri zen. Historia oso sinplea da, baina konplikatu egin nahi izan dute. Indar polizialek historia ximple horren manipulazioan oinarritu zuten beren tesi nagusietako bat.

### **ETAren aginduaren tesia hor zegoen jaio aurretik, kanpoko interbentzioarena, paperetan agertzen omen zena, iradokitzen zena. Horrek ere kezka handia sortuko zizuen.**

Gorputz txarra jartzen zuen. Psikologikoki eta politikoki kalte handia egin zigun. Hori guztia Arregik eta Belokik euren

egunkariaren proiektua aurkeztu eta Beloki despeditzeko eman zuten prentsaurrekoan hauspotzen da, 1990eko uztailaren 10ean, Belokik honelatsu esaten duenean: «Badaukat nik tentazio bat paper batzuk hedabideen eskutan uztekoa», eta paperak erakutsi ez baina seinالاتu egiten ditu. Hori izan zen hasiera edo bultzada. Gau hartan bertan ETB1en atera zituzten paper horiek. Biharamunean, ETB2n. Joxerra Garzia eta Pello Zubiriaren gainean KASek iritzia ematen omen zuten paper horietan. Handik pare bat astera *El Periódico de Catalunya* egunkariak ETAk Egunkariaren jaiotza kontrolatu duela botatzen du. Gero OTR agentziak zabaltzen du, eta *Navarra Hoy*-k argitaratzen du. Eta, beraz, Belokik Jaurlaritzaren egunkari proiektua abandonatzeko ematen duen prentsaurrekoan susmoa sortu, eta kanpaina oso bat abiatzen da. Paper horiek Atutxak emango zizkien, aidanez, eta Egunkariaren kontra egiteko erabiltzen dituzte. Hor ez dago beste intentziorik. Alegia, jendeari esatea «badakizue nor dagoen atzean». Guk paper horiek geroago lortu genituen eta hor ikusten dugu KAS zuzendarien gainean ari dela, eta hortik ondorioztatu nahi da ETA atzean dagoela. Horrek kalte izugarria egin zigun, paperak ateratzearen keinu horrek. Belokirenak pertsonalki biziki mindu ninduen. Oso gogorra izan zen guztiontzat, jakinkideontzat, eta bereziki niretzat.

### **Aurretik antzekoa ere egin zuen Amatiñok.**

Bai, Mariano Ferrerrek antolatu zuen mahai-inguru batean. Ni ere han nintzen, Labaien ere bai. Amatiñok paparrek poltsikoa seinalatuz aditzera eman zuen Egunkariaren atzean zeudenen zerrenda bazuela, Egunkaria Sortzeneko kideen zerrenda beharko, misterio bat balitz bezala, ordurako publikoa zenean, eta «hemen daukadan zerrenda hau erakutsiko banizue, laster jakingo zenukete nortzuk diren horren sustatzaileak», esanez. Eta zerrenda publikoa zen! Fisikoki han zuen papera baina ez zuen atera, badaezpada ere. Hortxe jada gaiztakeria hori Amatiñoren aldetik. Badago mahai-inguru horretan beste anekdota bat ere. Egunkariaren edo egunkari



baten aurrekontua garestia zela esaten ari zen norbait, agian Amatiño, eta non Labaienek botatzen duen: «Baina zer da ba hori, hori bigarren eskuko tanke baten prezioa baino ez da eta!». Hitzik gabe utzi zituen kontra zeudenak.

### **Egunkariaren hamargarren urteurrena mugarri bat izan zen, ezta?**

Bai, ni neu lasaitu hamargarren urteurrenean egin nintzen. Nik urtebete lehenago Administrazio Kontseiluko lehendakaritza hartu nuen Martinen ordeztan, berari kargu horretan bete-betean egotea kosta egiten zitzaion-eta. Urte horretan bi ekitaldi egin genituen, bat Miramongo Parke Teknologikoan eta bestea Miramar Jauregian, biak Donostian. Eta Miramarren egin genuen eki-

taldi publikoan Egunkariaren beraren berrirakurketa bat egin genuen. Hor jada sentitzen dugu gaintitu ditugula hasierako zalantza guztiak, geure buruari erakutsi diogula egunkari bat egiten badakigula, enpresa bat muntatzen badakigula eta egitasmoa finkatua dagoela. Eta garai berri bat urratzen hasten gara: egituraren birmoldaketa bat egiten da, enpresa berriak sortzen dira, herri eta eskualdeetako proiektuak abiatu nahi

dira, eta Egunkaria Sortzeneko ondare osoa jasotzeko *Heda* izeneko fundazioa ere sortzen da. Esan bezala, azpiegitura berriak sortu eta lehengoak finkatzen dira. Produktuan hobekuntzak etengabe datoz: informazio lokala lantzen hasten gara Euskal Herri osora beste modu batez iristeko, Interneteko ataria indartu egiten da... Jada ikusten dugu sortze garaiko emergentziazko erantzunen garaia bukatu dela eta

Belokik Jaurlaritzaren egunkari proiektua abandonatzeko ematen duen prentsaurrekoan susmoa sortu, eta kanpaina oso bat abiatzen da. Paper horiek Atutxak emango zizkien, aidanez. Keinu horrek kalte izugarria egin zigun

eredua finkatu dela. Kasik hoberenera iritsita zegoen Egunkaria, eta harro egoteko moduan geunden. Hori da izan nuen sentsazioa Miramarko hartan. 2000. urtean abiatu zen aro berri hori 2003ko otsailean hiltzen du gobernu espainiarrak.

### **Ez zegoen aurreikusia hiru urtera Guardia Zibilak itxi egingo zuela. Sortze aurretiko gezurrak berriro berpiztu ziren.**

Bai, eta horrek eraman gaitu eraman gaituen lekura. Susmo horiek ez dira Guardia Zibilak asmatutakoak, bolo-bolo zebiltzan hemen ere. [Joseba] Egibarrek berak Pello Zubiria ETAk izendatu zuela zuzendari esan zuen, eta Pellok epaitegira eraman zuen. Geroago, beste itsuskeria mortala Atutxarena izan zen, gurekin bezperan lanean hasia zen publizitate saltzaile bat Iruñean atxilotu zutenean, 'zerga iraultzailea' kobratzen eta Egunkariarekin bete-betean lotu zuenean. Nik orduan edo lehenago goi mailan galdetu nuen Atutxak ba ote zuen Egunkaria ETArekin lotzen zuen txosten polizialik, eta ezetz esan zidaten. Horrelako notiziak agertzen zirenean, gu galdezka ibiltzen ginen, ze azkenean zalantzak sortzen zaizkizu, hau gizarte irekia baita eta permeabilitatea erraza da. Guk bagenekien ehuneko ehun guk agintzen genuela, baina Guardia Zibilak kontrakoa erakusten badu... Paper madarikatuen beldur bizi izan gara urte luzetan. Gogoan dut Martinek eta biok esaten geniola elkarri: «zu zauden bitartean, ni egongo naiz». Joseba Jaka eta Txema Auzmendirekin ere paktu berdina nuen. Eta horrela joan ginen aurrera.

### **Hori dena itxiera eta gero berriro berritu zen.**

Beste bat ere bada batere gustatu ez zitzaidana. Javier Diaz Nocik 2004an lan bat egin zuen *Lengua vasca, información periodística y libertad de expresión: el caso de Euskaldunon Egunkaria*. Baina, lan horretan, Guardia Zibilaren eta Juan del Olmo epaile instruktorearen tesiak egiazkotzat ematen ditu. Gero ahozko epaiketaren ebazpenak gezurtatu zituen tesi edo hipotesi horien arabera azaltzen du Egunkariaren sorrera. Bere burua intelektualtzat duen batek, ikerlari den batek, Guardia

Zibilaren paperak akritikoki hartu beroan, sinesgarritasuna eman, eta ikerketa lan gisa pasarazi, non eta Katalunian? Benetan larria da. Harrigarria, mingarria. Tesi batzuk hain erraz zabaltzen direnean, edo norberaren ideologiak gehiegi agintzen du edo intentzio gaizto bat dago. Ez diot beste esplikaziorik topatzen. Orban galanta du bere ibilbide intelektualean.

## EUSKALGINTZAREN TRINKOTZEA

### **Egunkariak zer ekarri zion euskal kulturari?**

Zuentzako ez du asko esan nahiko akaso, baina guretzat normalizazioa hitz gakoa zen. Triste da, baina besteak bezalakoa izatea da beti bilatu izan duguna, normalizazioa, homologazioa. Gu oso egoera marjinaletik gentozen, eta normalizazioa nahi genuen, alegia, plaza publikoan duintasun osoarekin egoteko eskubidea, besteen eskubide berdin eta berekin. Euskararentzat, kazetariontzat eta euskalgintzarentzat. Horixe da normalizazioa. Norbere buruaren irudi bat ematea, bere lurraldea zein den esatea. Ze informazioa, kasu horretan, ez da informatze hutsa, komunitate bateko kide zarela sentitzen duzu, eta hori hor erakusten da, marko nazionalean. Eta guk ere hala *saltzen* genuen: «Egunkaria Zuberoako azken muturreraino iritsiko da eta hango berriak Egunkarira ekarriko ditugu». Iparralde eta Hegoalde arteko muga hori gainditzea, eta Nafarroa, eta baita Araba ere, giputz-zentrismorik eta bizkaitarrismorik gabe euskaldunon batasunean integratzea Egunkariak ekarri du, eta gero beste hedabide batzuetara zabaldu da. Integrazio hori naturaltasunez lehen aldiz Egunkariak planteatu du eta baita lortu ere, esango nuke.

### **Eta euskalgintzari?**

Egunkariak euskalgintza kohesionatzen du. Nik esan izan dut ez dudala Kontseiluaren existentzia imajinatu ere egiten Egunkaria izan ez balitz. Plataforma bat izan zen egitasmu berrientzat. Horrekin jaiotzen bazara badirudi beti horrela

izan dela, baina bai zera, gu taifen erreinutxoetatik gatoz, ba-koitzak bere esparrutxoia dominatzen zuen garaitik. Nik uste dut Egunkariak herri hau alfabetatu egin duela, ez alfabetatu euskarari dagokionez soilik, mamiz bete duela, mamitu egin duela, edukiz hornitu, informazioa, gogoeta, aisia eta iritzia-rekin herria egin duela. Herri egin gaitu, eta hori nik ez dut uste ez irratiak eta ez telebistak egin duenik. Egunkaria euskalgintzaren gorputzaren bizkarrezurra eta mamia izan zen.

### **Eta, azkenean, Egunkaria itxi egin zuten. Itxieratik hama-bi urte igaro diren honetan, zer duzu esateko?**

Ez genuela hori merezi. Euskalgintzak ez zuela hori merezi. Egunkarian ibili den inork ez zuela hori merezi. Historiaren perspektibatik begiratuta, sekulako pena ematen dit euskarazko lehen egunkariak bukaera hori eduki izana. Susmo harekin abiatu ginen, gainditu genuen, eta, azkenean, horretaz baliatu dira Egunkaria bere onenean zegoela betiko hondatzeko. Perspektiba historikotik begiratuta, nola hasi zen baino, nola bukarazi zuten ikusten duzu eta ikaragarria da. Beste alde batetik, bukaera hori pertsonalki oso gogorra izan da eta ez diot niri buruz bakarrik. Egunkari bat hondatu egin dute.

### **Baina berria sortu zen.**

Bai, beste alde batetik, egia da, ez da bukatu. Hor epopeia handi bat dago *Berria* nola sortzen den ikusita, herri honek ze gaitasun daukan erantzun jator bat emateko erantzun jator hori lantzen bada. Dena bukatu zitekeen inoiz egin zen manifestaziorik handienarekin. Eta denak, etxera. Baina beste proiektu bat jarri zen martxan, arrisku guztiekin, eta arrisku handiak zituen; jendea arriskatu egin da, dirua jarri du, lan egin du, eta egin zuten kaltea hain handia ez izatea ekarri du horrek. Baina kaltea handia izan zen, handia. Milagro hori, ordea, herri honen gaitasuna norainokoa den erakusten duen milagro hori, hori miresgarria da, miresgarria. Ez gaituztela makurtuko, ez gaituztela hilko, sentitzen duzu horrelakoe-tan. Zuek titulatu zenuten bezala: itxia baina ez ixildua. 🍷

## Eranskinak

### «Egunkaria Sortzen» Talde Eragilea

Paulo Agirrebaltzategi	Alfontso Irigoien
Karmele Aierbe	Koldo Izagirre
Jokin Aldazabal	Joseba Jaka
Anton Mari Aldekoa-Otalora	Felipe Juaristi
Sagrario Aleman	Julen Kaltzada
Jose Antonio Arana Martija	Ramuntxo Kanblong
Adolfo Arejita	Edorta Kortadi
Pako Aristi	Josu Landa
Juanjo Arkarazo	Daniel Landart
Eugenio Arraiza	Gexan Lantziri
Joxe Agustin Arrieta	Iñaki Larrañaga
Xabier Arzelus	Emile Larre
Bernardo Atxaga	Fermin Lazkano
Txema Auzmendi	Imanol Lazkano
Joxe Azurmendi	Joan Mari Lekuona
Nerea Azurmendi	Benito Lertxundi
Baleren Bakaikoa	Elene Lizarralde
Jon Basterra	Sebastian Lizaso
Erramun Baxok	Jon Lopategi
Julia Berrojalbiz	Xabier Mendiguren Bereziartu
Joxe Ramon Bilbao	Josu Muniozuren
Jakes Bortairu	Imanol Murua Uria
Mikel Bujanda	Luis Nuñez
Jean Louis Davant	Eusebio Osa
Henrie Duhau	Joxemari Ostolaza
Jesus Mari Eizmendi	Pedro Ruiz Ulzurrun
Aingeru Epaltza	Andoni Sagarna
Urtsa Errasti	Karlos Santamaria
Hasier Etxeberria	Joan Mari Torrealdai
Luzien Etxezaharreta	Martin Ugalde
Gotzon Garate	Fernando Unsain
Xalbador Garmendia	Iñaki Uria
Joxerra Garzia	Patri Urkizu
Sabin Gaztañaga	Iñaki Zabaleta
Luis Goia	Jexux Mari Zalakain
Roger Idiart	Pello Zubiria
Joseba Intxausti	Joxemi Zumalabe
Inaki Irazabalbeitia	

«Egunkaria Sortzen» Talde Eragilea osatu eta gero, euskarazko egunkariaren proiektua zehazten eta zabaltzen hasteko, 1990eko urtarrilaren 21ean, Donostiako Udalaren Euskal Txoko aretoan egin zen batzarrean, hiru lantalde osatu ziren:

### **Talde Bateragilea**

Karmele Aierbe  
Sagrario Aleman  
Txema Auzmendi  
Luzien Etchezaharreta  
Karlos Santamaria  
Joan Mari Torrealdai  
Martin Ugalde  
Joxemi Zumalabe

### **Azpibatzerde periodistikoa**

Nerea Azurmendi  
Jon Basterra  
Hasier Etxeberria  
Koldo Izagirre  
Josu Landa  
Joan Mari Torrealdai  
Martin Ugalde  
Iñaki Zabaleta  
Jexux Mari Zalakain

### **Azpibatzerde ekonomikoa**

Urtsa Errasti  
Luis Goia  
Joseba Jaka  
Fermin Lazkano  
Fernando Unsain  
Joxemi Zumalabe

# Egunkariak nola irakurri gaituen

Lorea Agirre

*Kazetaria*

**Egunkari on bat esango nuke bere buruarekin hitz egi-  
ten duen nazio bat dela.**

*Arthur Miller*

Egunkaria itxi eta egun gutxitara, euskal sortzaile eta kulturgile talde handi bat bildu zen Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, ordura arte euskarazko egunkariaren egoitza izan zenaren kanpoaldean. Guardia zibilek zigilatutako atearen aurrean, prentsaurrekoa eman zuten itxiera salatzeke. Anari kantariak hartu zuen hitza:

Garrantzitsuena ez da guk Egunkaria irakurtzen genuela, garrantzitsuena da Egunkariak gu nola irakurri gaituen.

Anarik dioen «gu nola irakurri gaituen» hori zer da? ‘Gu’ nor da? Eta zer da Egunkariak irakurri zuena? Bada, Egunkariaren ekarpen espezifiko eta nagusia, hain zuzen, «gu nola irakurri gaituen» horren azpian dagoena dela uste dugu. Egunkariak bere buruari eman zion definizioaren eta agindu zion funtzioaren azken helburua gu hori sakonki irakurtzea izan zen. Alegia, gu hori nortzuk eta nolakoak diren esatea, eta gu hori komunitate batean trinkotzea, egunero mundua euskarara ekarriz.

Bestela esanda, Egunkaria nazio gisa. Nazio imajinatu gisa. Nazio guztiak dira sormen kulturalak. Benedict Andersoni zor zaio 'nazio imajinatua' kontzeptua, eta honela ulertzen du: «Nazioa komunitate politiko imajinatu bat da, mugatua eta subiranoa». Zergatik imajinatua?

Naziorik txikieneko kideek ere inoiz ez dituzte bere naziokide gehienak ezagutuko, ez ikusiko, ez haietaz ezer jakingo, eta, hala ere, naziokide bakoitzaren buruan euren arteko komunioaren irudia bizi-bizirik egongo da (Anderson, 2007: 23).

Horregatik ez dator bat Ernest Gellnerrekin, horrek nazio zilegiak eta nazio *fabrikatuak* daudela dioenean, eta, jakina, lehenengoak hobesten eta bigarrenak txarresten dituenean. Nazio denak direla asmatuak eta nazioaren asmakuntza ez dela faltsukeria bat esaten dio; aitzitik, sorkuntza dela, imajinaziozkoa halabeharrez, ezin dela bestela, buruz buruko harremana izateko kide gehiegi dituzten talde guztiak imajinatuak baino ezin direlako izan. Norberaren adiskide, familia, herrikide, eskolakide, lankide eta beste lagun gutxi batzuek gainera, zenbat jende ezagutu dezakegu zuzenean? Eta ezagutzen ez ditugun munduko biztanle guztien artean batzuk zergatik sentitzen ditugu komunitate kide? Imajinatua delako gure kidetasuna.

Eta horregatik dio Andersonek komunitateak ez direla bereiztu behar bere faltsutasun edo zilegitasunagatik, baizik eta imajinatuak diren modurengatik. Hiru modu aipatzen ditu: mugatua imajinatzen duenean bere burua, subiranoa, eta, azkenik, komunitate gisara. Nazioa mugatua da, bere muga geografikoak dituelako eta muga horiek beti beste nazio batekin edo batzuekin egiten dutelako talka; nazioa ez da planetarioa. Subiranoa da, libre izateko ametsa duelako nazio orok. Eta komunitarioa, «kasuan kasu egon daitezkeen desberdinkeria eta esplotazio errealitatez harago, nazioa beti adiskidetasun sakon baten gisan, horizontalki» ulertzen delako (Anderson, 2007: 25).

Hiru ezaugarri horiek dira Egunkaria nazio egiten dutenak. Edo bestela esan, Egunkariak nazioa egiteko baliatzen



dituenak. Baina zergatik esaten dugu Egunkariak nazioa egiten zuela, nazioa imajinatu? Ze egiteko izan du nazioa imajinatze horretan? Andersonen iritziz (2007: 46), nazio imajinatu bat imajinatua izatearen errudun bi elementu dira: eleberria eta egunkaria. Zergatik? Bi horiek, lehen aldiz, nazioa den komunitate imajinatu hori irudikatzeko bitarteko tekniko eta sinbolikoak ekarri zituztelako.

Egunkaria produktu kultural bat den heinean, fikzio baten gainean eraikia dago, eleberria adina. Eta zein da egunkariaren konbentzio literario nagusia? Egiten duen albisteen aukeraketa eta albiste horien artean josten dituen loturak. Arrunki kazetaritzan esan ohi dena: egunkariak informazio bat ematen dizu, eta bigarren bat, eta hirugarren bat eta laugarren bat, denak egunkari bakarrean, are sarritan orrialde berean, demagun, azalean. Eta batura horrekin egunkariko lehen orrialde horrek bosgarren informazio bat ematen dizu: albiste horien arteko lotura imajinatu bat ematen dizu, harreman koherente batean eskaintzen dizkizu, eta hainbat muga fisiko, identitario eta sinboliko marrazten dizkizu, zer den *barrua* eta zer den *kanpoa* zedarriz.

Esan ohi da egunkari bat irakurtzea trama koherente bat lortzeko ahaleginean etsi duen idazle baten eleberria irakurtzea dela. Eta ez da gezurra, ze gertaeren artean sarrri ez dago aurre koherentziarik, ez dago komunztadurarik, albiste horien arteko lotura errealitatean ez da gertatzen, ez protagonistak, ez leku fisikoak, ez gertaeren izaera dira berdinak, ez bada denboran aldi bertsuan gertatu direla (eta ez beti, eta ez du zertan hala izan behar). Hori onartuta, hala ere, koherentzia duen narrazio modura irakurtzen dugu.

Andersonen iritziz, nazio bat imajinatua izatearen errudun eleberria eta egunkaria dira, nazioa den komunitate imajinatu hori irudikatzeko bitarteko tekniko eta sinbolikoak ekarri dituztelako

Lotura imajinatu egiten dugu. Eta, hala, imajinatuz lotzen ditu irakurleak Baigorriko auto istripua, Gasteizko langile greba, Errezilgo sagar azoka eta Mundakako surf txapelketa. Eta, hurrengo egunetan, lau informazio horietatik bat bera ere ez badakar egunkariak, ez zaizkigu imajinaziotik desgertzen, Baigorrik, Gasteizek, Errezilek eta Mundakak hor jarraitzen dute lotuta, komunikatuta, *komunitatetuta*, *naziotuta*. Berdin gertatuko litzateke Basauri, Kordoba, Santander, Donostia eta Logroño lotuko balitu egunkariak, hor ere nazio imajinatu bat eratuko litzateke, baina beste nazio bat litzateke.

## **Informazio bera hizkuntza berean aldi berean**

Eta Egunkaria nazio gisa –edo nazio hori Egunkariaren bitartez–, komunitate bat da, nazio imajinatu bat bere muga geografiko, kultural, linguistiko eta identitarioekin.

Norberak buruan egiten duen lotura imajinario hori beste eremu imajinario batera zabaltzen da egunkariak ahalbidetzen duen kontsumo moduaren bitartez. Egunkaria egunerokoa, eta, horrenbestez, hilkorra delako, egun bakarrean –edo gutxiagoan– jaio, zahartu eta hil egiten delako, komunio zeremonia masibo bat sortzen du egunero: kasik aldi berean milaka lagunek irakurtzen dute fikzioa den egunkari bera –horretaz ere modu imajinatuan ohartzen gara–. Milaka lagun imajinatu ditzakegu geuk irakurtzen dugun egunkaria guk irakurtzen dugun denbora berean irakurtzen, baina bakoitza bakarka. Hegelek zioen egunkariak bizitza modernoan lehengo goizeko errezua ordezkatu zuela. Eta berdinak direla bi ekintzak, intimitatean egiten direla biak, baina errezatzen ari denak ez bezala, egunkaria irakurtzen ari den bakoitzak jakin badakiela bere ekintza bera milaka lagun ari dela errepikatzen, eta lagun horiek denak ezagutzen ez baditu ere, ez nortzuk diren jakin ere, sinetsita dago existitzen direla –hori ere modu imajinatuan.

Joxe Azurmendik, bide beretik, eta Egunkariaz ari dela, antzekoa esan izan du: Egunkaria, hizkuntzaren normalizaziorako

organo bat izateaz gainera, herria egiteko, gu horren identitatea berregiteko funtsezko tresna izan zela. Eta horren baitan, garrantzitsuena hamabost mila familiara egunero-egunero informazio bera hizkuntza berean sartzea izan zela, horren ondorio eta inplikazioak herrigintzaren ikuspuntutik ikaragarriak izan zirela.

Bernat Lópezek zentzu berean dio identitate kultural indartsu eta dinamikoa lortzea ezinbesteko duela edozein gizartek edo komunitatek kanpora zein barrura begira komunitate egituratua eta sustraitua izango bada, are hizkuntza minorizatua, ahultasun instituzionala –estaturik eza–, lurralde zatiketa eta bere buruaren definizio identitarioa argi ez duen edo modu konfliktiboan bizi duen komunitate baten kasuan. Identitate horren eraikuntza da nazio imajinatua.

## **Artefaktu diskurtsiboa eta eragiletza**

Identitate indartsu eta dinamikoa lortzeko, gu hori irakurri, definitu, diskurtsoz jantzi eta eraldatu egin behar da; hain zuzen, hori da Egunkariak bokazio izan duena. Artefaktu diskurtsibo performatibo bat izatea, agenzia lana egitea, eragiletza bideratzea.

Ibai Iztuetak dioten bezala, «euskal kultura zer den zehaztea ez da auzi ‘zientifikoa’, hain gutxi kuantifikatu litekeen zerbait, baizik eta diskurtsiboa eta ideologikoa» (Iztueta, 2015: 16). Premisa bera aplikatu diezaiokegu ‘euskaldun’ edo ‘Euskal Herria’ kontzeptuei ere. Ez da zientzia kontua, ideologikoa baizik. Bestela esanda, superbibentzia kontua da, eta horrenbestez eraldatzea, etorkizun bat sortzea. Euskal kulturaren, euskalduntasunaren eta Euskal Herriaren gaineko definizioaren eta horien berariazko tratamenduaren bitartez egikaritu nahi izan zuen Egunkariak nazio imajinatu hori. Hau da, Iztuetak euskal kulturaren gainean egiten duen arrazoibide bera erabil liteke aipatu hiru eremu definitzaile horiekin.

Euskaldun kategoria hartzen badugu, bat hartze aldera, euskalduna zer den erabakitzea, euskaraduna ote den, edo

erdalduna ere ba ote den argitzea, alegia, *vasco* eta euskalduna –eta baita *basque* ere, baina agian beste partikularitasun batzuekin– parekide ote diren ebaztea, ez da kontu zientifiko bat, baizik eta diskurtsibo eta ideologikoa. Horregatik, Egunkariaren *Estilo liburua*-k ‘euskaldun’ eta ‘euskalerritar’ bereizketa egiten duenean, edo Euskal Herriko muga geografikoa zazpi herrialdeen bueltan zedarritzen duenean, edota euskal kultura euskaraz sortzen dena dela defendatzen duenean,

bereizketa horiek denak egiten dituenean, diskurtso bat praktikan jartzen ari da, ideologia bat zabaltzen. Eta hori proaktibitatez egiten du, normalizatzailerik gabe, bere etorkizun propioa eta hiztun komunitatearena bermatzeko beharrez. Izan ere, hizkuntzaren normalizazioak orokorrean, eta Egunkariak konkretuki, praktika kontrahegemoniko bat eragiten du, *statu quo*-a aldatu nahi duen heinean, hizkuntza

Egunkariaren *Estilo liburua*-k ‘euskaldun’ eta ‘euskalerritar’ bereizketa egiten duenean, diskurtso bat praktikan jartzen ari da, ideologia bat zabaltzen

desnormalizatu baten normalizazioa eragin eta, horrekin, euskaraz bizitzeko eskubidea egikaritu nahi duen neurrian.

Iztuetara bueltatuta eta hark dioen legez:

Funtsean, pentsatzeko eran noranzko aldaketa bat bilatzen da, abiapuntutik bertatik. Eta auzitan jartzen da euskararik gabeko euskal kulturarik ba ote denentz galderari erantzutea baino egokiagoa ez ote den galdetzea euskal kulturari buruzko diskurtso egokirik gabe euskaraz bizitzea posible al den (Iztueta, 2015: 17).

Alegia, eta geurera ekarriz, euskalduntasunari buruzko edo lurraldetasunari buruzko diskurtsoa eraiki gabe posible ote den euskaraz bizitzea. Horregatik, arrazoi performatiboenegatik, erabakitzen du Egunkariak aipatu hiru premisa horiek egikaritzea.

Iñigo Aranbarriren hitzetan gozoago eta argiago esanda:

Euskal prentsak hori du ekarri, hain zuzen: hizkuntzak zehaztutako nortasuna. Egoki ala ez, mintzo propioa behintzat, libreagoa ustez. Eta dakardan hitza berriro modara: sistema oso bat. Hala gauzak arrunt aldatu zaizkigu urte gutxian. Egunero izan da zer ikasi. Euskal egunkari bat dagoenetik, ezinbestekoa dugu gimnasia. Lotutako giharrak askatu behar izan ditugu, arindu. Ehunka dira egunero kalera atera behar diren hitzak, moldeak, manerak, mundua erakusteko ahaleginak, eta ohitzea, kostatu egiten da (Aranbarri, 2006: 17).

Sistema bat, hizkuntza erdian duela, nazioa da. Egunkaria bera.

## Minaz jositako eremua

Izan ere, Egunkaria eremu minatu batera jaio zen, errealitate ez-normalizatu batera, erabat subalterno. Anjel Lertxundik, Bilbon 2004an egin zen Euskal Kazetariaren Biltzarraren irekiera hitzaldian, honela esan zuen:

Geu horretan kabitzen dena ez da talaia bakarra, ezta munduari begiratzeko largabista bakarra ere. Euskarak zehazten du geu horretan kabitzen den guztia: euskaraz kontatzen dugu mundua. Eta euskaraz kontatzen dugula, Irun ez da hiri frontierizoa, gure letren gailurra ez da Cervantes. Kontu elementalak dirudite.

Elementalak dirudite baina ez dira batere horrela.

Eta eremu publiko hori minatua zegoela –eta dagoeladiogu, «herri eraikuntza eta herri-ezabakuntza», Jose Inazio Basterretxearen hitzak erabiltze aldera (2000: 193), borroka betean zegoelako –eta dagoelako–. Eta eremu minatu horretara armatuta sartu behar da ezabatuko ez bazaituzte; eta, esan bezala, eta besteak beste, Egunkariak, sorreratik bertatik, hiru eremu konfliktibo(enak) zedarritu zizkion gu horri: gu hori euskal hiztuna da, gu hori euskarazko kultura da (euskaraz sortzen dena) eta gu hori zazpi herrialdeen lurraldea da. Hiru gutasun horiek edo gutasun hirukoitz horrek bereziki ezaugarritu zuen Egunkaria. Horiek ziren bere armak, indarrean jarri nahi zituen arauak.

Izan ere, diskurtsoa eratu eta eragile bihurtu nahi bazen, definizioak mugarritu eta itxi beharrean zeuden. Egunkari baten eta hizkuntza periodistikoaren gauzarik okerrenea anbiguotasuna da, ezin ulertuak ekar ditzakeelako. Antonio Gramsciren esaldi ezagun bat da, eztabaida baten emaitza haren premisetan erabakitzen dela. Bada, horixe.

Egunkariak, bere eguneroko jardun diskurtsiboaz gainera, edota hori ezaugarritzeko eta koherentziaz janzteko, *Estilo liburua* kaleratu zuen. Berebiziko garrantzia izan zuen, ez bakarrik Egunkariarentzat, baita ere inguruko hedabide eta euskara lan tresna edo normalizazio gune zuten beste ekimen askorentzat. Horretaz gainera, erdal eta euskal hedabideen artean lehen komunikabidea izan zen *Estilo liburua* idatzi eta argitaratzen, oinarriak argi jartzeari zer garrantzi ematen zion argi uzten duen erabakia, inondik ere.

Egunkariaren estilo liburuaren lehenengo bertsioa 1991ko martxoan banatu zen Egunkariako kazetarien artean, baina Egunkaria hasi aurretiko formazioetan jada kazetariok jasoak genituen lanerako premisa nagusiak. Lehen bertsio horren lehen puntuak horrela dio, ez kasualitatez:

Egunkariaren oinarrietan aipatzen da independientetasuna, nazionaltasuna, aniztasuna. Eta euskalduna, euskaraz idatzia. Horretatik ateratzen dugu testuaren tratamendu jatorra nahitaezko baldintza dela helburu horien betetzeko, zeren:

- Ez dator euskaraz nazionala den guztia.
- Euskarak ez du eskusibotasun nazionala.
- Euskara izan liteke desnazionalizatzailea.

Oso kontutan hartu beharko du kazetariak territorialitate berri bat asmatu behar duela, euskararen mugapeak interestatalak direla.

Zer da territorialitate berri bat asmatzea? Josu Amezagak eta Edorta Aranak hedabideen gaineko azterketa batean iritsi ondorioak galdera horri erantzuten diolakoan gaude:

*Euskaldunon Egunkaria*-k proiektu politiko zehatzekin izan ditzakeen harremanak lausoagoak dira, bistan da. Baina bere atzetik hizkuntza-egitasmoa agertzeak, zalantzarik gabe Euskal Herria beste modu batean ikustera eraman du, ez hainbeste sistema

politikoek egituratzen duten parametroetan oinarrituta, hizkuntzaren errealitatean oinarrituta baizik. Beraz, neurri batean, hizkuntza-komunitatean oinarritutako erreferentzia-eremua da, nahiz eta ez den horretara mugatzen, eta nahiz eta hizkuntza-egitasmoak eta egitasmo politikoak zirt-zart bereizterik ez dagoen (Amezaga eta Arana, 2000: 113).

## Euskalerritarra ez da beti euskalduna

Hizkuntz komunitatea erdigunean dagoelako, *Estilo liburua*-ren aipatutako lehen bertsioan bertan jasotzen du ‘euskaldun’ eta ‘euskalerritar’ bereizketa:

Hizkuntzaren tradizioan, eta herri-oroimenean, ‘euskalduna’ euskaraz mintzo dena da. Horregatik, euskal herritarrak Euskal Herriko biztanleak dira, eta euskaldunak, euskaraz mintzo direnak.

Bereizketa hori funtsezkoa da. Batetik, halabeharrezkoa da, euskarazko egunkari bat irakurtzeko euskara-duna –hizkuntzaren menperakuntza maila gorabehera– izen behar delako. Eta, bestetik, euskalduna izango delako subjektu zentrala, hiztuna. Eta horrek desberdindu egiten du inguruko egunkari eta hedabideetako subjektu zentralarekiko, eta horrenbeste beste nazio imajinatuekiko.

Hori da oinarri nagusia, ‘gu’ hori, eta hortik eratorriko da ‘bestea’, alteritatea, ikusteko modua eta lekua. ‘Bestea’ –beste bat, edo, egokiago esan, beste ‘gu’, ‘gu’ ere Euskal Herriko biztanlea delako– euskalerritarra da. Nolabait esan, subjektu nagusia euskal hiztuna da, hori izango da definizioaren lehen mailan, eta euskalerritarra adjektiboa izango da. Horregatik *Estilo liburua*-k agintzen du ‘eusko’, ‘euskal’, ‘euskaldun’, ‘basque’ edo ‘vasco’ terminoen

‘Gu’ hori da oinarri nagusia, eta hortik eratorriko da ‘bestea’ ikusteko modua eta lekua. ‘Bestea’ –beste bat, edo, egokiago esan, beste ‘gu’, ‘gu’ ere Euskal Herriko biztanlea delako– euskalerritarra da

atzean zer dagoen ondo aztertzeko, eta EAEko, Hegoaldeko, Iparraldeko edo Euskal Herriko jendeaz ari den argitzeko ‘euskaldun’ edo ‘euskalerritar’ zein erabili erabaki aurretik.

## **Eguraldi mapa eta trafiko istripuak**

Zer da ‘Euskal Herria’, zer ‘Euskadi’, zer ‘País Vasco’, zer da ‘Pays Basque’. Eguneroko eztabaida eta eguneroko nahasmasa dugu; segun eta nork, non eta ze hizkuntzetan esan, eremu geografiko bat edo bestez ari dela ulertzeko gaitasuna landu beharra dago. Gimnasia egin.

*Estilo liburua*-k erne ibiltzeko agintzen zuen:

29. araua: Beste norbaiten aipamenetan ‘Euskal Herria’ hitza agertzen zaigunean, jakinda ere mintzo denak kontzeptu horrekin Euskal Herriaren zati bat bakarrik izendatzen duela (Hego Euskal Herria, edo Euskal Autonomi Elkartearen bakarrik), ezin dugu interpretaziorik egin; eta gutxiago komatxo artean idazten badira. Kontuz [...], beti, komatxo artean joango da aipamena, eta nori dagokion jarriko dugu ahazteke. Darabilen hizkera pertsonaiaren datu adierazgarria da.

Izan ere, lurraldetasuna kontzeptu politiko estrategiko arria da. Basterretxeak dioen legez:

Lurraldea, beraz, ez da lurra besterik gabe; lur-eremua izateaz gain, giza borondatea ere bada lurraldea. Giza borondateak sortzen eta finkatzen, besteen artean, medioek aparteko zeregina izan ohi dute (Basterretxea, 2000: 155).

Eta areago doa:

Herri bati, nazio bati, lur-eremu bati kartografia bat edo beste bat aitortzean, nola lurralde horretan bertan eta horren ingurukoetan hala urrunekoetan, iruditeria kolektibo bat edo bestea sortzen laguntzen dute hedabideek, zeren ikusitako mapak/mapek kolektibitateek unibertso publikoan duten/duketen leku eta toki aitortua ezartzen baitute, eta mapa horiek sozializatzen baitute giza talde bakoitzaren lur-eremuaren jabegoen nondik norakoak.

Bestela esanda, euskararen lurra sinbolikoki borrokatu zuen Egunkariak, ze, Ubaldo Martínez Veigaren hitzetan,



«lurraldea lehen-lehenik herriak finkatzen diren espazio fisikoa da, baina aldi berean errebindikatzen den espazio sinboliko bat da» (Del Valle, 1988: 10-11). Zer esanik ez lurraldea estaturik gabeko nazioa denean.

Borroka sinboliko hori argi ikusten da, esate batera, eguraldi mapa eta trafiko istripuen kontaktetan. Nola tratatu, lurraldean non kokatu, ze kartografia erabili, halako lurralderen *konkista* imajinatu eta sinbolikoa egingo da. Egunkarian, inguruko egunkari gehienetan ez bezala, Donostian gertatutako auto istripua Baionako noranzkoan gertatzen zen, sekula ez Irungo noranzkoan. Barne-kanpo muga Baionak markatzen du, ez Irunek. Eguraldiaren mapak berdintzen zuen. Eta hori baino garrantzitsuago, zazpi herrialdeen mapa beti izango zen erreferentzia lokalagoen kokagune orokorra. Eta, baita, kasuan kasu, Euskal Herritik gaindiko albisteen erreferentzia zazpi probintzien lurraldea izango zen, zela konparaketarako zela euskalerritar/euskaldun subjektua protagonista bihurtzeko.

Gainera, lurraldeak, kartografiak bere izenak ditu eta hor ere borroka latza da *jabegoarekin*. Horregatik, *Estilo liburua*-k zehatz-mehatz hauxe dio:

163. araua: Euskal Herriko herri izenak eta toponimoak euskaraz emango dira. Ez du ajola zein duten orain denominazio ofiziala. Egunkariak euskarari bakarrik aitortzen dio ofizialtasuna.

Inguruko lurraldeak ere izendatu beharrez, beste argibide garrantzitsu bat ere ematen du, ordura arte erabat berria zela inguruko hedabideen praktikan.

Estatua ez da herria / país / pays edo lurraldearen sinonimoa. Espainia eta Frantzia aipatzeko, beraz, 'Espainia' eta 'Frantzia' terminoak erabiliko ditugu, eta ez 'Estatu espainola' eta 'Estatu frantsesa'. Eufemismo hauek baztertu egin behar dira.

Eta areago. Beste hizkuntza minorizatuen lurraldeak ere borrokatzen zituen Egunkariak. *Estilo liburua*-n berariaz jasotzen ziren, munduko estatu guztien izen eta ezaugarriekin

batera, kolonia eta estatus ia independentea zuten hainbat lurralde, eta baita Europako estaturik gabeko nazio garrantzitsuenak ere. Eta azken horien hainbat toponimo hizkuntza gutxituetan nola diren ere.

## **Euskal kulturaren zentralitatea**

Eta beste hainbeste. Zer da euskal kultura, nor da euskal idazlea, nor da euskal musikaria. Anjel Lertxundik gauza elemental deitzen dituen horien artean,

Euskal kultura,  
sortzaileek euskaraz  
sortzen dutena,  
erdigunean kokatu  
zuen Egunkariak,  
alegia, azalean,  
lehen orrialdean,  
titular nagusian

euskal letren gailurra ez dela ez Cervantes ez Molière ez Shakespeare, Axular baizik dioenean, zeren arabera ebazten du hori, ez bada hizkuntzaren arabera? Eta horrek ze inplikazio gehiago ditu? Euskarazko kulturaren sistema bera egituratzea; horrenbestez, egunkari baten egitekoa poeta gazte baten obra kultur sisteman kokatzea denez, Egunkariak Axular buru duen sisteman kokatu beharko luke poeta hasiberri hori.

Esan behar da *Estilo liburua*-n ez dela jasotzen euskal kulturaren definiziorik, baina garrantzi berebizikoa izan du premisa horrek, eta Egunkariaren praktika horixe izan zen.

Euskal kultura, sortzaileek euskaraz sortzen dutena, erdigunean kokatzea, alegia, azalean, lehen orrialdean, titular nagusian. Martin Ugalde zenari *Deia* erdal egunkariaren azalean Mattin bertsolariaren heriotzaren berri ematea ukatu ziotenaz kontrara, hain zuzen.

Gauza jakina da kulturaren eta hedabideen arteko harremana ezinbestekoa dela; kultura hori kultura izango da, kulturak kultura izateko argitaratua, transmititua izatea beharrezko duelako.

Enrique Bustamantek dioen legez:

Kultura eta komunikazioa, eta eremu publikoa beti egon dira habeharrez lotuta. Jakin badakigu ez dagoela sozialki existituko den kulturarik ez badu zabalkunde sistematik, alegia, ez bazaio informazioa komunikatzen gizarte talde bati, talde hori txikia izanda ere (Bustamante, 2007: 63).

Egunkariak lortu al zuen diskurtsoa sortu eta eragitea? Borroka kontrahegemoniko horretan performatzea, agenzia izatea, lortu al zuen? Ez da erraza neurtzen, Josu Amezagak dioen bezala: «Eragina neurtzea zaila den arren, ezin dugu ukatu talde nortasunen eraikuntzan eta birsorkuntzan hedabideen lana oso kontutan hartzekoa denik» (Amezaga, 2000: 9). Baina *albo kalteak* eragin zituen inguruko hedabide batzuetan, bereziki, Euskal Herria eta Mundua kategoriak zabaltzen.

Egunkariak egunero marraztu zuen nazioa, egunero eraiki: Arrasateko plazaren eraberritzearen eta Sohütako ingeniari-tza enpresa berri baten albisteak elkarren ondoan emanda, Bilboko sarreran auto butxadura Karrantzako norabidean gertatzen zela idatzita, astrofisikaz, medikuntza alternatiboaz, antropologiaz eta dantzaz dakiten aditu euskaldunak elkarriketatuta, eta Lekorneko musika jaialdiari argazki nagusia eskainita. Horretarako dira hedabideak, gu hori irakurtzeko. Eta gu hori, eraikuntzan –edo obratan– dagoen nazio imajinatu hori da Anarik bete-betean adierazten asmatu zuena. Gu hori, gu imajinatu hori, garena eta izan nahi duguna. Egunkariarik gabe, gaur egun, are nekezago sortu eta imajinatu ahal izango genukeena. 🍷

### **Bibliografia**

- Amezaga, Josu (2000): 'Sarrera', in NOR ikerketa-taldea: *Hedabideak eta Euskal Herria*, Bilbo, UEU, 9-17.
- Amezaga, Josu; Arana, Edorta (2000): 'Euskal Herriaren irudia prentsan eta telebistan', in NOR ikerketa-taldea: *Hedabideak eta Euskal Herria*, Bilbo, UEU, 103-153.
- Anderson, Benedict (2007): *Comunidades imaginadas. Reflexiones sobre el origen y la difusión del nacionalismo*, Mexiko Hiria, Fondo de Cultura Económica.
- Aranbarri, Iñigo (2006): *Hizlandia. Mundua prentsaren judasetik*, Zarratuz, Susa.
- Basterretxea, Jose Inazio (2000): 'Lurraldetasuna: Euskal Herriaren forma-aniztasun mediatikoa', in NOR ikerketa-taldea: *Hedabideak eta Euskal Herria*, Bilbo, UEU, 155-197.
- Bustamante, Enrique (2007): 'Komunikazio politikak eta TB zerbitzu publikoa', in Askoren artean: *Kultur Politikei buruzko Nazioarteko I Biltzarra*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza, 63-80.
- Del Valle, Teresa (1988): *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*, Barzelona, Anthropos.
- Euskaldunon Egunkaria (1991): *Estilo liburua*. Argitaragabea.
- Iztueta, Ibai (2015): *Cultura vasca vs Euskal kultura*, Donostia, Utriusque Vasconiae.

# Hutsetik 3.789ra

Irene Arrarats

Euskaldunon Egunkaria-ko eta egun Berria-ko euskara arduraduna eta estilo liburuaren zuzendaria

**1** 990eko abenduaren 6tik 2003ko otsailaren 20ra arte. Egunero, astelehenetan izan ezik, hutsik egin gabe. Hutsaren hurrengoa hizkuntza baten bizialdian, baina nahikoa –eta gehiago– argiro eta hizkiro erakusteko egin zitekeela euskaraz ere egunkari noranahiko bat, gure egoera soziolinguistikoa gorabehera, estandarizazioaren bide malkartsuari gogotik lotuz gero. *Euskaldunon Egunkaria*-ren mirari txiki-handia.

## Egoera soziolinguistikoa: ezin konta ahala oztopo

Hasierako garai hartan, begien bistakoak ziren halako lantegi bati ekiteko oztopoak, eta begien bistakoa erantzukizuna ere: komunikabideen hizkuntz ereduaren paretsua izaten da, neurri handi batean, batez besteko estandarra, baita mintzaira indartsu normal(izatu)etan ere; kazetariak nola, halatsu hitzun asko, jendaurrean ezer komunikatzekoak direnean, jendaurreko profesionalen estiloari fidaturik erabat; esaterako, halako politikariari *balioan jarri* aditu edo irakurri, eta, ez si eta ez no, haren tankera berean erabiliko du beste hainbatek, dotore antxean ustez... Eta hori hala bada hizkuntza hegemonikoei dagokienez, zer ez da, bada, gertatuko nagusiak hitzun petoak bai baina alfabetatu gabeak dituen hizkuntza batean, eta gazteak, berriz, alfabetatuak bai baina

diglosiak motelduak... Komunikabide jeneralista guztiek dute irakurle multzo askotariko samarra, baina gurean korapilo hori askoz bihurriagoa zen: euskarazko egunkari bakarra, eta hizkuntz maila guztietako irakurleak kontentatu beharra. Hori nahikoa ez, eta, oztopoari oztopo, interferentzia multzo doblea: bi auzo hizkuntza –eta hizkuntz politika– guztiz hedakor, zeinek bere aldera tira eginez euskaldunon mintzoan, bata Hego Euskal Herrian eta bestea Ipar Euskal Herrian, euskararen oso bestelakoak biak ere morfologian eta syntaxian, forma bitasunak eta beste ondorio batzuk ekartzan dituztenak; kaltegarriena, alde batekoak eta bestekoak elkarrengandik urruntzea.

Nahiko lan, beraz, halako hartzaile talde heterogeneo bantentzako eredu orogozatzaile bat osatzen. Eta, gainera, inork ohiturarik ez egunkaria euskaraz leitzeko.

## **Estandarizazioa 1990ean: ez donk hamaika**

Baina, egoera soziolinguistikoa alde batera utzirik, zertan zen corpusaren estandarizazioa Egunkaria abiatu zen hartan? Orduko baliabideekin, nola ekarri geure hizkuntzara mundu osoa? (Horixe egiten baitute kazetek: lehen, egun bateko tartarekin; gaur egun, gertatu ahala kasik).

Orotariko hitz eta kontzeptuak eman behar, zahar nahiz berri, eta hiztegi aldetik nora jo ez genuela ibiltzen ginen maiz: Adorez taldearen *Euskararako Hiztegia*. Oinarrizkoa (1990), Xabier Kintanaren *Hiztegia bi mila* (1980)... UZEIk bazituen gaikako hiztegi batzuk eginak, baina Ibon Sarasolaren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*-n begiratzerik ez zegoen erdialdeko letretatik aurrera, eta *Orotariko Euskal Hiztegia* ere batzuetarikoa baino ez zen oraindik... eta paperezkoa, jakina; hau da, erdaratik euskararako bidaia egin behar izanez gero, lagun hankamotza.

Beste hainbeste gertatzen zen informazio entziklopedikoari zegokionez: leku izenak, pertsona izenak, artelanen izenburuak, gertaera historikoen izendapenak, zientzia unitateak...

Hizkuntza guztiz estandarizatuan ari denak, gehienetan, ez du pentsatu ere egin behar halakoak nola eman: etorri egiten zaizkio, lehendik mila bider emanak daudenez mila bider aditu eta ikasiak dituenez gero; normalizatu gabeko hizkuntza batean ari denak, aldiz, ekarri egin behar ditu, horretan ahalegin handia eginez, bai berak asmatu, bai erreferentziako lanetan begiraturik, baldin eta halakorik badago... *Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoa* 1993an argitaratu zen; *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*-ren hamar liburukiak, 1990 eta 1995 bitartean; eta *Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa*, berriz, 1995ean, Egunkariarekin berarekin ere banatua.

Lexikoaren eta terminologiaren alorreko gabeziak ez ziren adar baten adarra baino, zeren enborarren ahulezia beste zerbaitetan ikusten baitzen: prosa eredu sendorik ezean

Lexikoaren eta terminologiaren alorreko gabezia horiek guztiak ez ziren adar baten adarra baino, zeren enborarren ahulezia beste zerbaitetan ikusten baitzen –eta ikusten baita oraindik–: prosa ereduan, edo, zehatzago esanda, prosa eredu sendorik ezean. Alde horretatik, argigarria da oso Luis Villasanteren *Euskararen auziaz* liburua; zehazki, pasarte hau (1988: 142. or.):

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Horixe zen, bada, panorama Egunkaria argitara ematen hasi baino bi urte lehenago. Prosa egiteko moldea ondo finkatu gabe egonik, kontakizunik sinpleena ere labirinto

galgarria bihur daiteke... batez ere, etengabeko interferentziaz, beste hizkuntza bateko prosa moldeak imitatzen saiatuz gero, tradizioari traizio eginez baina trukean adierazkortasuna edo zehaztasuna handitu gabe. Eta ezin ukatuzkoa zen –eta da– tradizioaren etena, bi aldetatik: batetik, klasikoak –eta, okerragoa dena, klasikoen hizkuntz baliabideak– guztiz arrotzak zaizkie askori, eta, beraz, ez dituzte euskarazkotzat jo ere egiten idazmolde horiek; bestetik, hogeigarren mendeko garbizalekeria sintaktikoak jakinaren gainean eta nahita erauzi ditu euskaratik hainbat baliabide eta aberastasun estilistiko, hizkuntza guztia ia molde baka-rrera errenditzeraino.

Gainera, euskal kazetaritzaren estiloa(k) lantzen ibilitakoen emaitzak ere, urriak ez ezik, ezezagunak ere baziren, neurri handi batean, ia genero eta erregistro guztietan eten baita gure tradizio pizarra.

## **Guztiak eta bat**

Egunkariak oso garbi izan zuen beti euskara batua zela bere adierazpidea, eta hori zela euskaldunentzat berripaper nazional bat egiteko idazmolde egoki bakarra, baina... zer zen euskaldun jendearentzat euskara batua, 90eko hamarkadaren hasiera hartan? Euskaltzaindiak seinalatua zuen bidea, Koldo Mitxeleneri segika, eta idazleak, argitalpen gehienak eta irakaskuntzaren mundua bateratsu zebiltzan bide hartatik; baina, segur aski, ez zen ondo adierazi euskara guztiak kabitzen zirela batuan, eta aurreiritzi asko zabaldu ziren bazterretan, euskalki guztien aberastasun lexikal eta sintaktikoa bere osoan baturatzea eragotzi zutenak. Eta, okerragoa dena, zenbaiten aho-lumetan harrigarriro apartatu ziren norberaren euskalkia eta norberak euskara batutzat jotzen zuena.

Zalantza haien erakusgarri, hona hemen hasierako garai hartako pasadizo bat: Egunkariak hilabete batzuk eginak zituela, Bilboko ordezkarietzako kazetari batek, zeinak oso



ederki idazten baitzuen, Lasarteko erredakziora deitu zuen ea titulu batean *barik* hitza jar zezakeen galdezka... Zorionez, handik gutxira inork ez zuen halakorik galdetuko... edo zoritxarrez, zeren hizkera batean hain zabaldua den hitz bat idazteko beldurrez ibiltzea baino ere okerragoa izan bailiteke hitz gureztat exotikoena aukeratzea ia sistemaz, *lekutako* dotoretasun alegiazko baten atzetik, galdetu ere egin gabe ez nork bere buruari eta ez beste inori.

Eta halaxe iritsi zen, Egunkariara ere, *orotariko euskara*, Koldo Zuazoren hitzetan esateko: «Alta, jubilatuentzako egoitza berri bat eraikitzen ahal da igandean bildu sosagaz». Begi bistakoa da alde ederra dagoela –eta aldea ederrean ere– batuan euskalkiak elkarrengana hurbilduz joan edo hizkerekin halako zikulu saltsak egin. Gaur egun, edozeinek erabiltzen ditu, lasai asko, *adostu*, *jaramon*, *ezarri*, *baliatu* eta abar, eta ia ez gara gogoratu ere egiten zer hizkeratakoak diren. Hauxe zioen Zuazok *Euskararen sendabelarrak* liburuan (2000: 149. or.):

Euskalki guztietako osagarri nagusiak ezagutu behar ditugu, baina ezin ditugu noiznahi eta nonahi bata bestearen ondoren ezarri. Hitz jokoak egiteko, indarra eta adierazgarritasuna bilatzeko, edo beste zenbait helburu lortzeko egoki etor dakiguke bateko eta besteko osagaiak baliatzea, baina beti ere euskalki jakin bat –ahal dela norberarena– oinarri izanda lortuko dugu edertasun, benetakotasun eta zuzentasun handiena.

Oreka lan bihurria da, beraz, batua handik eta hementik aberastea eta, aldi berean, erabateko artifizialkeriei ihes egitea. Ulergarritasunaren alde egiteak, jakina, ahalegin bat eskatzen zion –eskatzen dio– kazetariari: jabetu beharra zeukan euskalki guztietako irakurleentzat ari zela. Baina, era berean, euskararen estandar nazional bat egiteak irakurleari ere eskatzen zion ahaleginik: eskuzabaltasuna, batetik, aldameneko herrikoaren hizkera ere ulertzeko; eta anbizioa, bestetik, bere hizkeran, eta berean bakarrik, bertan goxo ez gelditzeko. Batzuek, *ezantza* zer zen ikasi genuen; beste batzuek, *gasolina* zer zen.

## Estilo liburuak: Egunkariarenak eta bost

Egunkariaren sortzaileek eta arduradunek hasiera-hasieratik izan zuten hizkuntzaren kezka: edozerkeriak ez zuen balio, jakina, eta baliabideen urria ezin zen izan zabarkeriaren zuribidea. Idazkera bizia, zehatza eta ulerterraza landu behar zen, noski, nonahiko kazetariak horixe zor baitie irakurleei, eta segituan hasi zen lanean taldetxo bat kazetaren hizkera lantzeko: arazoei erreparatu eta konponbidea eman, irizpideak eta eredu koherente bat finkatu, testu guztiak zuzendu, kazetariekin banaka-banaka idazkera landu... Jose Luis Aranguren *Txiliku*-k eta Beatriz Zabalondok, talde horretan, beren lana egin bakarrik ez: beste hainbati erakutsi ziguten lanean, kazetari, itzultzaile nahiz estilo zuzentzaile. Orobat, *Argia* eman eta eman aritu zen, eta Egunkariak hortxe izan zuen sortzeko eta handituz joateko behar zuen haztegi oparoa.

Lantaldea gazte-gaztea zen eta, salbuespenak salbuespen, eskarmentu handirik gabea: euskaraz ikasia izanik ere, erdal egunkarien molde, fraseologia eta topiko maiztuak zituen begi-belarrietatik sartuak. Inertzia hari buelta emateko,

eguneroko euskal kazetaritzak helduleku bat behar zuen, jokalakua seinalatuko zuten irizpide landu batzuk, eta 1991ko martxorako egina zegoen gero-  
ra etorriko zen estilo liburuaren ernamuina: Koldo Izagirrek eta Josu Landak moldaturiko edizio fotokopiatu bat, hain zuzen. Beste hainbat gomendio eta gogetarekin batean, honela zioen: «Euskara gai da gai guztiak euskaratzeko».

Lan hartan, jadanik zehaztuak zeuden Egunkariaren irizpide oinarritzkoenetako batzuk (gero *Berria*-k ere beretuak):

1991ko martxorako  
egina zegoen gerora  
etorriko zen estilo  
liburuaren ernamuina:  
Koldo Izagirrek  
eta Josu Landak  
moldaturiko edizio  
fotokopiatu bat

- Lehenik eta behin, *Euskal Herria*, *Euskadi*, *Euzkadi*, *Hego Euskal Herria*, *Ipar Euskal Herria*, *euskaldun* eta *euskal herritar* terminoen erabilera finkatu zen –eta Euskaltzaindiak 2004ko arau batean *Euskal Herria* terminoari emaniko argibideak bat datoz guztiz Egunkariaren jokabidearekin.
- Garbi adierazi zen Euskal Herri guztia hartu behar zela kontuan hitzak mailegatzeko orduan, ipar eta hego, ulergarritasunaren mesedetan eta eredu nazional baten zerbitzuan:

Mailegura jo behar denean, oso zuhur ibili behar da. Espainoletik hartzeko erraztasun handiagoa izango dugu noski erredakzioan, baina *Egunkaria* nazionala denez, eta euskararen beraren onerako eta mailegua dependentzia bihur ez dadin, frantseseko esprezioarekin parekatu beharko dugu gaztelaniazkoa. Berdinak direnean (*fúnebre*, *funèbre*), ez dugu problemarik izango.

Desberdinak direnean (*control/barrage*, *gol/but*) aztertu egin behar da batak bestearen eremuan nolako edo zenbaterainoko hedadura duen, eta horren arabera aukeratu.

- Estilo arina landu nahi zen, baina sakona; samurra eta pedantekeriarik gabea, baina zehatza eta aberatsa.
- Euskal prentsaren topikorik gogaikarrienak identifikatu, eta tradizioko ordainen alde egin zen, estilo garden baten alde: *-elarik* gisako adizkien gehiegikeria seinalatu, eta esaldi lotura logikoak bultzatu ziren; gerundio faltsuen ordezkioak proposatu; luzatu behar alferrekoa baztertu (*atzo* erabili, eta ez *atzokoan*; *hasi*, eta ez *hasiera eman*; *Euskal Herrian*, eta ez *Euskal Herri mailan...*); uko egin zitzaion baldintza erabiliz zurrumurruak edo susmoak adierazteari; *berri* hitzaren erabilera *berrienari* aurre egin zitzaion (*beste gol bat*, eta ez *gol berri bat*); *-en* / *-elako seinale* bultzatu zen, eta ez *-enaren* / *-elaren seinale* berrikeria... Eta halako beste makina bat.
- Tituluak ontzeko irizpide garbi batzuk jarri ziren. Informazio hutseko tituluetan, ahalik eta gutxien isildu aditza, eta laguntzaile eta guzti idatziko zen beti; beraz, erabat

baztertu ziren «Bush-ek Madrileko akordioa onartu» eta gisakoak. Erreportajeetarako-eta, gomendatu zen «gure literatura edo zinemagintzako tituluez baliatuz egitea» lerroburuak, irakurleen memoria kulturala sortzen laguntzeko.

- Euskal herritarren euskal abizenak euskarazko grafiaz idatzi behar zirela finkatu zen, baina sinaduretan erabateko askatasuna utzirik, nor bere artikulua nahi bezala izenpetu zezan.
- Euskal Herriko leku izenak ere euskaraz ematea erabaki zen, izendapen ofizialarekin bat etorri nahiz ez. Euskaltzaindiak *Euskal Herriko Udalen Izendegia*-n zehazturiko formak ziren erabiltzekoak.
- Zirilikotik eta arabiar alfabetotik transkribatzeko oinarri batzuk ezarri ziren, eta Txinako, Indiako eta beste hainbat tokitako izenekin nola jokatu erabaki.

Lan labor baina edukiz mardul huraxe erabili zen kazetarietzako hasierako ikastaroetan, eta huraxe bete eta betearazi behar genuen estilo zuzentzaileok. Haren arrastoari segika iritsi zen lehenbiziko estilo liburua, egunkaria argitaratzen hasi eta bi urtera, 1992ko abenduan.<sup>1</sup>

Jakina, Egunkariako langileentzat baino ez zen arauemaita, baina oso lagungarria izan zitzaien beste komunikabide batzuetako kazetariei, argitaratzaileei, unibertsitateko ikasleei eta euskaltegietako irakasleei, besteak beste. Alde horretatik, beroarena kenduta ere lasai esan daiteke mugarri bat izan zela, prentsako euskal prosa lantzeko bidean ez ezik, normalizaziorako landuriko tresnen artean ere.<sup>2</sup>

Azken batean, hauxe zen estilo liburuaren helburu nagusia: *euskarazko euskaraz* idaztea, kazetaritzarako estilo erakargarri batez. Honela esana dago egileek apailaturiko sarreran:

«Argi, labor eta suedieraz» idatzi behar dela dio Suediako 'Svenska Dagbladet' egunkariaren arau nagusiak. Gurera ekarrita, «argi, labor eta euskaraz» idatzi behar dela aldarrikatuko genuke. Argitasuna eta laburtasuna, kazetariaren dohain nagusiak ditugu, estiloaren gidariak. Euskaraz idaztea, berriz, ez dago hain garbi zer ote den, gure hizkuntzaren egoera berezia dela eta.

Egunkarian, orain batzuek erdarakaden edo kalkoen ehi-za alferrekoa ikusten duten tokian, kazetariaren sormenaren eta estilo pertsonalaren aldeko lana ikusten genuen: prentsak topikoak sortzeko duen erraztasunaren gainetik, esamolde soil eta dotoreagoak lehenetsi beharra. Ohikeria estereotipatuetatik ihesi (*Txikienak izango dira protagonista festetan; Hitzordu bat dute hautetsontziekin...*), irudimena eta idaztearen plazera. Gauzak *normaltasunez* esan beharrean, *normal* esatea.

Egunkariak hiru estilo liburu eman zituen argitara: 1992koaz gain, beste bi bertσιο egin zituen, 1995ean bata eta 2001ean bestea,<sup>3</sup> «azalez eta mamiz» berrituak, premietara egokituz joateko eta eskarmentuak erakutsirikoa gehitzeko. Hutsak huts eta hitsak hits, egunkaria eta estilo liburua beti izan ziren bata bestearen ispilu, eta aberasteko eta ikasteko bazka eman zioten elkarri.

Ezin ahaztu dugu ezen, lehen estilo liburua publikatu zenean, Euskaltzaindia artean hasi gabea zela bere arau bilduma argitaratzen, eta bigarrenarekin batera iritsi zela lehenbiziko sorta. Beraz, urte haietan aitzindari lana bete eta proposamen asko egin beharra egokitu zitzaion Egunkariari, kazetaritza eremuan ez ezik, baita lexiko orokorrean eta terminologian, *burujabetza* sintaktikoan –alegia, erdal topiko pedanteei amore ez emateko borrokan, euskarak bat bakarra iraun zezan, eta ez bitan banaturik, eredu zinez nazionalik gabe–, onomastikan, ortotipografian, siglen alorrean eta abarretan ere. Lantegi horretan, erne begiratu zitzaizen beste esparru eta erakunde batzuetan eginiko proposamenei ere, haiengandik ikasi eta, ahal zela, bateratsu joateko: UZEI, Elhuyar, EAEko

Lehen estilo liburua publikatu zenean, Euskaltzaindia artean hasi gabea zen bere arauak argitaratzen. Urte haietan aitzindari lana eta proposamen asko egin beharra egokitu zitzaion Egunkariari

eta Nafarroako administrazioa, hizkuntz ereduari eta idazkuntzari buruz eginiko gogoetak –batez ere, Juan Garziaren *Joskera lantegi* (1997) eta Ibon Sarasolaren *Euskara batuaren ajeak* (1997)–, euskal itzultzaile eta idazleen lanak, *Herria* astekaria, *Argia*, *Aizu*, EITB...

Batzuetan, batez ere terminologiaren aldera makurtzen ari ginenean, kontu handiz ibili behar izan genuen: batasunaren mesedetan aritzeak ezin zuen ahantzarazi kazetaritzako ezaugarrietara egokitu beharra, zeren terminologia, bere hotean, kaltegarria izan bailiteke egunkari jeneralista batean, zehaztasunerako ezinbestekoa ez bada. Honela zioen lehen estilo liburuak:

Dena den, hitz berezitu eta teknikoak erabiltzerakoan, kontuz, pentsatu lehenago ea esamoldea beste modu arruntago batez adieraz ote daitekeen. Adibidez, hiztegi batean ‘dotación’ bilatu eta ‘zuzkidura’ emango digu. ‘Suhiltzaileen zuzkidura berrituko dute Bilbon’ baino hobe da ‘suhiltzaileen hornikuntza’ edo ‘suhiltzaileen tresneria eta ibilgailuak’, edo antzerako zerbait.

Eta, batzuetan, ulergarritasuna ez baizik laburtzeko modukoa izatea gertatu zen funtsezkoa Egunkariak forma bat aukeratu eta beste bat baztertzeko. Esaterako, *Auzitegi Konstituzionala* erabiltzea erabaki zen, eta ez *Konstituzio Auzitegia*, tituluetan eta informazio elementu mugatuetan forma laburtua idatzi ahal izateko: *Konstituzionala*.

Guk asmatu nahiz besteri ikasirik, arian-arian iritsi ziztaizkigun Egunkariaren orrietara hainbat eta hainbat esapide: *diru bereziak* (*fondos reservados, caisse noir*), *aitzinetapa* (*etapa prólogo, prologue*), *telefonoa hartuta eduki* (*tener el teléfono pinchado*), *etxeratze dei* (*toque de queda, couvre-feu*), *izatezko bikotea* (*pareja de hecho, PACS*)... Egunkariaren zenbakiak, *Egunero*-renak eta *Berria*-renak batzen baditugu, hortxe dugu testu masa itzela, esamolde zahar eta berriz betea, euskal corpusen aberasgarri. Euskaltzaindiak, hiztegegileek eta hizkuntzalariek alor guztietako testuak behar dituzte hizkuntzaren egia lekukoen bitartez aztertu eta hura deskribatzen segitzeko, eta horretan Egunkariak eskuzabal jokatu zuen beti, bere

testuak eskura emanaz aztertu nahi zituenari, teknikoki egoki gordeak zituenez gero. Beste hainbeste egiten du *Berria*-k ere, eta hortxe daude haren ekarpenak, beste zenbaitenekin batera, Lexikoaren Behatokiaren Corpusean (Euskaltzaindia) eta Ereduzko Prosa Gaur corpusean (EHU), esaterako.

Munduko berri euskarara ekarri nahian, munduko izendegia izan da estilo liburuen atal finkoetako bat: hortxe bildu izan dira, argitaraturiko hiru bertsoetan, munduko estatu guztiak, kolonia nagusiak, estatus ia independenteko hainbat lurralde eta Europako nazio estatugabe garrantzitsuenak. Herrialde eta hiriburu izenak ez ezik, hizkuntza gutxituetako toponimoak ere behar bezalako begirunez tratatu ziren beti, hizkuntza hegemonikoen aldeko inertziei buru eginez, Euskaltzaindia horiek arautzeko lanari lotu baino lehen ere. Aurreneko urte haietan, estilo liburuan zerbait falta bazen, Elhuyarren *Munduko leku-izenak* zen guretzat erreferentziako lana. Munduko toponimoen euskal formen normalizazioan, Egunkariak lan handia egin zuen munduko leku izenak zabaltzen, nahiz eta jakin arrotzak irudituko zitzaizkiola bati baino gehiagori, eta euskara batuari artifizialkeria leporatzeko aitzakia eman ere bai: *Maroko*, eta ez *Marruekos*; *Eivissa*, eta ez *Ibiza*; *Sardinia*, eta ez *Cerdeña*...

Jakina denez, Koldo Mitxelenak 1968an aurkeztu zuen Arantzazuko txostena, eta Euskaltzaindiak 1994an ekin zion arauak eman eta argitaratzeari. Gaurko begiz ikusiz gero, harriarri irudituko zaio hainbati 90eko hamarraldian nolako gosea zegoen hartarako eskua zuenak oinarritzko kontu batzuk arautu zitzaizkan, baina ez da ahaztu behar kazetarientzat lan gogaikarria zela argitzen ibili behar izatea ea *bait gara* ala *baikara* idatzi behar zuten –eta halako beste hainbat *txikikeria* ezinbesteko–, erabat lotu beharrean elkarriketa bat prestatzeari, kronika bat idazteari edo erreportaje baterako dokumentazioa biltzeari.

Araugintzan aurrera egin eta *Hiztegi Batua* argitaratuz joan ahala –atalka eman baitzuten, harik eta 2000. urtean lehen pasaldiko hitzez osaturiko zerrenda kaleratu zuten arte–,

Egunkaria probaleku ederra izan zen egiaztatzeko Euskaltzaindiaren erabakiak egokiak ziren ala ez hiztegien eta arauen mundu estatistikotik kanpo. Irizpide haien berri zabaltzeko lan handia egin zuen euskarazko kazetak, testuetan akademiaren erabakiak aplikaturik batez ere, baina baita modu esplizituagoan ere, Patxi Petrirenak koordinaturiko *Orri debozinezkoa* atal gogoangarriaren bidez (1994-1995). Euskaltzaindiak gogai-

Araugintzan aurrera  
egin eta *Hiztegi  
Batua* argitaratuz  
joan ahala, Egunkaria  
probaleku ederra  
izan zen egiaztatzeko  
Euskaltzaindiaren  
erabakiak egokiak  
ziren ala ez

de gintuen irizpide gehien-gehienetan, eta batasunaren mesedetan jardun nahi genuen, kapritxo eta nahikeriarik gabe, baina egin genuen kritikarik ere, eta intsumisio batzuk, hala nola *Europa-ko Batasuna* erabiltzen segitzea, nahiz eta Euskaltzaindiak besterik erabaki (*Europar Batasuna*) ordurako guztiz nagusituriko formari ez ikusi eginez. Era berean, Egunkariaren probalekuak agerian utzi zuen zein zentzugabea zen, batzuetan, *Hiztegi Batua*-n

hobetsiriko formak modu sistematikoan erabiltzea kazetaritza testuetan; esaterako, zein desegokia zen *memento* erabiltzea mendebaldeko kolore nabarmena zuen testu batean, *gura* eta *barik* hitzekin batera, *Hiztegi Batua*-n hobetsirik zegoelako *momentu*-ren aldean, edo zein bitxia gertatzen zen *bertze* bazterturik *beste* idaztea beti, baita *erran* erabiltzen zen testuetan ere, hobespenei men eginez.

Estandarizazioaren eremu *azalekoetan* aurrera joan ahala –eta ez litzateke justua *eremu axalekoetan* esatea, denak behar baitira: gizakiarentzat ere azala da organorik handiena–, lehenbiziko estilo liburuen helburu estandarizatzailea samurtu egin zen, eta azkeneko argitaraldian modua izan genuen ordu arte gutxiago jorraturiko atal batzuk hobeto janzteko: batez ere, esaldiaren antolamendua eta puntuazioa. Idazkeraren zaina eta muina, gihar narratiboarekin batera.



Gero eta gauza gehiago datorkigu erabakirik gramatika eta hitzen kontuetan; gure erronka idazkera bizia, samurra eta aberatsa (ez korapilatsua) erdiestea da.

Eta horretan zebilela itxi zuten, tankan, Egunkaria.

## **Azken baina ez hutsen**

Bere onena ematen ari zela eman zioten azkena Egunkaria-ri. Jakina da ia hutsetik baina herritarren babes osoz hasi behar izan genuela ostera, baliabide materialei zegokienez. Ez, ordea, idazkera aldetik. Lantalde militante, profesional eta kementsu hark proiektuaren segidaren zerbitzuan jarri zuen hamahiru urtean bilduriko esperientzia guztia. Helburuetako bat: *itxiera* hitzaren maiztasuna erruz handitzea izan zedila bidegabekeria hark euskararen corpusean izaniko ondorio lakar baina bakarra. Eta, hala, *Egunero*-k eta *Berria*-k jaso zuten 2003ko otsailaren 20an eraitsirikoa.

*Berria* 2003ko ekainaren 21ean lanean hasi eta handik urtebetera ekin genion haren estilo liburua prestatzeari. Egunkariarena epailearen aginduz bahiturik zegoenez, guztiz bestelakoa egin behar zen, bertsio berrituak argitaratzeari utzirik, eta halaxe publikatu zen 2006an *Berria*-rena: premia bertute bihurtu, eta aurrekoen mamia jaso bai baina inoiz baino zabalago landu genuen kazetari estiloa, estandarizazioan emaniko aurrerapausoek bidea zabaltzen baitzuten horretarako, eta formatua aldatu genion, mapak ez ezik informazio gehiago ere eroso eman ahal izateko. 2013an jarri genuen beste mugarri bat: estilo liburua edozeinen esku Interneten, etengabe berriturik, kontsultak eta iradokizunak egiteko aukera eta guzti, sareko idazkerari buruzko atal berri batekin. Estilo liburua digitalizatzeko, funtsezkoa izan zen Pilar Mendibil eta Oskar Angulo Egunkariako beteranoen lana, biek ere garbi ikusi baitzuten hura ez zela lehenetsirik lanen zerrendan gerogarrenean atzeratzekoa.

Hogeita bost urteko hari honetan, asmakariak eta asmakariak izan dira, bideak eta desbideak, baina, hizkuntzen aldatu behar etengabe, euskal prentsa nazionala egunetik egunera

saiatu da euskara ahal den gutxiena baina behar den guztia aldatzen, irakurlearenganako errespetuz eta komunikazioaren zerbitzuan. Komunitate kontzeptua hainbeste aipatzen den honetan, inoiz baino argiago dago inurri eta auzo lana dela hizkuntza gutxitu bati estandar bat ematea. Horren emaitzak norberak gozatzekoak dira, eta idazteko teknika eta sormena uztartuz onduriko estilo pertsonalak bezain luze-zabalak. Lantegi horretan, Egunkariak 3.789 zenbaki eman zizkigun, baina konta ahala baino gehiago ale. 🍷

### **Oharrak**

1. Idazketa taldea: Koldo Izagirre, Beatriz Zabalondo, Jose Luis Aranguren *Txiliku*, Josu Landa, Patxi Petrirena, Xabier Mendiguren Elizegi eta Luis Fernandez.
2. Ikus-entzunezkoen hizkerari dagokionez, EITBk *Euskarazko albistegiatarako esku-liburua* argitaratu zuen 1992an bertan, bere hamargarren urteurrenean.
3. Idazketa taldeak: Patxi Petrirena eta Luis Fernandez 1995ekoan, eta Jaione Alberdi, Jose Luis Aranguren, Irene Arrarats, Arkaitz Goikoe-txea, Patxi Petrirena eta Beatriz Zabalondo 2001ekoan.

### **Bibliografia**

- Berria (2006). *Estilo liburua*. Andoain: Berria.  
– (2013). *Estilo liburua*. Andoain: Berria. [www.berria.eus/estiloliburua](http://www.berria.eus/estiloliburua)  
Euskaldunon Egunkaria (1991). *Estilo liburua*. Argitaragabea.  
– (1992). *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria bilduma, 1.  
– (1995). *Estilo liburua*. Andoain: Egunkaria bilduma, 3.  
– (2001). *Estilo liburua*. Andoain: Egunkaria bilduma, 9.  
Villasante, Luis (1988). *Euskararen auziaz*. Oñati: Eleizalde bilduma.  
Zuazo, Koldo (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Zarautz: Alberdania.

# Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta

Patxi Juaristi

*UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea eta Jakin Taldeko kidea*

Sindikatuak, gobernuz kanpoko erakundeak, irabazi asmorik gabeko elkarteak, gizarte mugimenduek, presio taldeak, iritzi edota interes taldeak, erlijio komunitateak, fundazioak, hau da, herritar antolatuek osatzen dute gizarte zibila, eta helburu batzuk lortzeko edota aginte politiko eta ekonomikoei eskaerak helarazteko estrategia desberdinak erabiltzen dituzte: harreman zuzenak izaten dituzte politikari eta enpresariekin, kontzientziatze, propaganda eta diru-bilketa kanpainak bultzatzen, mobilizazio, agerraldi eta aldarrikapen publikoak egiten, ikastaroak, hitzaldiak edo mintegiak antolatzen edota material pedagogikoa sortzen.<sup>1</sup>

Gramscik zioenez (1973), botere politikorik ez dutenen borondatea gauzaten den eta konbentzimendua antolatzen den tokia da gizarte zibila; edo, Habermasen hitzetan (2010), elkarte baten interesak eta nahiak agertzen diren eta bertute zibikoa gauzaten den esparrua. Azken horren ustez, gizarte zibila elkartasunean, kontsentsuetan eta partekatutako baliuetan oinarritzen da, eta iritzi publikoaren inguruan sortzen diren komunikazio sareek ematen diote kontsistentzia.

Gizarte zibil eraginkorra lortzeko, gutxieneko baldintza politikoak behar dira: diktadura egoeretan edo demokrazia

ahuletan herritarrek zailtasun gehiago izaten dituzte antolatzeko eta aginte politiko eta ekonomikoetan eragiteko.

Herritarren artean dagoen aniztasunak, bestalde, gizarte zibilak zatitzeko gaitasuna du. Alegia, estatu edo gizarte bat zenbat eta askotarikoagoa izan kulturaren, hizkuntzaren, identitatearen edo gizarte klaseen ikuspuntutik, helburu desberdinak dituzten talde antolatu bereziak agertzeko arrisku handiagoa dago. Eta horrek gizarte zibil desberdinak ekartzen ditu, lehian egon daitezkeenak (muturreko kasuetan gerra zibilean bukatzen dutenak) edo kooperazio harremanak izan ditzaketenak.

Gizarte zibilak ez dira estatikoak, aldatzen ari dira etengabe. Ekintza kolektiboa testuinguru ekonomikoa, politikoa edota soziala aldatzen den neurri berean aldatzen da; hain zuzen ere, gizarteko taldeek antolaketa eredu edo gaitasuna aldatzen dutelako, horien eskuetan dauden baliabideak handitzen edo gutxitzen direlako edota, besterik gabe, interes batzuk desagertzen direlako eta berriak sortzen.

## **60ko hamarkada: euskal gizarte euskaltzalearen hastapenak**

Francoren diktadurak toki gutxi uzten zuen gizarte zibila garatzeko, eta are gutxiago euskal identitatearen alde modu antolatuan lan egiteko. Gerratean ihes egin gabe gelditu ziren eragile euskaltzaleak bigarren mailako herritar bihurtu ziren, eta gizarte zibil euskaltzalea desegituratuta. Francok erroitik ezabatu zituen II. Errepublika garaian eman zituzten pausoak, eta euskal pizkundearen sua itzali egin zen (Atxaga, 1998: 53-55).

Hala ere, erregimenak zituen zirrikituak aprobetxatuz, gizarte eragile euskaltzaleek antolatzeko eta euskararen eta euskal kulturaren alde gauzak egiteko gogoia agertu zuten 50eko hamarkadaren bukaeran eta, bereziki, 60ko hamarkadan zehar; eta horrek euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimendu soziopolitiko antolatuak ekarri zituen: gizarte zibil euskaltzalea eratzen hasi zen.

Gizarte zibil euskaltzalearen lehenengotariko emaitza ikastolak izan ziren. Hain zuzen, 60ko hamarkadan, zentsuran eta errepresioan oinarritzen ziren agintariekin hainbat estrategia erabiliz (gurasoak kontrentzitu, Elizaren konplizitate bilatuz, baimenak lortzeko agintariekin bilerak eginez, dirua bilduz...), gizarte-ekimenak hainbat ikastola zabaltzea lortu zuen, eta, urte gutxian, ikastolak eta horietara hurbiltzen ziren ikasleak ugaritzen hasi ziren. Datu bat ematearren: 1964. urtean 596 ikasle zituzten ikastolek, eta 1970ean 8.255 (Euskaltzaindia, 2010).

Herri-ekimenari esker, euskal kulturako beste arlo batzuk ere antolatzen eta berpizten hasi ziren 50eko hamarkadaren bukaeran eta, bereziki, 60koan zehar: 1958. urtean, Euskaltzaindiak Bizkaiko Bertsolari Txapelketa antolatu zuen; 1960an, antzerkira joera modernoak ekarri zituen Jarrai antzerki taldea sortu zen; 1963an, bertsolariak lehen aldiz elkartu ziren Markina-Xemeinen (Baraiazarra, 2009: 444-447); eta, 1965ean, Gerediaga Elkarteak Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu zuen.

Euskal kantagintza berria ere testuinguru soziopolitiko honetan sortu zen. Aipagarria da 1965. urtean Ez Dok Amairu taldea hasi zela kantaldiak eskaintzen.

Euskaraz alfabetatzeko eta euskalduntzeko lehen taldeak ere garai honetakoak dira. 1965. urtean, Euskaltzaindiaren babesari eta Rikardo Arregiren lanari esker, ikasleen lehen taldeak agertu ziren, eta hortik abiatuta euskara ikasteko gau-eskolak Euskal Herri osoan zabaldu ziren.

60ko hamarkadan euskal dantza talde ugari ere sortu ziren, eta, 1965. urtean, Euskal Dantzarien Biltzarra sortu zen. Hasiaran, erakundea Iparraldean bakarrik legeztatu bazen ere, 1969an Euskal Herriko erakunde bihurtu zen.

Francoren erregimenaren zirrikituak aprobeztatuz, gizarte eragile euskaltzaleek antolatzeko eta euskal kulturaren alde gauzak egiteko gogoia agertu zuten 60ko hamarkadan

60ko hamarkada sasoi nahasia izan zen Euskal Herriaren-tzat (ETAren lehen atentatuak 1961ean, Melitón Manzanasen hilketa 1968an, ETAren VI. Biltzarra eta Burgosko Epaiketa 1970ean), baina baita sortzailea ere. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko herritarrak antolatzen hasi ziren, eta gizarte zibil orokorraren baitan gizarte zibil euskaltzalea eratu zen.

## **Euskal kulturaren aldeko gizarte zibila sendotzen 70 eta 80ko hamarkadetan**

Franco hil ostean (1975), baikortasun giroa lehertu zen euskal gizartean, eta interes desberdinen inguruan talde antolatu berriak agertu ziren: zentral nuklearren kontrako batzordeak, kultur elkarteak, amnistiaren aldeko taldeak, alderdi politiko berriak (EHAS, HB, Batzarre, EMK, LKI, ESB...), *Bai Euskara-ri* ekimena, ikastola berriak... Abagunea aprobeztatuz, gizarte zibil euskaltzalea hobeto antolatu zen, eta horrek eragin baikorra izan zuen euskararen eta euskal kulturaren indartzean.

Herritarren antolaketei esker, kantautoreen eta rock eta folk banden kontzertuak ugaritu egin ziren 70eko hamarkadaren bigarren erdian eta 80ko hamarkadan zehar, eta kantari gehiagok profesionalizatzea lortu zuten.

Lehen bertso eskolak ere garai horretan ernamuindu ziren. Lehen 1974an sortu zen, Aretxabaletako Almen ikastolan, eta bigarrena Markina-Xemeinen, 1977an. Hemendik aurrera bertso eskolak eta bertsoen zaleak ugaritu ziren, eta 1987an Bertsolari Elkarteak sortu zen. Horrek guztiak bertsolaritza giro urbanora ekartzea eta bertso saioak ugaritzea ekarri zuen.

Euskarazko aldizkari berriak ere agertu ziren, edota aurretik zeudenak zentsurari aurre egin eta eraberrituta agertu ziren. 1977. urtean, Jakin aldizkaria berriro kaleratu zen, hamaika urteko zentsura jasan ostean. 1980an, kaputxinoen *Zeruko Argia* langileen eskuetan gelditu zen, eta eraberrituta agertu zen *Argia* izenarekin.

80ko hamarkadan, bestalde, gaur egun kanonizatuta dauden hainbat idazle literatur aldizkariaren inguruan elkartzen

(*Ustela, Pott, Oh! Euzkadi...*), euskarazko idazkuntzaren inguruan gogoetak egiten eta liburuak idazten aritu ziren. Euskal Idazleen Elkarte (1982) eta Euskal Editoreen Elkarte (1984) 80ko hamarkadaren hasieran sortu ziren.

Franco hil zenean, euskal kulturak diru gutxi zuen eta ahultasunak eta hutsuneak amaigabeak ziren, baina gizarte zibil euskaltzalearen baitan bizi zen giro positiboak talde antolatu berrien sorrera bultzatu zuen. Paulo Agirrebaltzategik zioen bezala:

Hego Euskal Herrian gertakari erabakigarriak izan ziren 1975eko azaroaren 20ko hura eta ondoko urteetako aldaketa politiko-sozialak, orduan sortu edo suspertu ziren edonolako mugimendu sozialentzat; euskalgintzan eta euskal kulturgintzan ere indar sozial berriak askatu ziren orduan, eta ordurarteko euskararen aldeko talde, elkarte eta erakundeei perspektiba berriak ireki zitzaizkien beren ekimenerako: batez ere euskalgintzako sail ezberdinetako erakundeak hobeto koordinatzeko eta beren lana luzarogoko planen barruan antolatzeko, eta horrekin batera euskararen aldeko gizarte-mugimendu zabala –eta mobilizazioa– eratu edo bizkortzeko (Agirrebaltzategi, 1983: 56).

70eko hamarkadako bigarren erdian eta 80ko hamarkadan zehar, gizarte zibil euskaltzaleak hobeto antolatzea eta saretzea lortu zuen, eta horrekin baita aginte politikoetan eragiteko gaitasun handiagoa ere. Horren adibideetariko bat da Euskal Kulturaren Batzarrea sortu zela 1983an, euskalgintzako erakundeak koordinatu eta biltzeko helburuarekin.

## **Egunkaria sortzeko lehen bilera 1989ko azaroan**

Testuinguru horretan sortu zen *Euskaldunon Egunkaria* 1990eko abenduaren 6an.

Abiapuntua *Zeruko Argia* 1980an *Argia* aldizkarian eraldatu zuten kazetari batzuen eskuetan egon zen. Hain zuzen ere, aldizkarian trebatutako Iñaki Uria, Joxemi Zumalabe, Josu Landa eta Pello Zubiriak aspalditik aldarrikapen zutena gauzatzea erabaki zuten 1980ko hamarkadaren azkenetan,

eta, egitasmoa ahal zen jende gehienarengana zabaltzeko helburuarekin, laguntza eskatu zioten Euskal Kulturaren Batzarreari (EKB). Horrela, EKBk egunkaria sortzeko lehengo bilera deitu zuen 1989ko azaroaren leian, Donostian, Joxemiel Barandiaran lizeoan (Maruri, 2015).

Lehen harreman horren ostean, Durangoko Azokan egunkariaren ezaugarri nagusiak zehaztu ziren: euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, independentea, ez instituzionala, diru laguntzek lagundua, militantea, profesionala eta berria.

1989ko Durangoko  
Azokan ezaugarri  
nagusiak zehaztu  
ziren: euskaltzalea,  
nazionala, baterakoia,  
zabala, independentea,  
ez instituzionala,  
diru laguntzek  
lagundua, militantea,  
profesionala eta berria

Egitasmoaren izaera baterakoia (euskalgintzan dauden sektore guztiak bat egiteko modukoa), independentea (alderdiekiko, erakunde publikoekiko eta erdarazko beste medioekiko) eta zabala (euskaldun irakurle guztiengana iristeko modukoa) bermatuz, gizarte zibilarekiko lotura ziurtatu nahi zuten hasieratik. Arrazoi politikoengatik banatua zegoen gizarte hartan, euskaltzaleak bilduko zituzten balioak azpimarratu zituzten, beldurrak eta susmo txarrak uxatzeko asmoz.

## **Egunkaria Sortzen taldea**

Donostiako eta Durangoko lehen bilera haien ostean, 1990eko urtarrilaren 21ean, Donostiako Udalaren Euskal Txokoa, euskalgintzako 75 lagun elkartu ziren, eta Egunkaria Sortzen ekimenari hasiera eman zioten. Talde eragile horretan jatorri, esparru eta izaera askotako jendea zegoen. Hainbat dira, baina merezi du horien izenak banan-banan irakurtzea: Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei, Julen Kartzada, Joseba Jaka, Joxe Azurmendi, Joxerra Garzia, Iñaki Zabaleta, Luis Nuñez, Jean Louis Davant, Jakes Bortairu, Nerea



Azurmendi, Xalbador Garmendia, Hasier Etxeberria, Imanol Murua Uria, Jon Basterra, Aingeru Epaltza, Jose Antonio Arana Martija, Alfontso Irigoien, Sagrario Aleman, Joxe Agustin Arrieta, Julia Berrojalbiz, Joxe Ramon Bilbao, Urtsa Errasti, Elene Lizarralde, Josu Landa, Xabier Arzelus, Inaki Irazabalbeitia, Jexux Mari Zalakain, Paulo Agirrebaltzategi, Jesus Mari Eizmendi, Baleren Bakaikoa, Eugenio Arraiza, Karmele Aierbe, Joxemari Ostolaza, Fernando Unsain, Iñaki Uria, Sabin Gaztañaga, Xabier Mendiguren Bereziartu, Pello Zubiria, Josu Muniozguren, Txema Auzmendi, Bernardo Atxaga, Joxemi Zumalabe, Andoni Sagarna, Pako Aristi, Koldo Izagirre, Iñaki Larrañaga, Joseba Intxausti, Daniel Landart, Edorta Kortadi, Fermin Lazkano, Henrie Duhau, Mikel Bujanda, Benito Lertxundi, Felipe Juaristi, Adolfo Arejita, Jon Lopategi, Patri Urkizu, Gexan Lantziri, Imanol Lazkano, Eusebio Osa, Roger Idiart, Juanjo Arkarazo, Joan Mari Lekuona, Anton Mari Aldekoa-Otalora, Jokin Aldazabal, Gotzon Garate, Pedro Ruiz Ulzurrun, Emile Larre, Luzien Etxezaharreta, Ramuntxo Kanblong, Luis Goia, Sebastian Lizaso eta Erramun Baxok.<sup>2</sup>

Izen zerrenda hori irakurrita, argi ikusten da euskal gizarte euskaltzalearen ordezkartza zabala bildu zela Egunkariaren inguruan. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko talde antolatuetako sortzaile, partaide eta eragileak ziren; 60ko hamarkadatik euskararen eta euskal kulturaren alde lanean ari ziren elkarre, enpresa, gizarte mugimendu eta erakundeetako kideak.

Pertsona horiek bilerak egin zituzten euskalgintzako eta kulturegintzako beste eragile batzuekin, alderdi politikoeekin, eta baita erakunde sindikal, sozial eta herrikoiekin ere; eta hori ezinbestekoa izan zen egitasmoa gizarteratzeko eta babesteko. Izan ere, ezin da ahantzi, politikoki hain banatua zegoen gizarte hartan, Eusko Jaurlaritzak ez zuela begi onez ikusi Egunkaria, eta egunkari publiko bat sortzeko asmoa agertu zuela.

Pertsona horiek materialak ez diren eta neurtzea zaila den beste baliabide batzuk ere eskaini zizkioten egitasmoari.

Eragile ezagunak eta prestigiodunak izanik, identitatea eman zioten Egunkariaren aldeko mugimenduari, eta

Egunkaria: gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta

horrekin gizarte zibil euskaltzalea errazago identifikatu ahal izan zen egitasmoarekin. Imanol Lazkanok, garai hartan Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko lehendakariak, zioen bezala:

Proiektuari zabaltasuna eman behar zitzaion, beharrezkoa zelako proiektua zabala izatea, eta Egunkaria Sortzeneko kide izatea proposatu zidatenean ez nuen dudarik egin baiezkoa emateko (Esnaola, 2003).

Pako Aristik ere antzeko zerbait esaten du: «ez neukan denbora askorik Egunkaria Sortzenen lan egiteko. Baina proiektuak halako babes soziala eta kulturala behar zuen, eta han izan ginen» (Esnaola, 2003).

Talde horretako pertsona batzuek, bestalde, gerra aurreko eta gerra osteko elkarte eta mugimendu euskaltzaleekin lotu zuten Egunkaria; besteak beste, II. Errepublikako Eusko Pizkundearekin, diasporako euskaltzaleekin eta 60ko eta 70eko hamarkadetako mugimendu euskaltzaleekin. Karlos Santamaria eta Martin Ugalde figura klabeak izan ziren horretan.

Hirugarrenik, Egunkariaren aldeko mugimenduaren eta euskalgintzako elkarte eta taldeen arteko loturak, harremanak edota zubiak eraiki zituzten.

Azkenik, legitimatu egin zuten Egunkaria. Euskara hutsezko egunkari baten bideragarritasuna zalantzan jartzen zen garaian, Egunkaria Sortzen taldeko kideek bere beharra, bideragarritasuna eta helburu hori lortzeko bideak legitimatu zituzten.

Horren guztiaren ondorioz, egunkariaren proiektua sare euskaltzaleetan kokatu zen, eta gizartera zabaldu. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko gizarte zibilak begi onez ikusi zuen proiektua.

## **Euskalgintzaren sareak Egunkariaren alde**

Identitatea, memoria historikoa, harremanak eta legitimazioa ezinbestekoak dira era honetako egitasmo bat aurrera eramateko; baina, horrekin batera, nahitaezkoa da gizarteko sareen agendan txertatzea. Alegia, helburuarekin bat egin

eta helburu hori lortzeko prozesuan lagunduko duten edota eragile izango diren talde antolatuak behar dira.

Horrela, 1990eko apiriletik maiatzaren 15era bitartean, Egunkaria Sortzen taldeko kideak egitasmoa herriz herri aurkezten aritu ziren.

Aurkezpen horien aurretik eta, batez ere, ostean, 143 herritan 185 elkarte sortu ziren Euskal Herrian barrena. Guztira 3.000 bat lagun aritu zen lanean Egunkaria ezagutzera ematen eta dirua biltzen. Batzordeak sortzen eta bultzatzen bost pertsona aritu ziren, Jose Jabier Iñigok koordinatuta. Kanpaina osoaren arduraduna Iñaki Uria izan zen.

Ikerketa zehatzak egin gabe badaude ere, badirudi batzordeok euskaltegien, kultur elkarteen eta euskararen aldeko taldeen inguruan mugitzen zen jendearekin elikatu zirela nagusiki. Josu Esnalek, garai hartan Egunkariaren aldeko kanpainaren Gipuzkoako arduradunak, gogoratzen duenez:

Herrietara deitzen genuen. Udaletako jendearekin hitz egiten genuen, AEK-koekin, euskara taldeetakoekin... Telefono bidezko lehen harreman horren ostean, bilera bat antolatzen genuen herrian bertan, batzordea martxan jartzeko (Maruri, 2015).

Beste kasu batzuetan, Euskal Herrian Euskaraz-ek edo EKBk euren kideak bultzatzen zituzten batzordeak sortzera. Aitor Larrañagak gogoratzen zuenez, Azpeitian, EHetik etorri zen deia: «Gu EHEn ibiltzen ginen eta handik etorri zen herrietan taldeak sortzeko mezua» (Elduaian, 2003).

Egitasmoak euskalgintzaren erdiko guneetatik kanpo zuden pertsonak ere erakarri zituen. Horrela, unibertitateen, kirol taldeen, enpresa komiteen eta sindikatuen inguruan ere sortu ziren batzordeak.

143 herritan 185 elkarte sortu ziren Euskal Herrian barrena. Guztira 3.000 bat lagun aritu ziren lanean Egunkaria ezagutzera ematen eta dirua biltzen

## **Diru bilketa militantea, herrikoia eta ideologiaz haraindikoa**

Gramscik eta Habermasek diotenez, borondatea, konbentzi-  
mendua, nahia, elkartasuna, kontsentsua eta partekatutako  
balioak ezinbestekoak dira gizarte zibil eraginkorra eratzeko.  
Dena dela, gizarte zibila osatzen duten taldeek gutxieneko  
baliabide materialak ere behar dituzte euren helburuak lortzeko.  
Horrela, Egunkaria Sortzen taldearen lehenengotarikoa  
diru-bilketa antolatzea izan zen. Hain zuzen ere,  
egitasmoa herriz herri aurkeztu ostean, 1990eko maiatzaren  
15ean, Egunkaria sortzeko diru-bilketa kanpaina hasi zen.  
Horretarako, bide desberdinak erabili ziren.

Batzuetan, herrietako batzordeek Egunkariaren Aldeko  
Eguna edo jaia antolatzen zuten, eta kamisetak, biserak eta  
itsasgarriak saltzen zituzten. Horrez gain, komertzio, ta-  
berna, enpresa eta erakundeetara ere joaten ziren, eta, jai  
egunean bertan, diru emaileen iragarkiak orri erraldoietan  
txertatzen zituzten, herriko albisteekin batera. Josu Esnalek  
gogoratzen duenez:

Furgoneta bat genuen azpiegitura moduan. Herriz herri joaten  
ginen, eta bakoitzean festa bat egiten genuen. Guk egunkari  
baten azal erraldoi bat eramaten genuen, zuriz. Eta herriko jendeak  
nahi zituen albisteak idazten zituen. Azpian herriko negozioen  
publizitatea jartzen zen (Maruri, 2015).

Edozelan ere, dirua lortzeko bide emankorra bonoen  
eta akzioen salmenta izan zen: 30 euroko (garaian 5.000  
pezeta) bonoak merkaturatu ziren, eta akzionista izan nahi  
zutenentzat 3.000 euroko (500.000 pezeta) akzioak. Maximo  
Aierbek eta Sebastian Lizasok, adibidez, lan handia egin zu-  
ten enpresetan eta erakundeetan (bereziki udaletan) dirua  
biltzen. Lizasok zioen bezala:

Garai beltz haietan herri batzordeek, eta baita enpresatako ko-  
miteek eta sindikatuek ere, asko lagundu zuten dirua biltzeko or-  
duan. Beste lagun batzuk, batik bat enpresetan eta udaletan ibili  
ginen (Esnaola, 2003).

Guztira, 90.000 euskal herritar inguru inplikatu zen diru-bilketan, eta egitasmoak 300.000 euro (50 milioi pezeta) bildu zituen. Diru-bilketa kanpaina bukatzeko, jai erraldoia egin zen Anoetako belodromoan, 1990eko uztailaren 15ean.

Bildutako diru kopuruari eta horretarako erabilitako denborari begiratuta, esan beharrik ere ez dago diru-bilketa arrakastatsua izan zela; baina, horrekin batera, argi utzi behar da lan zaila izan zela. Arestian esan bezala, Eusko Jaurlaritzak ez zuen begi onez ikusi Egunkaria, eta beste egitasmo bat jarri zuen mahai gainean; eta horrek diru-bilketa oztopatu zuen, bereziki udaletan. Iñaki Uriak zioen bezala: «Azkenean, eze-rezean geratu zen guztia, baina gure ekimenari min handia egin zion. Batez ere, dirua biltzeko orduan zailtasunak sortu zizkigun» (Maruri, 2015). Lizasok ere antzera hitz egiten du:

Udaletan dirua biltzea oso-oso zaila zegoen, goitik agindu hau zutelako: 'Guk beste egunkari bat sortuko dugu. Aurretik *Egunkaria* izenarekin beste bat jaiotzen bada, sei hilabete baino gehiago ez du iraungo, zuzendaritzan badakigu zein izango diren...' Beraz, mantxadun famarekin sortu zen *Egunkaria*. Baina diru dezente bildu zen (Esnaola, 2003).

Oztopo politikoez gain, aipatzekoa da krisi ekonomikoa eta langabezia nabariak zirela, eta garai berean beste diru-bilketa batzuk ere martxan zeudela. Iñaki Uriak zioen bezala: «Nik garai bertsuan beste hamahiru bilketa zenbatu nituen. Presoen aldekoa zela, ekologistak zirela... Dena zen diru eskea» (Maruri, 2015).

Testuingurua eta baldintzak ikusita, Egunkariaren aldeko diru-bilketak hiru berezitasun nagusi izan zituen: militantea, herrikoia eta ideologiaren gainekoa izan zen.

Diru-bilketa militantea izan zela diogu, horretan aritu zirenek baldintza ekonomiko eta politiko zailetan lan egin behar izan zutelako. Eusko Jaurlaritzatik eta udal askotatik aurkako jarrera adierazten zen garai hartan, ez zen erraza komertzio, taberna eta erakundeetatik dirua lortzea.

Bestetik, diru-bilketa herrikoia izan zen, jende askok eta era askotakoak parte hartu zuelako. Aipatzekoa da herrien

artean apustuak egiten zituztela nork diru gehiago bildu. Oihana Elduaienek idatzi bezala:

'Zarautzen baietz Azpeitian baino gehiago!'. Horrela ibili ziren Egunkaria Sortzen elkartekoak *Euskaldunon Egunkaria* martxan jartzeko diru bilketa egiten ari zirenean. Herriz herri erronkak botatzen zizkioten elkarri, eta jakin bazekiten herri bakoitzean zenbat diru ari ziren biltzen (Elduaien, 2003).

Ezker abertzalekoen  
pisua nabaria izan  
bazen ere, ideologia  
desberdineko  
euskaltzale eta  
abertzaleek babestu  
zuten Egunkariaren  
egitasmoa

Azkenik, ideologiaren gainetik egon zela esan daiteke. Ezker abertzalekoen pisua nabaria izan bazen ere, ideologia desberdineko euskaltzale eta abertzaleek babestu zuten egitasmoa. Joseba Bazterrak, Santutxuko (Bilbo) batzordekoak, gogoratzeko zenez: «Auzo osoak parte hartu zuen, adin eta baldintza guztietako jendeak». Akorduan du Santutxuko ikastola zatitu be-

rrri zegoela, eta bi ikastoletako kideak erakartzen ahalegin-  
du zirela: Karmelokoak eta Kirikiñokoak. «Ez genuen inor  
kanpoan utzi nahi. Pentsaera guztiak elkartu nahi genituen»  
(Maruri, 2015).

Diru-bilketa arrakastatsu horren ostean, 1990. urteko aben-  
duaren 6an, Egunkariaren lehen zenbakia kaleratu zen. Ad-  
ministrazio Kontseiluan, Martin Ugalde lehendakaria zen,  
Joxemi Zumalabe kontseilari ordezkaria eta Joan Mari To-  
rrealdeai Kontseilu Editorialeko presidentea, Pello Zubiria  
zuzendaria eta Iñaki Uribe zuzendariordea.

## Ondorioak

Egunkariak oztopo asko zituen abiapuntuan: euskaltzaleen  
banaketa politikoa, Eusko Jaurlaritzaren egunkari egitasmoa,  
krisi ekonomikoa, euskarazko egunkari baten bideragarritasunari  
buruzko zalantza... Edozelan ere, lehen bilera egiten

eta urte bat eta hilabetera jaio zen Egunkaria; denbora errekorrean. Nola azaldu arrakasta hori?

Hasteko, kontuan hartu behar dugu Egunkaria ez zela hutsan sortu. 60ko hamarkadatik lanean ari ziren azpiegitura, antolaketa, ekimen eta eragileengan oinarritu zen: euskarazko aldizkariak, Durangoko Azoka, euskal kantagintza, bertsolariak, idazleak, euskaltegiak, euskararen aldeko taldeak... Horiek guztiek euskal kulturaren eta euskararen aldeko partekatutako identitatea eraiki zuten, egunkariaren aldeko ekintza kolektiboa aktibatuzko tresna baliagarria izan zena.

Bigarrenik, kontuan hartu behar dugu egitasmoaren izaera baterakoia, independentea eta zabala azpimarratu zela hasieratik. Balio kolektibista eta komunitarista horiei esker, elkartasuna eta kontsentsua lortu ahal izan ziren Egunkariaren inguruan.

Hirugarrenik, Egunkaria Sortzen taldea oso heterogeneoa zen, eta prestigio askoko pertsonak osatzen zuten. Horrek egitasmoa babestu eta legitimatu zuen.

Azkenik, aipatzekoa da egunkariaren aldeko herri, erakunde eta lantegietan sortu ziren batzordeetan aritu zirenek, testuinguru politiko sozial, ekonomiko eta politiko zaila izanda ere, lan handia egin zutela; lan militantea, herrikoia eta ideologiaz haratago doana.

Izen eta abizena duten pertsona zehatzen inplikazioa eta lana ukatu gabe, Egunkaria 60ko hamarkadatik gorpuztuz joan zen gizarte zibil euskaltzalearen arrakasta izan zen; urteetan antolatuz, trebatuz eta saretuz joan ziren herritar antolatuen ekintza kolektiboaren emaitza. 🍷

### **Oharrak**

1. Eskerrik asko Joxe Jabier Iñigori, Egunkariaren sorreran bizi izan zuen esperientzia kontatzeagatik, eta baita artikulua hobetzeko hainbat iradokizun egiteagatik.
2. [www.berria.eus/albisteak/45586/egunkaria\\_sortzen\\_taldeko\\_75\\_kideak.htm](http://www.berria.eus/albisteak/45586/egunkaria_sortzen_taldeko_75_kideak.htm)

### **Bibliografia**

- Agirrebaltzategi, P. (1999): 'Euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren 25 urteok. EKBren ekarpena.' *Bat* 31, 55-73.
- Atxaga, M. (1998): *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza*. Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo.
- Baraiazarra, L. (2009): *Nire sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemeingo Udala, Markina-Xemein.
- Elduaen, O. (2003): 'Lan bera, beste jende bat 13 urtean.' *Uztarrria* 40.
- Esnaola, E. (2003): 'Hiru herritarren lekukotza zuzena sorreran.' *Uztarrria* 39.
- Euskaltzaindia (2010): *Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredua 1960-2010*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- Gramsci, A. (1973): *Cartas de la cárcel*. Nueva Visión, Buenos Aires.
- Habermas, J. (2010): *Facticidad y validez. Sobre el derecho y el Estado democrático de derecho en términos de teoría del discurso*. Trotta, Madril.
- Maruri, I. (2015): 'Irakurle izango zirenak, lehen albisteak idazten.' *Berria*, 2015-06-24.



# Atzerako ispiluan ageri dena

Aitor Zuberogoitia

*Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakaslea*

**M**ende laurdena jada *Euskaldunon Egunkaria* sortu zela. Futxo, bizkor doa gero denbora! Ondo gogoan dut oraindik zelan egon nintzen zain, hura estreinakoz noiz kaleratuko, miraz... Kazeta haren ekarriaz hausnarrean jarrita, modu inpresionista samarrean ekingo diot orain gogoetari, norbere biografia sentimentaletik abiatuta, eta, oroitzapenetatik lausoa kenduz eta bazterrak argituz joan ahala, gomuta eta inpresio pertsonal horiek paisaia zabalago batekin alderatzen saiatuko naiz hurrena.

## Euskal frontearen alde?

1980ko hamarraldi amaiera zen, ez dut urtea zehatz gogoratzen. Garai hartan (udagoien bueltan, oker ez banago) *Argia eguna* ospatu ohi zen (zenbait urtetako etenaren ostean *revival*-a bizi du berriro) eta Markina-Xemeingo AEK-koek laguntza-deia egin ziguten herri bereko Eup! irrati librearen inguruan bildu ohi ginen lagun batzuei: *Argia eguna*-ren kariaz diru-bilketa burutu behar zen eskualdeko herri guztietan, eta jendea behar zuten domekan kale-eskean jarduteko.

Heldu zen eguna eta, Felix Unamuno *Txelan* zenaren argibideei jarraiki, zintzo ekin genion beharrari, misiolari kartuen tankeran, eranskailu txikiak esku batean eta txanponak

biltzeko ontzitxoia bestean, apurka-apurka Xemeingo eta Karmengo mezetatik zetorren jendea gu geundeneko arkupe-aurre hartara hurreratzen zen bitartean. Bazkaltiar berantiarrenak etxera bidean jarri arte eutsi genion, tabernak hustu arte, eta biharamunean Txelanez pozez esan zigun geuk bildu genuela dirurik gehien eskualde guztian. Behingoagatik, markina-xemeindar epelek aurrea hartu zieten ondarrutar eta lekeitiarrei. Eta, hala ere, guk jasotako inpresioa izan zen, gurea (ezagutzari zegokionez behinik behin) oso herri euskalduna izan arren, euskal prentsarena oso errealtate ezezaguna zela jendearentzat. Eranskailua paparrean jarri eta «*Euskal prentsiari alde*» esaten genien aurrean harrapatzen genituen guztiei (hurbilpen-taktikarik egokiena ere ez zen izango ziurrenik) eta asko eta askok hori zer ote zen galdetzen ziguten. Gure hala moduzko azalpenak entzun eta gero, ez zen animo-eupadarik faltako, ezta konplizitate-irribarrerik ere, baina, horiez gain, batzuk esango zigun «*euskeraz bada alperrik zabize, nik eztaikitx euskeraz irakurten*», antzeko kontuak errepikatuko zizkigun gure ikastetxe berean eskola elebidunak jasotakoak, beste zenbait ihesi joango zitzaizkigun hura aldarrikapen politikoren bat zelakoan, indiferentzia erakutsiko zuten beste batzuek... Gizon nagusi batek Ander Lipus aktore eta lagunari emaniko erantzuna geratu zitzaidan niri gogoan: «*Euskal frontian alde? Ez, bakie biher juau, bakie...*». Izan zitekeen garai bertsuan estreinaturiko *Ama begira zazu* antzezlan arrakastatsutik ateratako esketx bat, beste barik, baina gehiago zeukan Laboaren *Komunikazioa-Inkomunikazioa*-tik: euskarazko prentsa arrotz, exotiko zen oraindik bere herrian.

## **Egunkariarentzako lurra prestatzen**

Arroztasun hori gainditu eta euskarazko prentsa (sortzeaz zen egunkaria, zehatzagoak izateko) inguruetan ezagutarazte aldera, Egunkaria Sortzen plataformak beharrean jarri zituen zenbait lagun kazeta kaleratu baino hilabete batzuk lehenago. Pedro nire anaia eta Willy Ugaldea izan ziren horietako bi.

Pedrok diostanez, 1990eko irailaren 19an elkartu ziren Egunkaria Sortzeneko bultzatzaileekin azken horiek Bilbo-ko Zabalburu plazaren inguruan zeukaten bulegotxo batean. Lan-proposamena xumea bazen ere (Lea-Artibai eskualdean Egunkariaren harpidedunak egitea komisio txiki baten truke), sekulako ilusioarekin heldu ei zioten lanari. Nondik zetorkien, baina, ilusio erraldoi hura?

Batetik, bistan da, orduan geneukan sasotik, artean gazte eta berde ginen eta; bestetik, euskalduntasun berreskuratutik, biok lortu berri baikeneukan umetako euskara ia galdua geure eguneroko komunikazio-tresna bilakatzea. Indar hori erregai nagusi genuela, geure automobil zaharrak hartu eta eskualdeko hainbat etxe, taberna eta txokotaraino hurbildu ginen udazken gozo hartan (Pedro Zuberogoitia; komunikazio pertsonala, 2015eko urriak 15).

Zer sumatu zuten bazterretan? Euskal Herriko eskualderik euskaldunenean, jendeak bazekien egunkaria sortzear zela? Bazen eurenaren pareko ilusiorik Lea-Artibain? Zelako emaitzak jaso zituzten?

Emaitzak ez ziren ikusgarriak izan, ezta hurrik eman ere: Markina-Xemeingo Kale Okerreko taberna batzuk (horixe zen gure ingurune naturala), AEKn zebiltzan lagun eta ezagunak, Ondarroa eta Lekeitioko zenbait denda, gure bailaretako errepide-bazter eta bidegurutzetako jatetxeren batzuk... Uzta apala edo zelan ere, baina gu geu behinik behin ase gintuena. Bagenekien jendea nekez ohituko zela goizeroko kafesnearekin batera euskarazko berriak irenstera, baina hazia ereinda zegoen eta lorpen txiki batzuk berehala etorri ziren: adinean aurrera zihoazen ama eta aita (euskaraz alfabetatu bakoak biak ere) goizero Egunkaria

Bagenekien jendea nekez ohituko zela goizeroko kafesnearekin batera euskarazko berriak irenstera, baina hazia ereinda zegoen eta lorpen txiki batzuk berehala etorri ziren

irakurtzen ikustea ez zen izan txikiena, ez horixe (Pedro Zuberogoitia; komunikazio pertsonala, 2015eko urriak 15).

## **Leiho zabalagoak**

Anaia zeregin horietan aritu eta gutxira, 1993an, Egunkarian bekadun modura sartzeko hautaprobak egin ziren EHUren Leioako campusean. Bazen urtebete ni *Argia*-ren Bilboko kolaboratzaile-taldean nabilela eta abantaila txikia neukan alde horretatik: garai hartan *Argia* eta Egunkariak bulegoa partekatzen zuten Barroeta Aldamar kalean, hango kazetariak eta bertako lan egiteko modua apur bat ezagutzen nituen, Euskal Herriaz idazterakoan zerabiltzaten irizpideak eta erreferentzia-sistemak ere barneratuak nituen... Kontua da hautaproba hura gainditu egin nuela eta udaberri bueltan lau lagun joan ginela Lasarte-Oriako egoitzara astebeteko ikastaro trinko bat jasotzera. Horren ostean, Aste Santuan ordezkapen batzuk egin nituen, udan hiru hilabeteko bekaldea Bilboko egoitzan, eta hurrengo urteko (1994) otsailan kontratatuta hasi nintzen beharrean Lasarte-Oriako erredakzioan. Orduko kontuez pentsatzen jarrita, hango beharginen arteko giro ona edota lanean hasi baino lehen jokatzeko genituen saskibaloio edo futbol partidak datozkit akordura. Gogoan dut, halaber, likidezia arazoak tarteko, estreinako hilabeteetan nomina beti berandu kobratzen genuela (horrek ez zuen zapuzten ordea gure ilusioa), eta ezin ahaztu leihorik gabeko soto hartan udan pasatzen genuen beroa ere...

Joseba Arregiren blokeo-garaiak ziren, baina Arregiren Jaurlaritzako Kultura Sailaren agintaldiaren amaiera aldera (1994an bertan), Juan Mari Mendizabal AEK-ko ordezkariak eta Arregirik berak AEK eta HABEren arteko akordio historikoa sinatu zuten Bilbon, eta urte berean Jaurlaritzak estreinakoz 70 milioi pezeta eman zizkion Egunkariari. Apurka-apurka, produktua bera ere gizentzen hazi zen, orri-kopurua handitzen, kolorea ere iritsi zen eta Lasarte-Oriako lubakietatik

irten eta Andoaingo leiho zabaldu egoitzara lekualdatzeko abagunea heldu zitzaion euskarazko egunerokoari.

Garapen-urteak ziren: 1995ean, berbarako, zenbakiko 12.000 ale baino gehiago saltzera ailegatu zen Egunkaria. Markina-Xemeinen bertan ere ezagun zen produktua apurka-apurka herrian zabaltzen hasia zela, edo hori begitantzen zitzaidan behintzat niri, asteburuan bertara itzultzean idatzitakoaren gaineko iruzkinak geroz eta ugariagoak izaten ziren eta.

## **Datu objektiboak eta pertzepzio subjektibo gehiago**

Euskarazko Wikipediak jaso duen moduan,<sup>1</sup> hurrengo urteetan ere eutsi zitzaion hazkunde-joera horri: 1999an, esate baterako, eguneroko orriez gain gehigarriak ere ematen hasi ziren: *Unibertsitatea*, *Barkatu Ama*, *Mundu Mira*, *Begira*, *Xingola*, *Kazeta*, *Nafarkaria* eta *Bizkaia* gehigarriak, hain justu. Ordurako 64 orrialde zituen egunkariak eta ia 14.000 ale saltzen zituen. Gorakadaren adierazle zen, era berean, 1998tik 1999ra bitartean salmentak ia %6 hazi izana.

2003an, berriz, egunean 70 orrialde zeuzkan batez beste, zenbakiko ia 15.000 aleko salmentak, 44.000 irakurle eta geroz eta bisita gehiago izaten zituen webgunea. Datu objektiboak dira horiek, baina plano subjektiboago batera itzulita ere berretsi ahal izan nuen hazkundearen egitate hori 2003an zein 2004an: Guardia Zibilak 2003an Egunkaria indarrez zarratu eta hilabetera irakurri nuen doktorego-tesia Leioan, eta bertan euskarazko komunikazio-esparru autozentratua indartzearen alde egin nuenez, handik gutxira Getxotik eta Markina-Xemeindik deitu zidaten Egunkariaren itxieraren harira antolatutako ekitaldi banatan parte hartzera. Getxokoa Maddalen Iriartek bideraturiko mahai-ingurua izan zen, eta Pedro Garcia Larraganek, Martxelo Otamendik eta hirurok hartu genuen parte, jende ugari genuela entzule. Markina-Xemeinen, berriz, Iñigo Bilbao Egunkariako kazetaria

eta biok izan ginen berbetan, eta orduan ere lagun dezente hurreratu zen berbaldira.

Egoera berezia zen hura, noski: jende askoren elkartasun-uholdea eragin zuen Egunkariaren itxierak eta testuinguru horretan ulertu behar da bi ekitaldiotara jende asko joan izana. Alabaina, urte eta erdi geroago, 2004ko azaroan, *shock* egoera hura apur bat hoztuta ordurako, euskal prentsaren aldeko astea antolatu zuten Markina-Xemeinen, eta Martxelo Otamendi, Karmelo Landa, Miren Lore Bengoetxea *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*-ren zuzendaria eta laurok bildu gintuzten mahai-inguru batean. Udagoien beranduko astegun buruzuria izanagatik, jende dezente bildu zen orduan ere, eta berba asko egin zen euskararen oinarritutako komunikazio-sistema propio baten beharraz; hori ikusirik, begitandu zitzaidan euskarazko komunikabideak (Lea-Artibaiko *Gaeltacht* hartan gutxienez) apurka-apurka erreferentzialtasuna irabazten ari zirela, erabat bazterreko izateari utzita.

## **Egunkaria eta garaiko euskarazko hedabideen mapa**

Ez dira txantxetakoak arestian aipaturiko zifrak: zenbaki-ko ia 15.000 aleko salmentak, 44.000 irakurle, zarratu-bezperatan egunero-egunero (astelehenetan salbu) 70 orrialde

Ez dira txantxetakoak  
2003ko zifrak:  
egunero ia 15.000  
aleko salmentak,  
44.000 irakurle, 70  
orrialde inguru Euskal  
Herriaz eta munduaz  
informatzen...

inguru Euskal Herriaz eta munduaz informatzen... Euskal kazeta batek ordura arte sekula erdietsi gabeko zenbakiak ziren horiek.<sup>2</sup> Eta hala ere, Egunkariaren ekarpenak aztertzen hasita, begitanzten zait alderdi kuantitatiboak baino garrantzitsuagoak direla alderdi kualitatiboak. Hurrengo azpiatalean ekingo diot ekarpen kualitatibo horiek aletzeari, baina, hori baino lehen, komeni da

gogoratzea zein zen euskarazko kazeten panorama Egunkaria sortu zen garaian.

Horri gagozkiola, Zalakainek (1993: 68-70) jasota ditu Eusko Jaurlaritzak bere estreinako hiru legealdietan euskarazko aldizkariari emaniko diru-kopuruak:

- 1980tik 1983ra bitarteko legealdiari erreparatuz gero, epe horretan 17 aldizkarik jaso zituzten diru-laguntzak. Haatik, soilik 1983ko laguntzei begira jarrita, laguntza jaso zuten kazeten kopurua bederatzira murriztu zen, besteak ezarian-ezarian desagertzen ari ziren seinale (*Anaitasuna* eta *Oh! Euzkadi*-renak dira kasurik argienak, baina *Goiz-Argi*-k zein *Saski-Naski*-k ere, beste kasu esanguratsu bi aipatzearen, ez zuten asko gehiago iraungo...). Bederatzi horietan gehienak maiztasun murrizteko kazetak ziren; horietako bi umeentzako aldizkariak (*Kili-Kili* eta *Ipurbeltz*), beste bi euskara errazean/mailakatuan idatzitakoak (*Aizu!* eta *Zer*), kultura-gaiak jorratzen zituen orduan ere Jakin honek, literatura-kontuak *Susa*-k, erlijio-gaiak *Karmel*-ek eta *Jaunaren Deia*-k eta gaurkotasun-gaiak *Argia*-k. Zerrenda horretan ez agertuagatik, bestalde, ezin ahantzi Baionan astero-astero argitaratzen zuten *Herria*.
- Hurrengo legealdian (1984-1987) nabarmen hazi zen diru-laguntzaren bat jasotako euskarazko aldizkarien kopurua. Egin kontu 31 aldizkarik jaso zutela alde edo moldez laguntzaren bat epe horretan. Literatura-aldizkarien eztanda txikiak azaltzen du neurri batean gorakada hori, aurreko legealditik zetorren *Susa*-ri *Idatz&Mintz*, *Korrok*, *Literatur Gazeta*, *Porrot*, *Ttu-Ttua* eta *Txistu y Tamboliñ* batu baitzitzaizkion. Horietako asko desagertuta zeuden 1987rako, edo handik gutxira itzaliko ziren (esan dugu legealdian 31 aldizkarik jaso zituztela laguntzak, baina 1987ari soilik begiraturaz gero, hamalauk baino ez). Izan ere, literatura-aldizkarien kasuan ez ezik, gainerakoen kasuan ere aurreko legealdiko kontu berarekin egiten dugu topo: maiztasun urriko aldizkari amateurak ziren gehienak.

- 1988-1991 legealdiari erreparatuz gero, azkenik, eta aurreko lau urteetako aparraldiari beroarenak kenduta, diru-laguntzak jasotakoen artean 22 kazeta baino ez zeudela ikus dezakegu. Horien artean, gainera, fenomeno berri bezain garrantzitsu baten jaiotza atzeman zitekeen, estreinakoz ageri baitziren zerrendan tokiko informazioa ordainpeko kazetariekin jorratzen zuten lau aldizkari: *Arrasate Press* (Arrasate), *Ene bada!* (Legazpi), *Goierritarra* (Gipuzkoako Goierri) eta *Ttipi-Ttapa* (Baztan-Bidasoa, Bortziriak eta Malerreka).

Tokiko kazeten agerraldi hori garrantzitsua izan zela esan berri dut, besteak beste benetako iraultza kuantitatiboa ekarri zuelako: kazeta horien sustatzaileek, beraien formula berriarekin (doakotasuna, tokiko gai arinen aldeko hautua, lerratze ideologikoak saihesten zituen ildo editorial zabala eta euskara erraza), ordura arte euskarazko prentsara inolaz ere hurreratzen ez zen jende asko erakarri zuten. Arrietak (2005: 155-156) jaso duenez, paradigmatikoa da 1988ko abenduaren 2an jaiotako *Arrasate Press*-en kasua; hauek ziren garai hartan Arrasaten gehien zabaltzen ziren euskarazko aldizkariaren hedapen-datuak: *Ipurbeltz*-ek 148 ale zenbakiko, *Argia*-k 143, *Aizu!*-k 65, *Jakin*-ek 58 eta *Elhuyar*-ek 55. Zerikusirik ez eremu berean *Arrasate Press*-ek izan zuen zabalkundearekin: lehenengo zenbakia herriko 1.700 etxetan banatu zen, doan, eta 1990erako zenbakiko 7.000 ale banatzen ari ziren.<sup>3</sup>

Alkorta eta Zuberogoitiaren arabera (2009: 142), nabarmena izan zen *Arrasate Press*-ek eragindako domino-efektua. Horren erakusgarri da Elkoroberezibarrek (1992: 13) emaniko datua: 1992ko urtarrilerako, tokiko informazioa jorratzen zuten euskarazko 35 aldizkari zeuden Euskal Herrian, denek ere doakotasunaren eta zabalkunde masiboaren aldeko apustua egiten zutela.<sup>4</sup> Iraultza kuantitatiboaren oinarriak jarrita zeuden, beraz. Iraultza kualitatiboa, berriz, Egunkariak ekarri zuen garai horretan bertan. Iraultza horren alderdi batzuk deskribatuko ditut hurrengo ataletan.



## Euskara hautu politikoaren aurretik

Iraultza kualitatibo horren estreinako ezaugarria honako hau dela begitantzen zait: alderdi politikoaren interesak bigarren planoan utzita, euskaran ardazturiko egitasmo autonomoa garatu gura izana, hizkuntza-komunitate guztia trinkotzen eta egituratzen lagunduko zuen egitasmo autonomoa, euskarari zentraltasuna emango ziona. Egin kontu 1980ko hamarraldian (gaur egun bezala) lehia gogorra zegoela bi familia abertzale nagusien artean (abertzaletasun erakundezalea batetik eta marko autonomikoa onartzen ez zuena bestetik). Bi familia horietako bakoitzak bazeukan bere egunkaria (*Deia* batzuek eta *Egin* besteek), eta, 1980ko hamarraldi erdian eta Jaurlaritzaren diru-laguntza deialdi batek zabalduzako atea baliatuta, bakoitzak astean behin aterako zen euskarazko egunkari-itxurako kazeta bat kaleratzeari ekin zion: horrenbestez, 1986ko udagoienean jaio ziren nola *Eguna* hala *Hemen* (*Deia*-ren anaia txikia lehena, *Egin*-ena bigarrena).

Jaurlaritzaren deialdi hartatik kanpo geratu zen *Argia*-koek aurkezturiko proiektua (horri buruz gehiago in *Zalakain*, 1993: 56-61), baina proiektu horren atzean zeuden lagunak are indar handiagoz heldu zioten asmoari, eta, astean behin kaleratuko zen kazeta bat beharrean, goizero Euskal Herriko bazter guztietan zabalduko zen egunkariarentzako oinarriak jartzen hasi ziren, horretarako Egunkaria Sortzen plataforma eratuta. *Oinarriak jartzen* diogunean, proiektu haren ezaugarri nagusiez edo *hamaika oinarriak* modura ezagutu ziren haiez ari gara: euskaltzalea, nazionala, zabal- la, baterakoia, alderdi politikoekiko independentea, erdal

Alderdi politikoaren interesak bigarren planoan utzita, euskaran ardazturiko egitasmo autonomoa garatu gura zen, hizkuntza komunitatea trinkotzen eta egituratzen lagunduko zuena

komunikabideekiko independentea, ez-instituzionala baina bai diruz lagundua, profesionala, militantea eta berria. Proiektu haren talde eragilea osatu zuten izenei erreparatzen badiegu, askotariko pentsaeradun jendea topatuko dugu bertan, denak ere euskal kulturari itzal handia zeukaten pertsonak: Karlos Santamaria, Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei, Joxerra Garzia, Aingeru Epaltza, Hasier Etxeberria, Elene Lizarralde, Bernardo Atxaga, Fernando Unsain, Edorta Kortadi, Felipe Juaristi, Adolfo Arejita, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Erramun Baxok...

Trena martxan zen eta ez zegoen hura geratzerik: *Hemen* eta *Eguna* 1990eko udagoienera irauten eta gutxira, urte hartako abenduan bertan (udan zero zenbakia kaleratu eta gero) atera zen Egunkariaren estreinakoa, inoren apendizetaz izateko asmoz baino, hasi eta buka euskarazko informazio-erreferentzia beregain bihurtzeko xedez jaiotako egitasmoa.

## Autozentratzeko ahalegina

Gogoan dut *Argia*-n kolaboratzen hasi berritan esan ziguten lehenengo gauzatariko bat izan zela: datuak ematera-koan, erreferentziak eskaintzerakoan, nazioa kohesionatzea zen irizpidea, eta ez hizkuntza-komunitatea gehiago zatikatzea. Egunkarian ere berehala azpimarratu ziguten hori hara joandako bekadunok jasotako ikastaro trinkoan; horri esker, esamolde batzuk berrogeialdian jartzen hasi ginen: zein zen euskaldunon *gobernu zentrala*? *Atzerri ministroaz* mintzo ginenean, nongoaz ari ginen, Pariskoaz ala Madrillgoaz? Zuzen al zebilen EAEko lehendakaria *el lehendakari de todos los vascos y vascas* zela zioenean?

Egunkariak, iraun zuen bitartean, ispilu izaten asmatu zuela alegia, eta, mapa ofizialetan ez bezala, hizkuntza-komunitateak egunero-egunero ispilu horretan irudikatuta ikus zezakeela bere burua (kazeta horrek euskal geografiaren luze-zabalean ordezkariak jartzeko egindako ahaleginagatik, besteak beste).

Mugaz bi aldeetako euskaldunek ortografia bateratzeko 1902an Hondarribian egindako bilerak kale egin ostean, Bidasoa zabalxeagoa egin zela idatzi zuen Aranbarrik (1999). Ia ehun urte geroago, eskergaitza izan zen Egunkariak, bere erreferentzia-sistemari arreta berezia jarrita, Bidasoa zabal horretan zubiak eraikitze eta hizkuntza-komunitatea beregituratzeko eginiko ahalegina.<sup>5</sup>

## Kazetaritza-hizkera

Ez dira baztertzekoak, bestalde, Egunkariak euskal kulturaren bozgorailu modura betetako funtzio ezin garrantzitsua goa edota kazetaritza aldetik egindako ekarpena ere. Azken horren erakusgarri da, barbarako, AEBetako *National Press Club*-ak 2001eko irailaren 11ko erasoan ostean munduko 25 egunkari-azalik onenei eskainitako argitalpenerako Egunkariarena ere hautatu izana (*The New York Times*, *The Washington Post*, *The Times*, *Le Monde* edota *Pravda*-ren azalekin batera, besteak beste).

Anekdotak horretaz haratago, bere orrietan Euskal Herriko zein nazioarteko ehunka pertsona erreferentzialen iritziak agertu ziren, izan iritzi-artikulu forman, izan elkarrizketa moduan, eta baita makina bat auzi konplexuri buruzko erreportaje aberatsak ere. Nolanahi dela, kazetaritza aldetiko ekarri hori guztia dagoeneko beste batzuek ondo jorratua dutenez (ikus Ramirez de la Piscina et al., 2010), beste alderdi bati erreparatu gura nioke hurrena: erabilitako hizkuntzari, Egunkariak landutako kazetaritza-erregistroei.

Gogora datorkit bekadun modura jasotako ikastaro trinko hartan zelan eskatu ziguten *Estilo liburua* goitik behera irakurtzeko, aurrerantzean hura izango zelako gure biblia. Harrezkero, egunez egun artean euskaraz kasik izendatzeke zeuden kontzeptu eta errealitateak izendatzeko sormen-lan ikusgarri baten lekuko izan ginen: Gobernu Kanpoko Era-kundea, Barne Produktu Gordina, Nazioarteko Diru Funtsa, zinpeko zaindaria, Aldi Baterako Laneko Enpresak...

Zertzuk ez ote ziren atera sormen-faktoria hartatik, mundua une oro euskarara ekartzea baitzen hura.

Urteak geroago, doktorego-tesian murgilduta jada, prentsa abertzale elebiduneko 1970eko eta 1980ko euskarazko testuak irakurtzean jabetu nintzen arlo honetan eginiko aurrerakadaz: orain askoz hobeto idazten da oro har, besteak beste kazetaritza-estiloa eta corpora bera askoz garatuago daudelako, eta arlo horietan lan itzela egin zuen Egunkariak: zenbat ez ote genuen ikasi bertako zuzentzaile-taldearen eguneroko orrazketetatik, eta zenbat, halaber, berritutako pare bat edizio ere ezagutu zituen estilo liburu hartatik...

### Aurrera... atzekoari begira

Oharkabean ia, 25 urte igaro dira Egunkaria estreinakoz plazaratu zenetik. Gaur egun, Markina-Xemeinen euskal prentsaren aldeko diru-bilketaren bat egiten jarriko bagina, gutxi-asko bertako bizilagun gehienek jakingo lukete zertaz

ari garen; Pedro anaiak eta Willy Ugaldeak *Lea-Artibain* harpidedun bila hasi beharko balute, oinarri sendo batekin egingo lukete topo, ia 3.000 harpidedun baititu *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*-k (Bengoetxeak aipatua Ferreira, 2013n). Andoaingo eraikina hurreratuz gero, hura Egunkariarena beharrean *Berria*-ren egoitza dela ikusiko genuke; ez dakit, Egunkariaren estreinako urte haietan bezala, nominak berandu samar kobratuko ote di-

tuzten bertako beharginek, baina garai hartan lankide izaniko Imanol lagun eta kazetari eredugarriari irakurria diot Hego Euskal Herriko batez besteko soldata baino %24 txikiagoa dela *Berria*-ko langileena (Murua, 2014). Euskarazko

Orain askoz hobeto  
idazten da oro  
har, besteak beste  
kazetaritza-estiloa eta  
corpusa bera  
askoz garatuago  
daudelako, eta arlo  
horretan lan itzela egin  
zuen Egunkariak

prentsaren mapari dagokionez, 1980ko hamarraldiko panorama deskribatu dugu gaingiroki artikulu honetan; zorionez, ordukoa baino aberatsagoa da egungoa (eta, hala ere, buztinezko hankak ditu oraindik), baina aro analogikotik digitalerako jauziak koxka bat konplexuago bihurtu du lehendik ere sinplea ez zen prentsaren testuingurua (eta euskarazkoek aurrerapausoak eman dituzte hor ere: ikus, adibidez, *Argia*, 2015). Mende laurdena igarota, aurrera begiratu beharra dago, eguneroko itsaso digital konplexu horretan ganoraz nabigatzeko eta euskarazkoentzako baldintza duinak eta ibilbiderik egokienak bermatzeko; baina, horrelakoetan, Andres Gostin lankideak lantzean behin hizpidera dakarren Serge Daneyren irudia datorkit akordura: aurreraka zoazela, is-tripurik izan gura ez baduzu behinik behin, tarteka-tarteka atzerako ispiluari begiratu beharra dago. Eta gure atzerako ispiluan, argi dago, Egunkaria agertuko da beti, euskarazko kazetaritzaren autozentratze-ahaleginean, kazetaritza-erregistroen eta hizkeraren garapenean eta hizkuntza-komunitatea artikulatzearen aldeko lanean aitzindari eta bandera-ontzi izan zelako. 🐞

### **Oharrak**

1. [https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskaldunon\\_Egunkaria](https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskaldunon_Egunkaria)
2. Tiradari gagozkiola, egia esan, bere garaian zenbakiko 20.000 ale botatzera iritsi zen *Eguna*, baina Diaz Nocik jaso duenez (1992: 251), egunkari horren salneurria 15 zentimokoa zen arren, ale gehienak dohainik banatzen zituzten frontean ziren gudarien artean.
3. Azpimarratzekoa da, horri dagokionez, 80 urte lehenago (1907an) tokiko gaiak jorratu baina Ipar Euskal Herriko hiru probintzietan zabalitzen zen *Eskualduna* astekariak ere eragin handia zeukala bere eremuan, hura ere eremu mugatu horretan 7.000 bezero izatera iritsi baitzen (Alkorta eta Zuberogoitia, 2009: 25).
4. Masiboki zabaldutako aldizkariari irakurleek eginiko harrerari buruz, ikus Aiestarnek Txorierriko *Aikor!*, Eibarko *...eta kitto!*, Elgoibarko *Barren*, Orio eta Aiako *Karkara* eta Idiazabalgo *Aldaize* aldizkariekin eginiko azterketa. Ikertzaile horren arabera, «agerkari guztiek aurreikusi baino balorazio hobea jaso dute, hurbiltasuneko informazioa lantzen eta euskara sustatzen betetzen duten funtzioagatik batik bat. [...] kazetaritza-eredu horri merezi duen prestigioa aitortzea beharrezkoa da. Emaitzek erakutsi baitute herritarrek gustuko duten eta kontsumitzen duten prentsa dela herri-prentsa» (Aiestaran, 2010: 71-72). Tokiko hedabideen harrerari buruzko datu gehiago agertu da Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2015ean eginiko euskal hedabideen kontsumoari buruzko ikerketan. Bertan ageri denez, 1.000 irakurle baino gehiago dituzten tokiko 36 aldizkari daude EAE eta Nafarroan, eta irakurle horietako gehienek 15-30 minutu ematen dute batez beste aldizkaria irakurtzen (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015).
5. Eta hala ere, arrakalak hor jarraitzen du: Egunkariak, zarratu zuteanean, 111 harpidedun baino ez zeuzkan Ipar Euskal Herrian. *Berria*, abiatu berritan, ez zen 200era iristen; hau da, Hego Euskal Herrian baino 50 bider gutxiago. Garai berean, *Argia*-ren 8.000 harpidedunetatik %3 baino ez ziren Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak (Zuberogoitia, 2006).

**Bibliografia**

- Aiestaran, A. (2010). Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai. *Uztaro* 74, 59-72. Hemendik jaso: [www.ueu.es/download/artikulu/59\\_74.Aiestaran.pdf](http://www.ueu.es/download/artikulu/59_74.Aiestaran.pdf)
- Alkorta, L.; Zuberogoitia, A. (2009). *Masa-komunikaziotik Informazioaren Gizartera. Euskararen bideetan barrena*. Bilbo: UEU. Hemendik jaso: [www.buruxkak.eus/liburuak\\_ikusi/1888/masa\\_komunikaziotik\\_informazioaren\\_gizartera.html](http://www.buruxkak.eus/liburuak_ikusi/1888/masa_komunikaziotik_informazioaren_gizartera.html)
- Aranbarri, I. (1999). *Gure mendea. Ehun urte euskal kulturari*. Lasarte-Oria: Argia.
- Argia (2015). Euskal hedabideen audientzia %60 igo da azken bi urteotan. 2015-10-08. Hemendik jaso: [www.argia.eus/albiste/euskal-hedabideen-interneteko-audientzia-60-igo-da-azken-bi-urteotan](http://www.argia.eus/albiste/euskal-hedabideen-interneteko-audientzia-60-igo-da-azken-bi-urteotan)
- Arrieta, D. (2005). Arrasate Press: 16 urte tokiko prentsaren aitzindari-tzan. In: M. Arrieta et al. (argk.). *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa* (155-161). Bilbo: EHU/UPV. Hemendik jaso: <http://bit.ly/1al3PBz>
- Diaz Noci, J. (1992). *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937). Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena* [Doktorego-tesia]. Leioa: EHU-UPV. Hemendik jaso: [www.euskara.euskadi.net/appcont/tesis/Doctoral/PDFak/Javier\\_Diaz\\_Noci.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesis/Doctoral/PDFak/Javier_Diaz_Noci.pdf)
- Elkoroberezibar, M.A. (1992). Prentsa lokala Euskal Herrian. *Jakin* 69, 11-37.
- Ferreira, N. (2013). Lore Bengoetxea: «Papereko harpidedunak dira gure oinarria». *Bizkaie!* Hemendik jaso: [www.bizkaie.biz/orokorra.php?atala=2&id=12028&sec=4](http://www.bizkaie.biz/orokorra.php?atala=2&id=12028&sec=4)
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2015). *Euskarazko hedabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza [argitaratu gabeko dokumentua].
- Murua, I. (2014). Zenbat balio du bigarren eskuko tanke batek? *Berria*, 2014-10-26. Hemendik jaso: [www.berria.eus/paperekoa/2060/012/001/2014-10-26/zenbat\\_balio\\_du\\_bigarren\\_eskuko\\_tanke\\_batek.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/2060/012/001/2014-10-26/zenbat_balio_du_bigarren_eskuko_tanke_batek.htm)
- Ramirez de la Piscina, T.; Agirreazaldegia, T.; Ibarra, P.; Zallo, R. (2010). *Egunkaria. Amets baten egia*. Donostia: Ttarttalo.
- Zalakain, J.M. (1993). *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*. Tafalla: Txalaparta.
- Zuberogoitia, A. (2006). Informazio prentsa... nazionala? In: J.I. Bas-terretxea et al. (argk.). *Gu gara euskal prentsa. Hautu baten kronika: 1976/2006*. [CD-ROM]. Bilbo: UEU.

## EGUNEN GURPILEAN

### **111** Kultura

Kulturaren identifikazioa  
Tabako fabrikak ketan  
Arabako Kultur Mahaia  
Nagore Amondarain

### **117** Ekonomia

Langabeziaren estatistiken esanahirik  
eza  
Errefuxiatuak, iheslariak eta etxean  
geratu direnak  
Nafarroa Garaiko gobernuaren azken  
ekimenak  
Volkswagenen gezur sistemikoak  
Henrike Galarza

### **123** Soziolinguistika

Jaso eta eman  
Elefantea(k)  
Etorkizuneko sintesia  
Txerra Rodriguez

### **129** Telepolis

Internet sarearen neutraltasuna Europan  
Ahalduntze teknologiko integralerako  
bidea  
Gorka Julio





## Kultura

Nagore Amondarain

### Kulturaren identifikazioa

Hilabeteko epean, asko izan dira Kortxoenea eta Tabakaleraz idatzi direnak prentsan. Bata eraitsi nahi eta bestea irekitzen den astetik zenbatzen hasten da hilabeteko epe hori, eta oraindik ere, batak zein bestea, edo biek batera, hainbat iritzi artikulua beteko dituztelakoan nago. Ikusteke dago batak zein bestea zein norabide hartuko duten, herri mugimenduaren instituzio den Kortxoeneari instituzioak zelako erantzuna emango dion ez dakigu oraindik, ez dakigun moduan instituzioek bultzaturiko tabako fabrikari herri mugimenduak zelako galdera ikurrak jarriko dizkion.

Hilabeteko epea esan dut, artikulua idazten ari naizen sasoi baina erreferentzia. Eta hortxe kokatzen dut irakurketa: Kortxoenearen itxieraren afera eta Tabakaleraren irekieratik hilabetera eta Euskal Herriko karta soziala oinarri eraturako Alternatiben Herria burutzen den asteburutik.

Kulturaren identifikazioaz hainbat dira joerak egun. Kultura hibridoa apaingarri gisa erabil daiteke edo garapenean kulturak baduela funtzio bat ikus daiteke: identifikazio, sormen, informazio eta ongizatean pausoak emateko tresna dela. Auzo bateko errealitatera baldin bagoaz aurretik esandakoa adibidetzera, denok etorriko gara bat zera esatean, auzo batek derrigorrez behar dituela parkeak, eskolak, auto, bizikleta eta oinezkoentzako ordena urbanistiko bat edo eguneko ogia erosteko okindegi bat. Baina, horrekin batera, bertako bizilagunek kulturaz gozatzeko, parte hartzeko, sortzeko, harremanetarako, informatuak izateko guneak behar dituzte. Norbanakoaz gaindi, komunitatearen ongizatea ekarriko luke. Gabezia material ezari aurre egiteko moduz ulertzen da egun garapena,

ikuspegi ekonomikotik, beti ere. Baina garapena ulertzeko, erakusleiho edo ispilu adina modu ditugu. Eta gero eta jende gehiago islatzen duen ispilu horretan dago kulturarena.

Kultur sorkuntzaz ere aritu ziren Alternatiben Herrian urriaren hondarrean, «diru eta ospe nahiaren gainetik, balio eraldatzaileetan oinarrituriko kultur sorkuntza» izan zuten hizpide. Ez dago esan beharrik norbanako eta kolektibo asko islatu zituela Bilbokoak.

## Tabako fabrikak ketan

Tabako fabrikek, interes kulturalako ondare gisa katalogatu-tako eraikin horiek, zeresana eman dute estatu espainiarrean; zeresana eman duena garai bateko lantegi erraldoi horien egungo erabilera izan da. Hemen adibide batzuk:

- *Valentzia*. 2006an sortu zen *Salvem Tabacalera* hiritarrek osatutako plataforma. Hainbat abokatu, historiagile, arkitekto eta idazlek babestu zuten plataforma. Gobernuan zen PP alderdiak eraikinaren bi zati handi eraitsi eta etxebizitzak egiteko asmoa erakutsi zuenean sortu zen plataforma. Ondare arkitektonikoarekin negozioa egitea salatu eta Tabacalera zaharraren erabilera auzoak adostea nahi izan zuten. 2009an eraitsi zituzten eraikinaren bi alboak eta etxebizitza berriak egin. Plataformaren ekina Auzitegi Gorenera iritsi zen eta Valentiako Justizia Auzitegi Nagusiak bere garaian baimendutako eraisketa baliogabetu egin zuen 2013an.

Gaur egun, erdiko gunean udaletxeko bulego nagusiak kokatzen dira, eta, eraikinaren alboetan, aurreikusitako etxebizitzak. Rita Barberáren historian, ondare arkitektonikoaren birgaitzean aurrekontu handiena izan duen obra izan da tabako fabrika hau.

2015eko udal aldaketarekin, gobernu berriak (Compromís, PSOE, València en Comú) 2016rako zaharrentzako zentro bat integratuko du tabako fabrikan.

- *Gijón*. Bertako tabako fabrika zaharra baliabide gutxiko auzo batean kokatua dago. Udaberriko hauteskunde garaian, UPyDko alkatetzarako eledunak erabilera anitzeko zentro kultural baten alde egin zuen. Hauteskunde ostean, gutxiengoaren boto apurrak baino ez zituen jaso alderdi horrek, eta behin eraikinaren erabilera plaza publikoan izan dela, ikusteke dago egungo agintean daudenek zelan erabiliko duten Gijóngo tabako fabrika.
- *Alacant*. Bertako udalaren ekimenez, Las Cigarreras deituriko zentro kulturala sortzen da, hiriko ondarearen parte den tabako fabrikan kokatua dagoena. Kultura garaikideari eta arte abangoardistenari lekua egiteko sortu omen da.
- *Madril*. Urte luzez tabakoaren industriari lotutako eraikin honek, hamar urtez hutsik eta utzita egon ostean, 2009an harrotu zituen hautsak. Kultur Ministerioak museo bat eraiki nahi izan zuen bertan, horretarako eraikinaren birgaitze fasea hasita zegoen. Lavapiés auzoko hiritarrak antolatzen hasi ziren eta museo gehiagoren beharrik ez zela salatzen hasi; horrekin batera zentro kultural baten beharra etorri zen. Nahiz eta museoa egiteko proiektua emana izan, aurrekontu ezak (30 milioi euroko aurrekontua) eta krisiak eraginda, auzoaren nahietara jarri zen Madrilgo Tabakalera. Hiritarren parte-hartzean oinarritzen den egitasmo autonomoa eta autogestionatua da bertakoa. Bi urtero behin berritzen den kontzesioarekin daude bertan. Eraikin okupatu bat dirudi, argi eskasia, kristal hautsiak eta paretan egoera kaskarra ikusita. Auzoko kolektibo guztiei irekita dagoen gunea da egun. Asanbladan eratzen den kolektiboak programatzen ditu kultur jarduerak, beti ere kulturaren kudeaketa klasikoetik urruti dauden moldeetan: koste gutxiko ekimenak, elkartasunezkoak, kultura libre...

Kultura garaikiderako zentro izan nahi du Donostiakoak, eta kultura garaikide hori gizarteratzeko helburuz ere sortu

da. Aurreko esperientzia batzuetan ikusi den bezala, hiritar-  
rrak badu zeresana edozein delarik bere auzora, herrira edo  
hirira datorren proiektua. Ismael Manterolak *Berría* egunka-  
riko bere iritziaren ataldean, honakoa zioen irailaren 29an:  
«inork eskatu gabeko kultur edo arte azpiegitura martxan  
da». Donostiaren kasuan, aldi berean gertatu diren bi ger-  
takariak talkarako baino osagarritzeko balio beharko luke-  
te. Haizea Barcenillak irailaren 22an egunkari bereko iritzi  
artikuluaren beste hau utzi zuen idatzita:

Tabakalerak eta Kortxoeneak ez dute zertan arerioak izan. Batak  
bestea lagundu eta bermatu beharko luke, konplize izan beharko  
lirateke.

Angel Aldarondok ere, *Zin-zinez* izeneko bere ataldean, irai-  
laren 16an, beste hau idatzi zuen:

... azken hamarkadan kulturalki bigorexikoa bihurtu den hiri ba-  
tean, arreta propioa piztu beharko luke inguruko beste zentroak  
hustu barik. San Telmo, KM, Trueba, kultur etxeen sarea... edo  
Kortxoenea, noski, beraiekin elkarrekin bizi, osagarria izan.

Bestetik, aurretik aipatutako Kortxoenea edo Madrilgo La  
Tabacalera bezalako guneetan sortzen den jarduera kultural  
autogestionatuak uste duguna baino inpaktu handiagoa du  
kulturalari lotutako politketan. Museo edo espazio artistikoe-  
tan gero eta ugariagoak dira gune autogestionatuetan bereiz-  
garri diren elementuak: gune informalak (sarritan estetika  
ere imitatuz), sortzaile eta hiritarren arteko interakzioa bi-  
deratzeko ekintzak edo diziplina desberdinetako sortzaileen  
arteko hausnarketa dinamikak, non arkitektoak, eskultura-  
gileak, idazleak, musikariak maila berean jardun dezake-  
ten. Gero eta normalagoak dira pentsamendu kritikorako  
ekintzak; adibide moduan, Tabakalerak urrian programatu  
zuen Argentinako Montoneroen inguruko zine-foruma. Gune  
autogestionatu batean eman zitekeen dokumentala espazio  
hiperfinantziatu batean ikustean, beraz, batak besteari eman  
ahal dizkion onurez ohartzea baino ez zaigu geratzen.

## Arabako Kultur Mahaia

Beren funtzioa betetzeari utzi eta erabilera berria emateko sorturiko eraikinak gero eta ohikoagoak dira, eta Gasteizek ere badu berea. KREA Expresión Contemporánea eraikina Betoñoko monastegi zaharra birgaituz eraiki nahi izan zuten, eta lanak 2008an hasi ziren. 2010ean, behin eraikina berritu ondoren, Vital Kutxak bideragarritasun ezagatik ez zion hasiera eman proiektuari; itxita jaioko da, beraz, KREA.

Irantzu Lekue artista gasteiztarrak joan den irailean instalazio bat eginez salatu nahi izan zuen instituzioen utzikeria. Instalazioa (koloretako *ranguli* bat marraztea lurrean) KREA eraikinaren barruan burutu zuen eta udaltzainek atera behar izan zuten ekintza burutzen ari zela. Vital Kutxak salaketa jarri zuen Lekueren aurka, baina sare sozialetan azkar hedatu zen berria eta artista babestu eta kutxaren jarrera gaitzetsi zutenak asko izan ziren. Handik hilabete batzuetara atzera egin zuten salaketarekin, esanez: behin margoaren garbiketa bukatu eta ebaluazio bat egin ostean, margoak ez zuela kalte materialik sortu eta atzera egiten zutela salaketarekin. Artistari barkamena eskatuz ere bukatu zen afera.

Oraindik ere, eraikinari emango zaion erabilerak sortzen ditu aldiro berriak. Azkena, campus internazional bat jarri nahi dela bertan, moda eta diseinuaren ingurukoa. Lokalean pentsatu baino, ez ote dugu internazional mailan diluitzeko interes handiagoa?

Praktika artistiko eta kulturek aktibazio sozialean euren ekarpena egiten dute. Beti ere, artista horiek bestelako jendearekin bizi eta lan egiten badute, diziplina bereko eta desberdinetako. Artista ezin da lotu konplazentziarekin, inozentziarekin eta adeitsu izatearekin. Izan ere, Arabako kulturgileek, erakunde publikoek bultzatzen dituzten politikei erantzuteko, Arabako Kultur Mahaia sortu dute. Elkarrekin jarri dira sortzaileak, hartzaileak edo kudeatzaileak, Arabako lurraldean kulturaren egoera ahula dela-eta instituzioen aldetiko utzikeria salatuz. 2008-2011 bitartean

Amarika Asanblada sortu zen Gasteizen, gehienbat artista plastikoek instituzioekiko loturan erabaki, behar eta proposamenak lantzeko. Kulturaren mahai hori lan ildo berdinekin sortu da, baina zabalagoa izan nahi du, kulturaren bestelako adierazpenak ere tartean izanez. Kultur mahaiaren zergatiak azaltzean (euren blogean: *mahaiaaraba.wordpress.com*), honela bukatzen dute: «elkarrekin lan egitea dagokigu. Inork ez luke kultura-hondamendietan bizi behar, era berean inork ez luke hondamendietan bizi behar». Aldaketaren habeak ezagutzak harremanetan jarrita sendotzen dira, eta ez soilik ezagutza artistikoak; ezagutza horiek enpatia, elkarrekin lan egitea, errespetua eta beste hainbat izan daitezke. Eta harreman horietan guztietan sortzen da arduraren kontzientzia eta komunitatea eratzea. 🌸



# Ekonomia

Henrike Galarza

## Langabeziaren estatistiken esanahirik eza

Estatistika makroekonomikoak keynesianismoarekin sortu ziren, egonkortasun ekonomikoaren aroa izan zena Mendebaldeko herri kapitalistentzat. Lan kontratu gehienak, publiko zein pribatuak, bizitza osorako ziren, langabezia tasa txikia zen bizkitartean. Salneurriak ez ziren gehiegi mugitzen, eta administrazio publikoa eragile ekonomiko indartsua zen, jarduera ekonomiko nagusietan aktiboki parte hartuz: osasun zerbitzu, hezkuntza, komunikazio, siderurgia, banka eta finantza, eraikuntza eta abarretan. Orduan, jarduera horietan funtzionario publiko espezializatuak zeuden, enpresa pribatuen datuak begirada batekin arakatzeko gai zirenak. Orain, pribatizazioak, finantza desarautzea eta barne merkatuaren globalizazio neoliberala tartean, talde espezializatu handien lan luzea bezain zaila da aurkezten diren datuetatik egiaren apurtxo bat ere eraztea. Enegarren aldiz berpizte ekonomikoa datorrela entzun ondoren, berdin da zein den uneko langabeziaren ehunekoa eta horren aldaketa, burtsako balioen aldaketen inguruko albisteekin oroitu gara.

Sistema ekonomiko gezurti honetan, langabeziaren inguruko adierazle estatistikoak ez dira salbuespena. Biztanleria Aktiboaren Hiruhileko Inkestaren datuak INEMekoak baino fidagarriagoak badira ere, ez ohi dituzte kontuan hartu merkatuetako azti eta adituek. Beharbada, haien espekulazioak justifikatzeko unean uneko datu 'freskoak' ezinbertzekoak dira eta. Gainera, azkenaldi honetan, Gizarte Segurantzako kotizazioak ere argitara emateak ez du gehiegi lagundu, batez bertzeko hileko kontratu kopurua inolako zuzenketarik gabe helarazten baita; pertsona berberak hiru edo lau

aldizkako kontratu sinatzea edo pertsona batek jardunaldi osorako kontratua sinatzea berdin agertzen da. Argiago izateko, kontratuen kopurua pertsona eta urteka neurtu behar ko litzateke: hau da, erraterako, sei hilabeteko kontratu bat sinatzean, zerrenda estatistikoan lanpostu erdi bat bezala agertuko litzateke; horrela kontratuen iraupen guztietarako eginda, egungoak baino argibide egiatiagoak lortuko liratekeelakoan gaude. Baina horretarako behar den garden-tasunaren aldeko ekimena ez dugu inon aurkitu. Izan ere, bai enplegu eta langabeziaren tasak, bai inflazioarenak ere (kontsumo prezioen indizea eta barne produktu gordinaren deflaktatzailea) teknikoki kalkulatzeko badira ere, politikoki diseinaturik daude: hilabete batean 'enplegatu' gisa estatistiketan agertzeko lan egin beharreko ordu kopurua, erraterako; prezioen indizeak osatzean, zein ekoizkinen salneurri hautatu eta zein proportziotan neurtu behar den bakoitza kontu teknikoak izanda, ez dira era bakarrean erabakitzen herri eta lurralde ezberdinetan zehar, tokian tokiko agintari politikoei esku sartzeko tartea irekiz.

Ondorioz, indar sozialen mobilizazio eta presioak ezinbertzekoak dira, adierazle estatistikoek benetako egoera ekonomikoa azal dezaten. Esparru eta ildo honetan, indar sindikalen lana bereziki beharrezkoa dela uste dugu, haien kideen sareak eta esperientziak arras lagungarriak lirateke eta.

## Errefuxiatuak, iheslariak eta etxean geratu direnak

Dagoeneko, Siriatik lehenbiziko errefuxiatuak Hego Euskal Herrira iritsi dira. Oso gutxi eta nahiko berandu etortzen ari dira –oraingo erritmoan ehun urte barru iritsiko lirateke azkenak, arduradun baten kalkuluaren arabera–, Europako Batasunaren ekialdeko mugak hormez eta laban txikiz janzten ari diren bitartean.

Berriki Maltako irlan izan den goi bileran milioiak dantzari jarri dituzte agintari europarrek, beti ere aipatu hesi eta



labanek kostatu dutena baino askoz kopuru txikiagoan. Nola ez lotsatu? Mendebaldeko herri kapitalistek bultzatutako gatazka armatuek sortu duten tokian tokiko botere politikoen hutsunea ahantzarazi nahian edo, kexuka ibili dira gure ordezkari politikoak azenarioa, barkatu, dirua eman orduko, nori eman behar dioten zehazteko zailtasunez. Bere garaian armak banatzean ez zutenez hain zuhur jokatu, hor daude orain muturreko talde krudel batzuk biztanle xumeen aurkako etengabeko atentatuak eta exekuzioak burutzen, herri demokratikoek saldutako tresneria hilgarriak erabiliz.

Hango herrietan oraingo errefuxiatuek zuten aurreko bizitza desagerturik, gogora etorri zaizkigu, une batez, martiritzatutako hiri eta herri horietatik atera ez direnak. Errefuxiatu eta iheslariak haien bizitza bidaian zehar arriskuan jarri eta gero, behin harrerarako zentroetan hala edo nola sarturik, ongi edo gaizki bizi izateko aukerak dituzte. Egia da zentro batzuetan, jende gehiegi egoteaz gain, egunoroko baldintzak ez direla hoberenak, leunki errateko; baina, orain arte behinik behin, bertan ez dute haien bizitzarako arriskurik jasan behar. Atzean geratu direnak, aldiz, behin-behineko kanpamendu edo herrixketan, hiriburuetan bezala, egunoro gorriak ikusten ari dira, mehatxu eta arriskuak ia alde guztietatik pairatzen ari dira, aliatuen bonbardaketak barne. Herri eta nazio horien garapen historikoarekin militarki nahastea nahiko erraza zuten munduko estatu boteretsuenek, orain ikustekoa da birrindutako jendarte zibilek berreskuratu eta indartzeko aukeraren bat izanen duten.

## Nafarroa Garaiko gobernuaren azken ekimenak

Azken asteotan erresuma zaharreko Hegoaldean gobernu foralaren bi proposamenek urak harrotu dituzte, oposizioaren demagogia eta informazioaren manipulazioa ezin ageriagoan erakutsiz. Alde batetik, zerga gehiagorik jasotzeko erreforma fiskalaren aurrean inolako proposamen zehatzik

egin gabe hasi dira gobernuko proposamenaren aurka egi-ten, estatu espainoleko inguruko lurraldeetan baino ezarpen tasa altuagoa izanen delako argudio soila erabiliz. Datorren urte fiskalerako iragarritako igoerak oso xumeak izanda ere, hileko 20 euro ingurukoak txikiak, 100 euro errenta altuenen kasuan, oposizioak ez du ezer entzun nahi. Kutsu neoliberalerako diskurtsoez gain, zergak guztiontzat 'galdutako' dirua balira bezala aurkezten dituztenak, politika fiskal horren eskutik Nafarroa Garaia hondoratzerara doala ere erran eta entzun da. Oso zaila da baldintza horiekin negoziaketaren bat gauzatzea, ezer ez egitea proposatzen dutenekin hain zuzen. Inor ez da perfektua izaten, beraz, proposamena hobetzea posible da, progresibitate gehiago ezartzeko bidean, erraterako, eta halaxe aipatu dute Podemos alderditik. Baina gobernuia sustengatzen duten indar politikoen arteko konponketa bat izan beharko dela eman du. Edozein modutan, erreforma hori bide onetik doala pentsatu dugu, nonbait motz geratu bada ere, kualitatiboki mezu zuzena ematen ari baitzaio Nafarroa Garaiko jendarteari, justizia soziala eta bideragarritasun finantzarioa elkarrekin uztartuz.

Bertzaldetik, irakasle plazak sortzeko deialdi publikoaren kariaz nahasmena egundokoa izan da, euskaraz irakasteko lanpostuak eskaintza publikoaren ia hiru laurdena izanik. Ez dabil oso fin Mendoza Hezkuntza departamentu burua, Haranburu jaunaren izendapen ezeztatua lekuko. Izan ere, lehenbiziko aldiz Parlamentuaren bozketa batean gobernuak galtzea ekarri zuen gaizki-ulertu edo komunikazio akats horrek, Podemos eta Izquierda-Ezkerraren botoen laguntzaz. Gero giroa pixka bat baretu da, baina ezin ukatu laukotearen barruko pitzaduraren aztarnak. Podemos alderdiaren aldetik ñabardurak eta bigarren hausnarketarako deia entzun baditugu ere, aurkako botoaz damutzeraino, ez da gauza bera gertatu Izquierda-Ezkerraren partetik. Dударik gabe, azken indar horrek mundu sindikal gazteleradunarekin dituen harreman estuak daude ustekabeko, edo ez hain ustekabeko, matxinada politiko horren atzean. Indarrean dagoen Nafarroa Garaiko

Hezkuntza sistemaren bi erduetan –gaztelerazkoa eta euskarazkoa– ingelesez ikasteko programa eskaini zuenean, UPNk bazekien hezkuntza publikoaren kudeaketan nahaspila ederra sortzen ari zela. Inolako plangintzarik gabe egin zuten, ‘euskarazko lerroen hazkuntzari aurre egiteko’, Barcina andreak presidente zenean adierazi zuen ildoan. Hala, ikasurte batetik bertzera, ehunka irakasle C1 ingelesezko maila izatera behartuta ziren, aurreko UPNren gobernuen aldetik inolako formakuntzarik jaso gabe. Pellokeria maltzur horren ondorioz, irakasle elebakarren egoera larriagotuz joan da azken urteetan, haien lanpostuak ‘soberan’ daudela erran baitzuen 2013an UPNren gobernuak berak eskatutako txosten ‘tekniko’ batek. Gauzak horrela, ezkerreko indar horren jarrera sutsu eta hertsia, eskuineko argudioak bereganatzen dituen, kezkarria bezain ulergaitza iruditu zaigu. Komunikazio akatsak ez dira soilki gobernuarenak.

## Volkswagenen gezur sistemikoak

Azken urteotan Toyota enpresari ibilgailuen salmenten munduko lidergoa kendu ondoren, Volkswagen enpresak etorkizun oparoa izanen zuela espero zen. Aldiz, ikerketa talde estatubatuar batek aurkitu duena inor gutxik susmatuko zuen, Volkswagen ibilgailu eredu batzuetan gehiegizko isurketak ezkutatzeko trikimailu informatikoa jartzearena, alegia.

Gainera, duela zenbait hilabete, estatu espainolean enpresa aleman horixe izan zen legez kanpoko itun bat salatu zuena: ibilgailu marka ezagunen kontzesionarioen arteko akordio bat gutxieneko salneurriak finkatzeko, hain zuzen. Milioika euro isunetan ordaindu behar izan dituzte enpresa guztiek, Volkswagenek izan ezik, salaketa egiteagatik. Orain, errua onartu eta kalteak apaltzeko estrategia martxan jarri du enpresa transnazionalak, egin beharreko inbertsioak eta arriskuan liratekeen lanpostuak izanik protagonistak, noski. Amerikako Estatu Batuetan, baina, prozedura penala

irekitzeaz hausnartzen ari omen dira hango agintariak, eta horretarako, ziurrenik, General Motors edo Ford enpresen presio politikoak ez dira faltako.

Hala ere, zalaparta mediatikoaz haratago, ezin ukatu antzekorik gertatzea espero zitekeela, jasaten ari garen iruzur erraldoiez beteriko kapitalismoan, behintzat. Izan ere, merkatuetako jardueretan amaigabea da gertaera asaldagarrien zerrenda. Hasi miseriazko soldata eta lan baldintzekin, azkeneko iruzur finantzarioetara, elikagai eta sendagaien arazoak ahaztu gabe. Munduan zehar, hamaika kasutan eta egunoro, pertsonen osasun mental eta fisikoa merkatuaren zerbitzura jartzearen ondorio larriak 'arestiko kalteak' dira botere ekonomiko eta politiko nagusien arteko gupidarik gabeko lehia globalizatuan. Volkswagen enpresaren azken gezurra ingurumenari dagokio, eta hura babesteko legediari, azkenik, gure osasunari ere bai. Ildo horretan, afera osoa kontu handiz kudeatu beharko dute, ibilgailu guztien isurketa toxikoen inguruko gehiegizko argibideak iritzi publikoari ez iristeko. Zentzu horretan, enpresa horren gezurra sistemikoa da, haren ondorioak jarduera adar osoari dagozkio, marka guztiak batuta.

Gezur sistemiko bat, iritzi publikoari helarazita, boteretsua izan daiteke, kontsumo nahi, eredu eta legediak aldatuko dituzten mugimenduak sortuz eta indartuz. Ibilgailuak ekoizten dituzten enpresek ez dute nahi haien jarduera guztiak era garden eta sakon batean aditu talde benetan independente batek aztertzea. Ez dago informazio perfekturik, enpresetako sekretuak baizik. Eta gardentasun ezaren ondoren, gezurra, iruzurra eta delituak. Noiz arte? 🍷



## Jaso eta eman

*Beltzean mintzo* izeneko dokumentala ikusteko aukera izan dut Arrasaten. Dokumental horretan, Ameriketako 14 pertsonen haien hizkuntza komunitateari buruz egiten dute berba: kitxua, nasa, nahuatl, kaqchiquel, aimara, maputxe eta maia komunitateei buruz. Baina, euren egoeraz berba egiteaz aparte, zelan ikusten gaituzten eta euskararen herriari buruzko haien gogoetak oparitu dizkigute. Beste behin, argi utzi dute behatzaileak behatzen duen errealitatean ere eragiten duela.

Benetako energia darie hizkuntza indigena horietako kideei. Eta benetako energia txutea da horiek guri buruz esaten dituztenak entzutea. Dokumentala ikusten aritu ginen gehienon ahotan hunkitu aditza aditu izan nuen.

Dokumentala Garabide elkarteak apailatu du, baliabide gutxirekin. Baina hori ez da inondik ere oztopo kontatu behar dena interesgarri denean (ez da teknikan egon inongo arte-aren esentzia). Elkarte hori orain dela hamar urte sortutako gobernu kanpoko erakundea da, kooperazioan aritzen dena buru-belarri, kooperazio linguistikoa, hain zuzen ere.

Eta zer demontre da kooperazio linguistikoa edo, nahiago bada, hizkuntza-lankidetzatza? Kooperazioaren atzean, normalean, galdera hau egoten da: «Zenbat diru dugu emateko?». Garabidekoek horri buelta eman eta galdera hau pausatzen dute: «Zer esperientzia dugu trukatzeko?». Eta trukatzeko dugun esperientzietatik eurek zein aukeratu eta euskararen (euskaldunon!) biziberritze prozesua.

Esperientziak trukatzeko aritzeak aldatu egiten du kooperazioaren paradigma, nire ustez. Kooperazio tradizionalak 'eman' aditza du oinarri, ikuspuntu asistentziala bultzatzen

du, eman ahal diegun horretan oinarritzen da. Garabidekoen kooperazio paradigmatik, berriz, 'eman'-etik bezainbeste du 'jaso'-tik. Haien bizipenekin aberastu egiten dugu geure burua, eta emateak berak, kasu horretan, komunitate modura aberastu egiten gaituelakoan nago.

(Errigora kanpaina ere martxan jarri da ostera ere. Eta aurtengo leloa ere «Hartu eta eman» izan da, adierazgarria kointzidentzia. Porrotxi ere entzun diogu «Jaso eta eman, eman eta jaso, elkartasuna da hori» kanta).

Baina esperientziak trukatzeko, gure esperientzia ere eza-gutu behar dugu. Eta, horrela, Garabideko kideek, besteak beste, azken 50 urtetan euskara biziberritzearen alde egin diren lanak sintetizatu eta sistematizatu egin dituzte lau liburuxka dibulгатibotan (eta haiei lotutako lau dokumentaletan). Ahalegin intelektual eskertu gabea izan ohi da sintesia egitea, baina balio handia du (Galizia aldean, esate baterako, askok eskatu dizkirate liburuxkak behin baino gehiagotan).

Gurean ere balio du sintesi lanak, balio duenez. Urtetan pilatutako ezagutza ordenatu, sistematizatu, laburbildu eta era dibulгатibo batean itzuli egiten zaio jendarteari liburuxka horien bidez. Behar-beharrezkoa dugu hori, kultura soziolinguistikoaren zabalkundearen sinisten dugunontzako behinik behin.

## Elefantea(k)

Jakinen aurreko zenbakian esaten nuen sarri gogoratzen gara etorkizunaz. Eta hala da. Horren seinale Patxi Saez Belokik [www.erabili.eus](http://www.erabili.eus) agerkarian argitaratu duen artikulua: 'Euskararen elefantea ikusi'. Patxik hurrengo 30 urteetako euskalgintzaren zikloa zeharkatu behar duen estrategia marraztu eta zirriboratu gura izan du.

Izan ere, Joshua Fishman soziolinguistaren berba batzuetatik abiatu du bere analisisa: «Problema txikiez ardura zaitzke, problema nagusia ikusi gabe. Hori izango litzateke

zoologikora joan eta bakarrik zorriak ikustea, elefantea ikusi gabe». Eta Patxik euskararen elefantea hemen ikusten du:

Euskal Herriko gizarteak belaunaldi berriak euskalduntzen erabilitako diru guztiak eta egindako ahalegin guztiak zapuztu egiten ditu lan munduak. Horixe dugu, gaur-gaurkoz, euskararen berreskurapenean askok ikusten ez duten eta begi bistan dagoen *elefantea*. Horixe da, gaur-gaurkoz, euskarak duen problema nagusia.

Patxi Saezek artikulu nagusia prestatu eta hainbat euskaltzaleri eskatu dio haren gaineko iritzia. Momentuz 50 pertsonatik gorak eman dio erantzuna eta aspaldiko iritzi truke errespetuzko bezain dibergentea piztu da euskalgintzan. Eta, gainera, aldeak alde, ia erantzun dugun guztiok bat gatoz kontu batekin: ziklo bat amaitu da euskalgintzan eta euskararen biziberritzean. Eta ziklo berria amesten, zirriborratzen eta egiten hasi beharrean gaude. Astiro, baina tinko.

Hala ere, euskararen elefantearen diagnostikoan ez datoz bat erantzun dutenak. Gehienek ñabardura ohargarriak egin dizkiote Patxi Saezen planteamenduari. Iritziak iritzi, eta laburtzeko (eta, beraz, orokortzeko eta, beraz, hein batean, gezurra esateko) elefantea barik, elefanteak ikusi dituzte guztiek, edo Mikel Zalbideren berbetan esanda, arazoa multifaktoriala dela konturatu dira.

Diagnostikoan bat ez etortzeaz aparte, etorkizunean segitu beharreko lehentasunak (eta bigarrentasunak eta, seguruenik, azkentasunak) zehazten ere ez dira bat etorri artikuluaren jira-biran dantzan ibilitakoak. Etorkizuneko hariekin sokasaltoan estropezu ez egiteko proposatutako irtenbideak askotarikoak (eta, kasu batzuetan, kontrajarriak) dira. Hala ere, gehienak ari dira, nire ustez, dekretuen (edo legeen, edo behartzearen) eta kapital emozionalaren (edo sedukzioaren, edo erraztearen, edo motibazioaren) arteko dialektikan: batzuk batetik gertuago eta bestetuk bestetik. Ana Urkizak, kasurako, honako hau dio: «Baina, nago, hizkuntzak ez direla legez irabazten. Bai, zalantza gabe, zaintzen eta babesten. Baina ez, irabazten».

Eskertzekoa da, benetan, Patxi Saezek egin duen ahalegina, batez ere hainbat eta hainbat adituren iritziak batu eta txirikordatzeko egin duen ahalegina. Etorkizuneko sintesia oraindik egiteke dugu. Saiakera batzuk egin izan dira, kasurako, Jon Sarasuak *Hiztunpolisa* liburuan, *Argia*-ren Larrun hilabetekariaren 197. zenbakian (*Euskaigintza. Berritu ala hil*) edo Patxi Baztarrikak *Babeli gorazarre* liburuan (sokaren alde bietan egon daitezkeen iritziak plazaratuz). Eta Patxi Saezena bide horretan beste ekarpen bat izan da. Mamitsua, gainera.

## Etorkizuneko sintesia

Mapa berriak tolestuta ei datoz oraingo garai nahasi hauetan. Eta, beraz, ematen du gaitzagoa dela etorkizuneko purrustak margotzea. Hala ere, ziurtasun txiki batzuk baditut pilotuta nire buruko ganbara pitzatuan. Ahaztu barik zalantzak ziurtasunak baino itzel handiagoak direla. Horregatik, galderekin hasiko naiz etorkizuneko sintesi hori harean egin nahian.

Zergatik lortu zuen arrakasta Negu Gorriak taldeak? Zergatik dute arrakasta Anarrik, edo Berri Txarrak bezalako taldeek? Euskaraz kantatzeagatik bakarrik ez dut uste. Zergatik izan zuen arrakasta ikastolen mugimenduak? Edo zergatik izaten ari dira arrakasta gaur egun galiziera hutsezko Semente eskolak? Ez dut uste klaseak euren hizkuntzan emateagatik bakarrik lortu dutenik arrakasta, beste zerbait ere egongo dela uste dut. Zergatik du bertsolaritzak arrakasta gurean? Errimak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez zein alemanez antzekoak izan daitezke, ez ala?

Nire ustez, horiek guztiek (eta irakurleak gura beste adibide gehitu dezake zerrendara, asko baitira) hiru elementu ederto batean jokatu dituztelako izan dute eta dute arrakasta: hizkuntza originaltasuna, berrikuntza eta komunitatearen parte hartzea. Lehenengoarekin ez naiz luzatuko, baina merezi du beste elementu biei mikroskopia lupekin xehe-xehe begiratzea. Izan ere, gure geroa marraztu (edo, behinik behin,



zirriborratu) eta koloreztatu dezaketen elementu ezinbestekoak dira, nire ustez.

Berritu, zaharberritu, berrizahartu. Hori behin eta berriro egitera behartuta gaude. Inork ez du fotokopiarik gura. Originalak bai. Ikasi egin beharko dugu erremixaren kulturatik, lizentzia libreen mugimendutik, DJen artetik. Sortu, aldatu, moldatu, eraldatu, eraberritu, nahastu, asmatu, apurtu, erreproduzitu. Hangoa hemengotu eta bertakoa hangotu. Izan ere, berritzea nahastea da, nahastea eta erabiltzea, kopiatzea alegia, urardotzea alegia. Kanpoan egiten denari adi egotea, punta-puntako joeretan azti, barrura ere begiratzea ahaztu barik. Orain arte ere horretan jardun dugu, baina jarraitu behar dugu iparra argi izaten. Eta bide horretan sakontzen.

Eta, horretarako, behar-beharrezkoa da bertako komunitatearekin aritzea, bertako jendearekin antolatu, bertako jendeari parte hartzeko bideak ematea, auzolanean jardutea, inplikatzeko eta arduratzeko. Entzun behar dugu, ulertu behar dugu eta, hortik abiatuta, ahal den neurrian, landu eta, zenbait kasutan, asmatu. Izan ere, gure buruak arduragabetu ditugu eta bada sasoia horretan ere alternatibak eraikitzeko, berriro ere gure praktikak politizatzen. Burujabe egiteko, alegia. Eta eredu edo adibide ederra izan dugu Bilbon orain dela gutxi antolatu den Alternatiben Herria: txikitik eragiten txikiek.

Baina nago hori ez dela nahikoa izango. Nago hori baino gehiago behar dugula. Nago gure praktika berri eta berritzaile (edo zahar) horiek babestu, mimatu eta sendotuko dituen diskurtso propioa garatu ere garatu behar dugula. Horieta-rako zumitzak han eta hemen barrundatu ahal ditugu, eta, diskurtso berri hori egiteko eta jendarteratzeko, aurretik aipatutako elementuak beharko ditugu, baina beste baterako utzi beharko dut diskurtso berri horren formulazioa (edo, xumeago jokatuta, diskurtsoaren zirriborratze konpultsiboa).

Hala ere, Topaguneak bultzatuta, iraganaren begirada kritikoa eta etorkizuneko ildoak proposatu dituzte hamar euskaltzale ezagunek. Eta, gehiago sakonduko ez badut ere,

honako berba hauek darabiltzate etorkizuneko diskurtsoak eta mezuak jendarteratzeko: bizikidetza, identitatea, berdintasuna, aniztasuna, erantzukizuna, justizia eta errespetua. Azken finean, hiztun komunitate emantzipatua sortzea dute helburu, eta, horretarako, arnagune politikoa sortu gura dute. Hau da, euskararen prozesua blindatu eta interes eta estrategia alderdikoitik ateratzea. Agiri mamitsu hori orain ari dira herriz herri aurkezten eta merezi du arretaz irakurtzea. Izan ere, gure etorkizuneko ildo posible batzuk handik ez oso urrun ibiliko direlako, nire ustez. 🍷



## Internet sarearen neutraltasuna European

Europak sarearen neutraltasuna kolokan jartzen duen erabaki bat hartu du. Berez erabakia sarearen neutraltasuna ziurtatzeko pentsatua bazegoen ere, aurkeztutako emendakinak ez onartzeak kontrakoa ekar dezake. Aurkeztu den era ere deigarria izan da, 2017an *roaming*-aren –orain arteko herrialde arteko datu trafiko garestia– amaiera nabarmenduz.

Hasieratik has gaitezen sarearen neutraltasuna zer den azalduz: Internet zerbitzua kontratatzean, sarera konexioa baino ez dugu ordaintzen. Gure konexioa posta elektronikoa irakurtzeko, pelikulak deskargatzeko, YouTubeko bideoak ikusteko, sare sozialetan ibiltzeko edo blogean idazteko erabili, zerbitzua ez da aldatzen. Konexioagatik ordaindu dugun prezioa berdina da, eta ez da aldatuko erabiltzen dugun zerbitzua edozein dela.

Enpresa hornitzaile askok orain arte neutraltasuna zalantzan jarri duten praktikak ezkutuan eraman izan dituzte; horregatik ere legedi bat beharrezkoa zen, baina beharbada ez hau.

Oraingo legearekin lotutako eztabaida gehienak proposamenak dakarren hizkuntza lausoaren ondorio dira. Onartu den eran, hitzetan «Internet libre eta ireki» baten aldeko apustua ezerezean gera daiteke. Horrek ekar ditzakeen arazoak zereendatzen saiatuko gara:

- «*Zerbitzu berezitu*» atek irekitzeko aukera. Zerbitzu orokorretarako, lehen aipatutako egunero egiten ditugun horietarako, murriztapenik ez jartzea lortu da. Aldiz, 'zerbitzu berezitu' izendapen orokorpean, hainbat zerbitzuri (kalitateko bideokonferentzia zerbitzuak, telemedikuntza, IP bidezko telebista..., aipatzen direnen artean) izaera berezia

aitortu ahal zaio eta, beraz, trataera berezitua eman, horrek ekar ditzakeen zerbitzu arteko desberdintasunekin.

- *Zero rating izeneko praktika aurrera eramateko aukera.* Zenbait konexio hornitzailek Interneteko zerbitzuekin akordio pertsonalak gauza ditzakete, beraien trafikoa kontsumo arruntean ez kontabilizatzeko. Hau da, Telefonicak, adibidez, YouTuberekin izandako akordio baten ondorioz, YouTubeko aplikazioaren bidez ikusitako bideoak ez ditu kontuan hartuko trafiko kontsumoa neurtzeko garaian. Akordio horiek, noski, bezero horiei positiboki eragingo diete (beraien tarifetan ordainduko duten arren), baina akordio horiek sinatu ezin dituzten zerbitzu emaileei kalte.
- *Enpresa arteko zerbitzu bereziak eskaintzeko aukera.* Badirudi, arauaren idazketan, enpresen arteko zerbitzu bereziak eskaintzeko aukera ere badagoela. Sarearen kongestioa egon gabe ere, enpresen arteko abiadura ezberdineko zerbitzuak eskaintzeko aukera emango du legeak. Azkenean, bi abiadurako Internet lortzeko atak irekita geldituko dira.

Azken finean, legedi hori orain arteko legediak baino okerragoa da neutraltasunaren ikuspuntutik. Lengoia juridikoan sartu gabe, badirudi, idazteko eragatik eta emendakinak onartu ez izanagatik, izenburuan markatu zuten helburuaren kontrako lege bat izaten bukatu duela.

Benetako helburua Europako merkatua homogeneousatzea da berriro ere; enpresa handiak europar merkatu guztian erraz mugitu ahal izateko legiazioa prestatzea. Enpresa handiagoak handiago egiteko, alegia, beraiek bakarrik egin ahal izango dituzte-eta legeak ahalbidetzen dituen azpiegitura inbertsioak. Helburu horrekin bat egiten du hainbeste aipatu den *roaming*-aren amaierak ere.

Ikusteko dago zer egingo duten zerbitzu hornitzaileek eta baita estatuek ere, baina atzo baino gertuago gaude bi edo hiru abiadurako Internetetik.

## Ahalduntze teknologiko integralerako bidea

Gaitasun digitalak gure jendartean beharrezko bihurtu dira. Egunerokoan erabiltzen ditugu, sakelakoan ez bada, mahai gainean eta bestela tablet edo liburu elektronikoa. Konturatzen ez bagara ere, inguruan ditugu sentzore, kamara eta gailu askotarikoak. Gehiago ere izango ditugu, Gauzen Internet delakoak gailuak beren artean elkar lotuko baititu. Gaitasunik ba al dugu hori dena kudeatzeko?

Hainbeste eta hain azkar hazten dira, ezen zaila baita nahi izanda ere dena ulertu edo ezagutzea. Eskaintzen zaizkigun zerbitzu eta gailuen logika ere ulertzea zaila da; konfigurata eta etorri ohi diren bezala, normalean saldu digun horren mesedetan datoz. Horrek dituen eraginaren jabe izateko, kontziente izan behar da; eta, kontziente izateko, esfortzu bat egin behar da.

Horregatik, gaitasun digital horiek lantzeko garaian, buuruan izan behar dena ez da espezifikotasuna. Gailu edo programa zehatz bat ikasi behar gabe, ezagutza orokorrak behar dira. Baita autonomia propioa eskuratu ahal izatea eskainiko diguten teknologia ere.

## Programatu edo programatua izan

Douglas Rushkoff-ek erabiltzen duen esaldi horrek ondo laburbiltzen du programatzeak duen garrantzia. Irakurtzen ikasten dugunean idazten ere erakusten zaigun bezala, zergatik ez zaigu gaur egun hain garrantzitsua den programazioa erakusten?

Gaitasun digitalak izatea ez da programatzea bakarrik, gaitasun gehiago ere badira, baina programazioak bere baitan horietako asko barne biltzen ditu. Gaitasun horiek zein diren jakitea, ditugunak identifikatzea eta ez ditugunak aurrean zer egin behar dugun jakitea erabakigarria da.

Modelo asko dago izan beharreko gaitasun digitalak definitzen dituztenak; orokorretatik hasi, zehatzetara. DIGCOMP

modeloak (<http://ipts.jrc.ec.europa.eu/publications/pub.cfm?id=6359>) horietako batzuk identifikatzen ditu eta, gero, kasuan kasu, profil berezituen bidez zehaztu. Informazioa eskuratzen jakin, komunikazio digitalean trebatu, eduki-sorkuntza, segurtasuna eta arazoen kudeaketa... Halako gaitasunak dira bertan aipatzen diren batzuk.

Aurretik aipatu bezala, programazioaren gaitasuna bereziki garrantzitsua da. Informatikaren hastapenetan, informatika erabiltzea ia programatzearekin lotzen zen. Orain, aldiz, erabiltzen ditugun programak gero eta erabilerrazagoak direnez, gero eta abstrakzio maila altuagoa dutenez, zailagoa da programaren benetako logika ezagutzea. Jende askorentzat, azpian gertatzen den hori 'magia' da. Horrela, programak edota programa hori garatu dutenek gu menderatzera iristen dira. Programa horiek gure beharretara egokitu beharrean, gu haien beharretara egokitzen gara.

Programak gizakiok sortzen ditugun agindu segidak besterik ez dira, eta, beraz, aldagarriak; baina, horretarako, programazioaren oinarriak ezagutzea beharrezkoa da. Horrek ez du esan nahi denok bikain programatzen jakin behar dugunik, baina bai programazioaren logika ulertzera iritsi beharko genukeela.

Inoiz baino errazagoa da orain edozein adinetan programatzen ikastea. Codecademy.com eta Code.org plataformek, adibidez, aukera paregabea eskaintzen dute. Biek, era automatizatu batean, web teknologiak, programazio lengoiaia ezberdinak, hainbat programazio ingurune... ikasteko aukera ematen dute. Code.org, gainera, laster izango dugu euskaraz.

### Ezagutza librearen gakoa

Ezagutza espezie gisa eboluzionatzera bultzatu gaituen ezaugarria da. Ez da ondasun mugatu bat; zenbat eta gehiago erabili, orduan eta gehiago garatzen da. Horretarako, ezagutza sortzea, ikastea, barneratzea, sistematizatzea, transmititzea eta aplikatzea sustatzen duten baldintza sozial jakin batzuk behar dira.

Ezagutza libreak ondasun publiko gisa ikusten du ezagutza, pertsonen berdintasunezko garapena bultzatzen duen ondasun gisa, hain zuzen, ezagutzaren sortzaile eta edukitzaile gisa, araudi murriztaileek ez bezala (adibidez, jabetza intelektuala edo patenteak).

Bizi garen ezagutzaren jendartean ezagutza komun libre horri ekarpen gehien egiten diotenek eta beste batzuekin batera era irekian elkarrekintzan dihardutenek garapenerako aukera gehiago izango dituzte. Horregatik, datuak libre eta formatu egokietan eskuragarri jartzeak berebiziko garrantzia dauka. Horri esker, nahiz eta askatu duenak jakin ez, beste batek datu horiek baliatu, hobetu, berrerabili edota eraldatu ditzakeelako.

Gure helburua ezagutza ahalik eta jende gehiagorengan hedatzea bada, egiten ditugun lanetan lizentzia libreak erabiltzea ia beharrezkoa da. Bide horretan, dagoen aukera zabala- ren barnean, ezagunenak *Creative Commons* lizentziak dira.

Erabili nahi izanez gero, aukeratzen diren murriztapenen arabera konbinazio handi bat eman daiteke lizentzia horien barnean ere. Marko Txopiteak, 'Creative Commons-eko semaforoa' artikuluan (<http://ikusimakusi.net/eu/2012/creative-commons-eko-semaforoa>), oso ondo azaltzen du horien arteko aldea.

Eduki libreak sortzeaz gain, eskuragarri jarri eta berrebiltzeko biltegien aldeko apustua ere egitea garrantzitsua da. Wikipediak berak eta Wikimedia fundazioko proiektuek (<http://wikimedia.org>) funtzio hori bete izan dute eta jarraitu beharko dute betetzen, baina hortik harago ere sortu beharko da, bereziki hezkuntzarako, edukiak trukatzeko gunerik.

### Gailu eta tresna libreek atek irekitzen dizkigute

Erabilera bakar baterako gailuak gauza zehatz baterako bakarrik daude pentsatuak. Eginbehar zehatz hori aurrera eramateko gai badira ere, ikasketa prozesuan erabilera anitzeko gailuak hobesteko saiakerak egin behako genituzke.

Aukera berdintasuna ere kontuan hartu behar da. Eskoletan, adibidez, eskatzen ari garen tresnaren kostua eta teknologiaren irekiera oso garrantzitsuak dira horretarako. Lehena, edozeinek gailua eskuratzeko, eta bigarrena, erabiltzen diren teknologia muga bat ez izateko. Eskoletan teknologia berri bat txertatzeaz hitz egiten denean, tabletak, ordenagailu garestiak (*Apple* produktuak, adibidez) edo sinplifikatuak (*Chromebook*-ak, adibidez) akats larria dira. Ikasketa prozesuari traba egiten diote eta irudimena lantzeko aukerari ateak itxi. Aldiz, *Telepolis* sail honetan aurretik ere aipatu izan dugun Raspberry Pi ordenagailu merke eta sinpleak ematen dituen aukerak asko dira.

Plakatxo txiki hori ordenagailu txiki bat da, pantaila eta teklatu bati lotuta mila aukera eramaten dituena. Ordenagailu arrunt bat bezala erabiltzeaz gain, sentsoreak programatzeko edo errotoak muntatzeko balio dezake. Erresuma Batuan eta beste hainbat tokitan eskola programan sartu dute (<http://eandt.theiet.org/magazine/2014/09/raspberry-pi-teaching-aids.cfm>).

Beharbada ez ditu ordenagailu arrunt batek dituen aukera guztiak, baina benetan teknologia gure eskuetan hartzeko eta ulertzeko tresna paregabea da. Kotxe bat balitz, pieza guztiak ezagutzeko aukera emango lidake, baita berarekin nahi dudana egiteko aukera ere.

Softwarearekin ere berdina gertatzen da, software libreak eta estandar irekiek erabiltzen dugun teknologiaren kontrol handiagoa ematen dute. Ez dugu zertan dena jakin behar, baina, jakin nahi izango bagenu, aukera izatea nahikoa da. Subiranotasun teknologikoa, segurtasuna, mantenua, bateragarritasuna... edozein dela ikuspuntua, onuragarria da hori.

Hezkuntza prozesuak, dudarik gabe, software librean izan beharko luke oinarria. Irakaskuntza prozesuaren zenbait proiektu edo atal berezietan berehala erabiltzen hasteko aukera dago. Ezin den kasuetan, software pribatiboa ezarrita dagoen tokietan, migrazio osoa ezinezkoa izan daiteke hasieran, baina prozesua martxan jarri eta software librean oinarri



duen sistema eragileak, nabigatzaileak, bulegotika tresnak... migratzea lehen pauso bat izan liteke.

Ekartzen dituen onurak arlo askotarikoak dira. Batzuk ekonomikoak: normalean software librearen ezarpena soluzio pribatiboen bidezkoa baino merkeagoa izango da; merkeagoa ez den kasuetan, egindako inbertsioa egokitzapen, zerbitzu, moldaketa eta lokalizazioari begirakoak izan daitezke. Beste batzuk onura sozialak dira: software librea sustatuz egiten diren moldaketa guztiak jendarte osoaren onurarako ere badira eta garapen ekonomiko lokala ere sustatzeko balio dezakete.

Ondo baino hobeto laburbiltzen ditu GNU mugimendua-ren sortzaile izan zen Richard Stallmanek arrazoi guztiak ‘Why Schools Should Exclusively Use Free Software’ artikuluan ([www.gnu.org/education/edu-schools.en.html](http://www.gnu.org/education/edu-schools.en.html)).

Aipatutako hiru gako horietan dago hain garrantzitsua den eta izango den ahalduntze teknologiko integralerako bidea. Denoi dagokigu, baina bereziki hezkuntzaren alorrari, pauso sendoak ematen hastea. 🍷

KAIXO,  
NI HASIER  
ETXEBERRIA NAIZ  
ETA ZU  
EZ.



"EUSKALDUNON  
EGUNKARIA" SORTU ZELA  
HOGEITA BOST URTE BETE  
DIRELA PROFITATUZ, AFARI-  
MERENDUA PRESTATU DUGU  
XOKOÑO POLLIT HUNTAN.  
SARRERAKOAK BAIONAKO  
XINGARRA ZALDUONDOKO  
BARATXURI ERREGOSIAREKIN  
ZAMALKATUZ HASI DITUGU.  
ONDOTIK, IBARRAKO  
OTARRAINXKAK GESALTZAKO  
GATZETAN ETA ESKUERNAGAKO  
OLIOZ BLAITURIK. JARRAIAN, BLI ETA BLO  
ETA BLE ETA BLURP...



zugaz/  
art

...ETA SAGARNO PUTZU BAT,  
AKEITA, TXOLA ETA TXOKORRA LAGUN,  
BOST KULTURGILE  
(NEURRI BATEAN EUSKALDUN,  
ZERGATIK EZ!) BATU DITUGU  
MAHAIAREN BUELTRAN AIPATU  
EFEMERIDEAREN KARIETARAT  
ETA EGIN DIEGU ITAUNA  
EUSKAL LETREN MUGARRIA  
EZARRI ZUEN EGUNKARIAREN  
ERAGINAZ, DENBORAREN  
JOANAZ BERAZ, MENDEA ETA  
SEGUNDUA GURUTZATZEN DIREN  
LEKUAZ ETA BESTE  
HAINBAT AFEREZ.  
IZAN ERE, HOGEITA BOST  
URTE EZ DIRA EZ BAT, EZ BI,  
HOGEITA BOST BAIZIK.  
(ETA PUNTO).



NIK ESANGO NUKE  
HOGEITA BOST URTE  
ETA GERO, ORAINDIK,  
"ESTILO LIBURUAK"  
BADUELA HALAKO  
BARNE-AHOTS  
POETIKO BAT  
BESTE ALDERA  
ZARAMATZANA  
...

FABOREZ, JIM!  
ITXURAK ZAINDU  
BEHINTZAT!

HOGEITA  
BOST URTE!  
BIZITZA OSO BAT!  
KAR! KAR!  
KAR!

...LIHMM...  
KANTA BAT  
OTU ZAIT;  
...NA-NA-NAAA  
EGUNKARIA...  
NA-NA-NAA  
LIHMM...

HOGEITA BOST URTE!  
ZE ONA! KAR! KAR!...  
GORA SAGARDO  
BERRIYA TA  
EUSKALDUNON  
EGUNKARIYA!



•eus  
**Jakin**  
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943 21 80 92  
jakin@jakin.eus  
www.jakin.eus

